

LABAYRU IKASTEGIA

Unidade didaktikoa  
Idoia Alzibar



Mikel Zarate

**Ipuin antzeko  
alegi mingotsak**

Mikel Zarate (Lezama, 1933-1979) euskaltzale handia dogu, euskal letretan arlo gehienetan ibilitakoa. Literaturan be, sorkuntzari jagokonez, genero asko erabili ditu, baina ipuinetan erakutsi dau mailarik onena.

*Ipuin antzeko alegi mingotsak*, izenburuak berak dinoanez, alegi sorta bat da, eta alegiok ipuin antzekoak eta mingotsak dira. Alegien bidez, egileak bere inguruko gizartea erakusten deusku, orduko gizarte, kultura eta hizkuntza gorabeherak ardatz hartuta.

Liburu honek 1975ean Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue Saria irabazi eban, harrezkero hainbat bider argitaratu da.

Edizino honetan, testua gaurko idazmoldeetara ekarri, eta ipuinei irudiak eta atal didaktikoa gehitu deutseguz, irakaskuntzan landu gura izan ezker ariketa lagungarriak dituala.

Unidade didaktikoa Idoia Alzibarrek prestau dau (Urduliz, 1968), era honetako zereginetan lehenago be ibilitakoa, bilduma honetan bertan *Bat eta bi, hiru eta lau* izeneko liburua berak atondu eban eta. Horrez ganera, egin barri dau *Ekilikua. Euskal sinonimoen ahozko bilduma* hiztegi antzeko berbategia.

**KIRIKÑO**

C. Larreategui, 11  
94 424 11 74  
48001 BILBAO

**LAUTXETA**

R. Arias, 45  
94 441 27 77  
48011 BILBAO

**LIZARDI**

Heliodoro Torre, 9  
94 447 29 79  
48014 BILBAO

Ipuin antzeko alegi mingotsak

Mikel Zarate

# Ipuin antzeko alegi mingotsak

Unidade didaktikoa  
Idoia Alzibar



Labayru Ikastegia

Bilbao  
2004

## AURKIBIDEA

SARTAURREA. IDOIA ALZIBAR .....	9
Sarrera. Mikel Zarate .....	19
Bestelan ondo baina... ez? .....	23
Idatz eta Mintz .....	26
Arrastaka .....	33
Eskoikale, Ezkerkale eta Erdikale .....	35
Baikor eta Ezkor .....	40
Aberetasuna eta aberekeria .....	42
Basamortuko robotak .....	45
Ekidazuko astasendia .....	47
Txirorik txiroena .....	56
Zaldibi .....	58
Txorikumatxoa, behia eta katua .....	61
Ni ez naz zu .....	63
On eginaren pagua .....	65
Ekinaren iruzurra .....	70
Menditzar eta Menditxo .....	73
Sariketa Nagusia .....	75
Txoriak Arrano jaunari .....	78
Uraren hileta .....	80
Trena eta Autoa .....	86
Zerbitzarien zerbitzari .....	88
Inurri-pilo piramidetua .....	91
Arrankariren bihurritasuna .....	93
Beste gari mota bat .....	102
Tximino eta Tximina .....	105
Arratoiboda .....	108
Kaiolan jaio eta hazitako txoria .....	110
Egiederko alegi .....	112
Hezi arren .....	117
Pozordu eta Minordu .....	120
Erle eta Miru .....	122
Inauteri .....	124
Sai eta Otso .....	131
Bildotsaren abestia .....	133
Tutulu .....	135
Betiko leloaren durundua .....	139
ARIKETA OROKORRAK .....	143
ERANTZUNAK .....	147



## **Mikel Zarate. Bizitza.**

Mikel Zarate Lejarraga 1933.eko martian jaio zan Lezaman. Umetako ikasketak Lezamako eskolan egin ebazan. Aparejadore egin ostean, bere aitagaz hasi zan beharrea, baina hogeitortegaz Derioko Seminarioa joan zan 1953an eta abadetu egin zan. 1964-1966 urteetan Gerean egon zan abade. Abadea zala, 1969an, Filologia Erromanikoan lizentziatu zan Deustuko Unibertsidadean. Urte horretan Lauroetako auzo-eleizaren ardurea hartu eban.

Hainbat lekutan ibili zan bere jakituria irakasten. Derioko eskolako eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskera irakaslea zan. 1970etik aurrera Derioko Udako Euskal Ikastaroan be irakasle izan genduan. Bere bizitzaren azkenengo momentuan Deustuko Unibertsidadean hasi zan literatura irakasten Euskal Filologia sailean.

1979ko apirilean hil zan Mikel Zarate bere Lezama maitean.

## **Mikel Zarate. Lana.**

Mikel Zarate bizi izan zan sasoi latza zan benetan. Francoren diktadura indarrean egoan oraindino, eta horrek eragin handia izan eban bere idaztietan. Familia abertzalean hazia zan, eta txiki-txikitatik sufridu eban indar zapaltzailearen eraso. Orduan, gainera euskeraz berba egitea galazota egoan, eta apurka-apurka hizkuntza ahultzen joian.

Eutiki Zulueta abade bermeotarra ezagutu ebanetik aurrera ekin eutsan gure hizkuntza lantzeari.

Mikel Zarateren lana zabala da. Hasiera baten meza liburu batzuk itzuli eta egokitu ebazan:

*Gure Meza Deuna*. Bilbao: Pio PARSCH, 1960.

*Gure Salbazino-egintza*. Alkartasun Zarra. Erderazko 3'garren argitalditik euskeratua. Bilbao: Ascea, 1967.

*Meza liburu txikia (Bizkaieraz eta erderaz)*. Bilbao: Editorial Cantábrica, 1968.

*Meza liburu txikia (Gipuzkeraz eta erderaz)*. Bilbao: Editorial Cantábrica, 1968.



1970etik 1979an hil arte, hainbat liburu idatzi ebazan, honeetari-ko askok sariak irabazi ebezan.

*Bizkaiko Euskal-idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera.* Derioko Seminario Ikastetxea, 1970.

*Euskal Deklinabidea. Bizkaieratik baturantz.* Durango: Leopoldo Zugaza, 1975.

*Euskal Literatura Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak.* Durango: Leopoldo Zugaza, 1977.

*Euskal Literatura II. Azterketak, Aztergaiak.* Durango: Leopoldo Zugaza, 1978.

*Haurgintza Minetan.* Donostia: Etor, 1973. (Txomin Agirre Saria)

*Ipuin antzeko alegi mingotsak.* Durango: Leopoldo Zugaza, 1975. (Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue Saria)

*Ipuin antzeko.* Bilbao: Gero, 1975.

*Literatura III (Elerti. Testu azterketarako).* Derio: Udako Euskal Ikastaroa, 1975.

*Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri-Gran Bilbao.* Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

*Higidura Berdez.* San Sebastian: Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, 1977. ("Ciudad de Irun" Olerki Saria).

*Euskal Literatura.* Derio: Udako Euskal Ikastaroa, 1978.

*Euskera Diakronikua.* Derio: Udako Euskal Ikastaroa, 1978.

*Euskal Ortografia (Baturantz).* Durango: Leopoldo Zugaza, 1978.

*Bizipenen bultzadaz.* Durango: Leopoldo Zugaza, 1978.

*Utopiaren Fantasiak.* Donostia: L. Haranburu, 1979.

*Bilbo irribarrez.* Galdakao: Bizkargi Argitaletxea, 1980.

*Etorriaren Zorabioz.* Bilbao: Asociación Ikeritz para el estudio y la difusión de la cultura, 2004. (1978an "Felipe Arrese Beitia" Olerki Saria).

Lan horreetatik aparte Mikelek badaukaz beste hainbeste artikulua, olerki eta lan solteak. Aitatzekoa da, gaur egun mezatan abesten doguzan kanta batzuk be, berak asmautakoak dirala.

Mikelek bere obra idaztean izan dauan meriturik handiena, edozein irakurlek ulertzeko moduan idazten ebala da. Berak ondo hartzen eban kontuan nojentzako idazten egoan, eta horretarako herriak ezagutzen dauzan errecursoak erabilten dauz: kantak, errefrauk, bertsoak, jokoak...

Mikel Zaratek euskera batuaren sorrera prozesua bizi izan eban. Berarentzat, euskera baturako eredu euskalki guztietatik batua izan beharko litzatekela argi erakutsi eban.

### *Ipuin antzeko alegi mingotsak*

Mikelek idatzi eban obrarik garrantzitsuenetarikoa dogu. Liburua alegia bilduma da, helburu didaktikoz egina. Ipuin antzera idatzita dagozan alegiak, berak adierazoten dauan lez, "alegia mingotsak" dira. Bertan herrikoitasuna eta herrizaletasuna defenditzen dauz, herriari jagokozan arazoak erakutsiz.

Alegietan gai ezbardinak jorratzen dira: gai politikoak, euskera-  
ren egoera azaltzen dabenak, eta giza gaiak.

Liburua 1972-1975 urteen artean dago idatzita. Sasoi horretan Francoren diktadurea da nagusi, eta gero eta mobimendu abertzale gehiago dagoz Euskal Herrian. Mikelek argi eta garbi aitatzten dau gai hau. Euskaldunon alkartasuna eskatzen dau, alkartasun barik ezin izango da Euskal Herria atera sufritzen dauan zapalkuntzatik.

Euskereak be garrantzi handia dauka Mikelen alegietan. Bera euskera batuaren aldekoa zan, baina ez edozein modutara. Zentzuz lortu behar zala aldarrikatzen eban, hizkuntza idatzia eta mintzatuaren arteko batasunari eutsita, eta euskalkiak kontuan hartuta.

Giza gaiak be lantzen dauz Mikelek alegietan. Kritika handia egiten deutse gizonaren gizatasunari, publizidadeari, natura desegiteari...

Kontaketa teknikeari jagokonez, Mikelek kontaketa era ezbardinak erabilten dauz. Tartetu egiten dauz narrazioa, bertsoa eta alkarrizketea.

Deskripzioak hartzen dau pisurik handiena, Mikelek aparteko gaitasuna daukalako gauzak deskribitzeko orduan. Narratzailea bigarren maila batean geratzen da, bere lana inguruak deskribidu eta personaiak parte hartzen daben ekintzak kokatzea litzatekelako.

Alkarrizketek be leku inportantea beteten dabe alegietan. Personaiak, bizibakoak izan arren, zuzenean egiten dabe berba, eta horrek arintasuna emoten deutso testuari.

Bertsoen garrantzia aitatzekoa da. Askotan bertsoan bertan joango da alegiaren pisurik handiena. Hasieran agertu ezker, sarrera modura ulertu geinke, egoeran kokatzen gaitualako. Azkenean doanean, oster, irakatsia edo mezua joango da bertan. Alegia batzuetan, gainera, bertsoak bakarrik irakurrita, hau da, narrazioa eta alkarrizketak irakurri barik, nahikoa da alegiak adierazo gura deuskuna ulertzeko.

Alegia batek ez dauka besteagaz zerikusirik. Bakotxak bere aldetik jarraitzen dau, eta bakotxak bere egiturea dauka. Ipuin batzuk sano laburrak dira, baina baita sano esanguratsuak be. Beste batzuk luzeagoak dira, sano landuak eta erakusgarriak. Halakoe-  
ek egitura lineala jarraitzen dabe, hau da, hasierea, korapiloa eta amaiera.

Mikel Zaratek Euskal Herrian kokatzen dauz bere alegiak, bai-  
na hau estaldurik agertzen da, obra osoan ez dau Euskal Herria ize-  
na baten be aitutzen eta. Sinboloak erabilten dauz. Gehien erabil-  
ten dauan errekursoa dala esan geinke. Sinbologia maila ezbardine-  
tan agertzen da.

Alegiak diranez, personifikazioak leku handia dauka. Gauzak,  
abereak, literatura motak, izadiko elementuak eta abar dira ber-  
ba egiten daben personaiak. Honegaz personaia bakotxaren ezau-  
garriak bere berbakereagaitik eta jarrereagaitik markauta  
datoz. Dana dala, personaia bakotxak berari jagokon izakerea  
erakutsiko dau, adibidez, Atsotitz, Alegi eta Sermoi deitzeaz  
bakarrik badakigu zein dan erakutsiko daben izakerea, berbake-  
rea eta jokaerea.

Mikel Zarateren obrea leidutea erraza egiten jaku. Berak era-  
bilten dauan hizkerea eta estiloa aberatsa dan moduan, herrikoia  
be bada. Honek irakurlea erakarri egiten dau, gustura irakurri eta  
interpretetan dau alegia. Barruan dagoanagaz be erraz jaubetzen  
da, eta gustuko dauka idazleak sasoiko arazoak adierazoteko era-  
bilten dauan modu umoretsu eta ironikoa. Erabilitako hizkerea  
ezin aberatsagoa da. Herrian batutako errekurso piloa darabil  
alegietan: esakerak, onomatopeiak, ezizenen erabilerea, kantak,  
bertsoak... Sinonimoen ugaritasuna be deigarria da liburuan. Mike-  
lek berba bat baino gehiago erabilten dau gauza bera esateko.  
Horregaz irakurleari mesedea egiten deutso. Alde batetik lana  
errazten deutso, berba bat ulertzen ez badau bestea ulertuko  
daualako, eta beste alde batetik, bide batez bere hiztegia abe-  
rastuko daualako.

Edizino hau plazaratzeko aldaketak egin doguz, beti be Mikelek  
erabilten dauan hizkerea errespetauta. Bizkaiera landua bultzatu  
gurean, eguneratu egin dogu edizinoa. Horregaitik, ortografia,  
deklinabidea eta aditzak gaurkotu egin doguz. Halanda guztiz be,  
batzuetan Mikelek erabilitako formea errespetau dogu, alde bate-  
tik egileak batzuetan hori nabarmendu gura ebala ulertu dogulako,  
eta beste alde batetik, bertsoen kasuan, errimeza ez apurtzeko.

Edizinerako erabili diran kriterioak, batez be, honeexek dira:

## JATORRIZKO EDIZINOAN

### DEKLINABIDEA:

-ekaz  
-arengana  
-a  
-ak  
-tzean  
-tzera  
-tzen  
-tzea  
-tzeko  
-tzerik  
Haiek

### ADITZAK

Eutson  
Datoroko  
Zituen  
Zituezan  
Dagitsudan  
Daiketsut  
Zaiatazana

### LEXIKOA

Ere  
Aipatu  
Esaera  
Hala  
Jende  
Ta  
Nahi eta nahi ez  
Legez  
Bezela  
Gixajoa  
Ixildu  
Hasarretu  
Ezberdin  
Udaberri  
Bakoitza  
Bikoitza

## EDIZINO HONETAN

### DEKLINABIDEA:

-akaz  
-agana  
-ea  
-ek  
-tean  
-tera  
-ten  
-tea  
-teko  
-terik  
Hareek

### ADITZAK

Eutsan  
Jatoroko  
Zituan  
Zituen  
Deizudan  
Daiketzut  
Zatxatazana

### LEXIKOA

Be  
Aitatu  
Esakera  
Halan  
Jente  
Eta  
Nahietanahiez  
Lez  
Bezala  
Gizajoa  
Isildu  
Haserratu  
Ezbardin  
Udabarri  
Bakotxa  
Bikotxa

Haundi  
Inoiz  
Baztar  
Halan eta guztiz ere  
Habi  
Atara  
Bidar  
-ñ eta -ll

Handi  
Inoz  
Bazter  
Halanda guztiz be  
Habia  
Atera  
Bider  
-in eta -il

#### ATZIZKIAK

-tade  
-deri

#### ATZIZKIAK

-dade  
-keria

### Unidade didaktikoa

*Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuaren unidade didaktiko honek helburu bi ditu, batez be. Lehenengoa lexikoa lantzea da, eta bigarrena Mikelek idatzitako alegiak ulertzeko ariketa aproposak prestetea.

Ariketok arlo bitan banandu dira. Lehenengo arloari *Dakizunetik ez dakizunera* izenburua ipini deusagu. Honetan lexikoari jagokon guztia lantzen saiatu gara. Holan, sinonimoak, antonimoak, esanahiak, atzizkiak, esakerak, hitz jokoak, ortografia eta antzekoak lantzeko ariketak prestau dira. Atal honetan, kasu batzutan, gramatikeari jagokozan galderak be egin dira, interesa ikusi danean.

Bigarren arloari *Ulertu dozu?* deitu deusagu. Honetan komentario literarioa modu erraz batean egiteko ariketak prestau doguz. Lexikoa ondo landuta eta alegia ondo ulertuta, sakontzeko momentua da. Halan, gaia, argudioa, sinbolismoa, personifikazioa, umorea, ironia... eta Mikelek erabilten dauzan hainbeste baliabide hobeto ulertzeko aukerea emoten ahalegindu gara. Kasu batzuetan, alegiaren maminak halan eskatuta, irakurlearen eretxia eskatu dogu, bertan gertatzen danaren gogoeta sakona egin daian.

/ Amaitzeko, Mikel Zarateren bizitza eta lanaren gaineko ariketa orokorrak emoten dira. Mikelen *Ipuin antzeko alegi mingotsak* irakurri ostean, orokorrean emondako ezaugarriak aztertzen dira ariketen bitartez.

Ariketa guztiak erantzunakaz datoz. Azkenengo orrietan ariketen erantzunak emoten dira irakurleari, idazleari eta baita irakasleari be, lana errazteko. Dana dala, irakurlea bideratzeko eginda

dagoz, ez da zehatz emoten erantzun osoa, halan, irakurleak bere interpretazioa emoteko aukerea izango dau.

Liburua irakurri ostean, eta ariketak egiten ahalegindu ostean, Mikel Zaratek erakusten dauzan ardureak zeintzuk ziran ondo ulertuko dau irakurleak.

Unidade didaktiko honegaz Mikelek idatzitako lan hau hobeto ulertu daiten lortu gura da. Ariketak ez dira gatxak, Mikelen liburua bera be irakurteko gatxa ez dan moduan. Printzipioz, DBH eta Batxilerra ikasten dagozan ikasleentzat pentsauta dagoz, baina lexikoa ondo lantzen danez, EGArako prestetan dabilenak be egin leiz ariketok. Dana dala, edizinoa osorik agertzen danez, herriko jentearentzat be, aukera aproposa da liburua irakurteko, besterik ez bada be.

### Bibliografia

- AGIRRE, J.M., *Euskal Gramatika Deskriptiboa I-II*. Bilbo: Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Foru Aldundia, 1991.
- AREJITA, A; ETXEBARRIA, J.M.; IRAZOLA, J.M.; URIARTE, J., *Bizkaieraren idaztarauak*. Gasteiz: Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioa. Hezkuntza, Unibertsidade eta Ikerketa Saila, 1985.
- ARRASATE, M., *Euskal Deklinabidea*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1991.
- *Atzizkibidea*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1986.
- ASKOREN ARTEAN, *Idatz eta Mintz. Literatur atalen sorta, 20*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1990.
- ASKOREN ARTEAN, *Euskal Alegigintza*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1991.
- ASKOREN ARTEAN, *Hamaika abere ipuin. Bizkaiko herri-alegiak*. Bilbo: Labayru Ikastegia eta Ikastolen Elkartea, 1997.
- GARATE, G., *Atsotitzak*. Bilbo: Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 1998.
- KORTAZAR, Jon, *Mikel Zarateren Prosa*. Bilbo: Euskaltzaindia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1981.
- ZABALA, Juan Mateo, *Fábulas en dialecto vizcaíno*. Bilbo: Euskal Editoreen Elkartea, 1986.
- ZARATE, Mikel, *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1986.



"La feinte est un pays plein de  
terres desertes: Tous les yours nos  
auteurs y font des descubertes.»

(La Fontaine)

Ipuin antzeko alegi mingotson bultzalari eta gidari izan dodan  
*Lauaxeta*-ri, nire irakasleari.

Zidar zuriaren  
bide barriak  
arrats beheraren  
urre gorriak.

Lehenaren garrak  
barruan leher:  
barritu zaharrak,  
barriak eder.

Eder, barri, zahar,  
nire atsegin;  
zure urre-zidar  
beti nirekin.

Odolezko lainoz  
hildako arrats  
egunsentiko poz  
bizi aberats.





## SARRERA

Berrogei urteren bueltan eta berrogei egunean egin ditut ipuin antzeko berrogei alegia mozorrotu mingotsok: bizitzarik erdia (egia balitz!) egin ondoren egin ditut, alegilari ospetsuen antzera, alegilari ospetsua izan ez arren.

Berrogei urtetik gora izan zituen, izan be, munduko alegilaririk gehienak, euren alegiak biribildu ebezanean, bizitzako liburua irakurri eta gero.

'Zer ikusi, ha ikasi', bizitza da libururik onena ikasteko eta irakasteko, gazteak inoiz be irakurri ezin izango daben liburu sakona eta azala, astuna eta arina, negargarria eta pozgarria, iluna eta argia, guzurrezkoa eta egiazkoa. Bizitza bera, bizitzako libururik ikusgarriena eta ikasgarriena.

Bizitzaren ondorena dira, ba, alegiak; zuzenbidearen gurariak sorturik ondorena, literatura bidez azaldutako bizitzaren ondorena. Eta mingots samarrak izaten dira gehienetan alegiak, garagardoaren antzera. Baina, mingots samarrak izan arren, gustura hartzen doguz, garagardoaren antzera.

Karatulaz jantzirik agertu ditue, gainera, euren alegiak alegilaririk gehienak. Eta abereak, lorak, grinak, ezizenak eta holakoak hartu ditue mozorrotzat. Hain zuzen be, lehenagoko Aratusteetan jazoten zan lez, egirik handienak karatulaz esaten dira, arpegia estaltzean barrua hobeto agertzen dalako. Beste alde batetik, egiaren gogortasuna eta mingostasuna arindu eta gozotu egiten dira irudi eta alegoriaren bitartez, eta irakurlea literatura ederraren lorategiratu egiten da, hitz lauzko eta hitz neurtuzko olerki munduratu.

Bildurrak eraginda be mozorrotzen dira batzuetan alegiak, erromatarren alegilari ospetsua izan zan Fedrok egin ebazan antzera.

"...servitus obnoxia

Quia quae volebat non audebat dicere  
Affectus proprios in fabellas transtulit."

Nire alegiok be mingots samarrak dira, gaurko idazgiro mingotsa lakoak, eta handientzako eginak, ez umeentzako. Garagardoturik dagoz, zuzentasun gose-egarriak sortutako mingostasuna darioe, zorion-irritsak biziturik mingostasuna, paradisu-amesak irudimenean handiagotutakoa. Alegilari ospetsuenak baino mingots samarra-goak izango dira horrexegaitik, beharbada.

Nire alegiok be irudi-estalkiz jantzirik agertzen dira. Baina alegilari ospetsuenak baino arpegi-ordeko nabarmenagoak hartu ditut

batzuetan, gaurko idazgiro nabarmenari dagokionez; beste batzuetan, bardinak.

Irudi-hizkuntzaz dotoretu nahi izan ditut, egia adierazteko bide zuzen bat dala uste dodalako, bide zuzen zahar baztertua, herri-herriarena.

Umeena, olerkariena eta zoroena bakarrik ez da irudi-hizkuntza. Giza-izateari berari dagokiona da, izakien izatearen izatetasuna adierazteko eta ezagutzeko bide jator zoragarri bat, errazoibidea (hizkuntza analitikoa) baino aurreragokoa, eta sakonagoa eta zabalagoa.

Irudimenak sorturiko hizkuntza da irudi-hizkuntza hori. Eta osotasun batean eta betean ikusten da mundua irudimenaz, eta ideen bidez ikusi ezin dana be ikusi egiten da. *"Tener imaginación es ver el mundo en su totalidad, porque la misión y el poder de las imágenes es hacer ver todo cuanto permanece refractario al concepto. De aquí procede el que la desgracia y la ruina del hombre que 'carece de imaginación' sea el hallarse cortado de la realidad profunda de la vida y de su propia alma."* (Mircea Eliade, *Imágenes y símbolos*, Madrid, 1955, 20. or.).

Irudi-hizkuntza irudimenaren irudipena da, ba, eta sorgin-hizkuntza dirudi. Irudimen jori ugaridunak oso ondo ulertuko dau eta sorginkiro liluratuko da, eta edermindu eta poztu. Irudimen antzudun gizajo tristeak, ostera, ez dau ezer ulertuko eta 'egia, egi, ogia, ogi, ardaa, arda, bi ta bi, lau' esango dau, eta moralejarik ez dau sortuko bere irudimenean. Hain zuzen be, kontu antzera, olerki antzera, hitz lauz eta hitz neurtuz, moralejarik gabe idatzi ditut alegiok, irudimendun irakurleak berak jarri dagizan nahi dituanak.

Alegiok egitean, hutsune bat bete gura izan dot. Izan be, hutsik hau, hutsik hori, hutsik ha..., hutsunea hemen, hutsunea hor, hutsunea han..., zenbat hutsune gure literaturan! Alegi-hutsunea bete nahi izan dot nik.

Egia esan, egon dira gure artean be alegilari batzuk: Mogel Juan Antonio, Mogel Bizenta, Iturriaga Agustín, Zabala Juan Mateo, Uriarte Juan Antonio, Arrese ta Beitia Felipe, *Lauaxeta*... Gitxi, eta beste herri batzuetako literaturetan agertzen diranen parean urriak, zoritxarrez.

Gehitu egin gura izan ditut, ba, euskal alegiak; bete pixka bat hutsunea besteen antzera, besteen bidetik, gure izatez, gure hizkeraz, gure irudiz, gure munduz,... bete hutsune bat, munduko alegilaririk ospetsuenak jarraibidetzat harturik eta zerbait euskertuz, zerbait sortuz, dana euskaldunduz.


Lehenaren bideak hartu eta oraingo aurrera bideetatik geroko bideetara zuzentzeko asmotan egin ditut, euskeraren hizketabideak, hizketalegeak eta hizketa gogoan ditudalarik.

'Dagoanean dagoantxoa, ene enetxoa!' eta aurrera. Mingostasunez edo gozotasunez, aurrera jo behar dogu beti. Ekin eta jarrai, asmoz eta jakitez.

'Hasiak egina dirudi, eginak urregorri'.



## BESTELAN ONDO BAINA... EZ?



*Turroi bihurturik  
harri eta galipot,  
tarteko bedarra  
laztanki maite dot.*

*Berebil burpila  
gainetik zarrastan,  
bideko bedarra  
gitxik dabe laztan.*

Zahar eginda dago bedar gaztea bide erdian, zahartuta eta sartuta harri artean. Baina bizirik. Guztiz mindurik eta erdi horiturik dago. Baina bizirik. Aieneka dabil aspaldion, aieneka geratu barik. Negar malko baltz bat dauka dingilizka dardar begi baten...

Berebil handi bat jatorko ondora, berebil indartsu eta osasuntsu bat, gazte eta mardo.

Eta ahaldunen irribarre nasai zabal bat egiten dau harek bedar gaixoagana hurreratzean.

Eguzkia be irribarreka dago udabarriko zeru urdinean, eta erluzetan diz-diz jartzen dau berebilaren lepo leuna.

- Kaixo, bedar!
- Agur, Auto Jauna!
- Eguraldi zoragarria, e?
- Bai, ederra benetan!
- Eta...?
- Ba...!
- Zer, ba?
- Ai!
- Zer?
- Min. Ai, ene!
- Baina...
- Badakizu.
- Jakin zer?

—Ba..., gose naz; egarri naz..., eta janaririk ez, edaririk ez, dirurik be ez, eta, gainera, ezin joan inora, basamortu lakar honetan egon behar, bakar-bakarrik. Ai!

—Baina...

—Ikusten nozunez, bakardade ikaragarri honetan bizi naz, bizi edo... Hementxe nago seniderik eta adiskiderik gabe; txoririk, erlerik, pinpilinpauxarik gabe... Harriak eta galipotak estutu egiten nabe, eta lehortu. Jo abazuzak be noizik behin. Zuok autook be zapaldu egiten nozue zuen burpilpetan... Eta txilindroiak? Ai, alper-harri handi bildurgarria, zapaltzaile izugarria! Ha etorri daitenean...

—Bestelan ondo baina..., ez?

—Bai, Auto Jauna! Bestelan oso ondo...

*Bestelan oso ondo  
bedar erdi hila.  
Badoa, badoa,  
bizkor, berebila...*

*Bedar hori-berde,  
bideko bedar on:  
Bizi gurearen  
bultzakada sakon!*

*Alegi zaharraren  
alegi, zu, bedar;  
gure herri zaitut,  
gure herri zahar.*

*Zuk emon deustazu  
indar eta adore;  
zugaitik bihurtu  
nire luma lore.*

*Lorè nire luma,  
bihotzean samin;  
harrizko bidea  
lorez bete ezin.*

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Zein da berba honeen sinonimoa?

Zarrasta	A
Laztan	B
Hori	C
Ahaldun	D
Mardo	E
Nasai	F
Hurreratu	G
Lakar	H
Lehortu	I
Abazuza	J


1	Latz
2	Urradura
3	Kazkabarra
4	Sikatu
5	Gerturatu
6	Gordin
7	Boteretsu
8	Laru
9	Lasai
10	Maite

2. Atera eizuz testutik atzizkidun berbak: -ki, -ka, -tsu, -dade, -garri, -kada. Zertarako erabilten dira atzizki horreek?

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegia honetako gai nagusia?
2. Deskribidu eizuz alegian agertzen diran pertsonaia honeek: Berebila, Bedarra.
3. Hasierako eta amaierako bertsoek ze funtzino beteten dabe alegian? Zelan interpretetan dozu?
4. Alegia kontrastez beterik dago, aitatu esanguratsuenak, eta komentau eizuz.
5. Ironia be igarri-igarrian dago. Non ikusten dozu?
6. Zelan ulertzen dozu "Bestelan ondo baina... ez?" esaldia?
7. Zer adierazoten deutsu alegiak? Emon zure eretxi kritikoa.





—Eiii! Erranbidek bikiak izan ditu..., bikiak izan ditu. Gaur goizean izan ditu..., ditu. Eta siamesak, soinkideak..., soinkideak. Eeee! Erranbideren etxean bikotxak jαιο dira, bikotxak eta soinkideak..., soinkideak. Txiu, txiu, txiu! Biki siamesak euki ditu Erranbideren emazteak..., emazteak. Bai, bai, gaur goizean izan da, eta oso ondo dagoz..., oso ondo dagoz. Brrra, brrra, brrra! Kurrra, kurrra, kurrra! Entzun, entzun! Biz, biz, biz! Potx, potx, potx! Hau barri pozgarria! Hau poz barria! Biki soinkideak izan ditu gaur goizean Erranbidek..., Erranbidek. Zoragarriak dira..., dira. Txitxi, txitxi, txitxi! Kutx, kutx, kutx! Biki soinkideak..., biki soinkideak. Erranbidek..., Erranbidek. Gaur jaiegun..., jaiegun. Ospatu dagigun..., dagigun. Eiii...!

Barri zabaltzailearen deiak eta deiadarrak, arbolarik arbola ibili ondoren, oihartzundu egin

ziran trokarteko haitzetan eta deiez eta deiadarrez bete zan Ekidazu guztia. Eta izadiaren orfeoi nabarmena Erranbideren bikien jaiotza ospatzen hasi zan mila abesti bateratsu kantatuz eguzkiaren zuzendaritzapean.

Txori txirripititxiolarien bibolinen soinu koloretsuak zibuka ebilzan abesti artean. Txirritxirrien kirkir eguzkitsu etengabeak baretu egiten eban erreka atso zahartuen txutxutxu zurrumurrutsua. Ugaraixoen gitarrara zahar gozakaitzek lakartu egiten eben haizearen txistu eztitsua...

Jazoera ospagarria izan zan, izan be, Erranbideren biki soinkideen jaiotza!

Erranbideren etxean bertan be bazan kantu eta algararik ugari. Telebisinokoak, irratikoak eta periodistak be hantxe egozan, orain hemen, gero han, geldi egon ezinik, dana jakin gurarik, dana hartu nahirik.

—Lehenengo jaio danari *Hitzjario* esango deusagu, eta *Hitzeder*, bigarren jaio danari —esan eban pozaren pozez Erranbidek.

—Ez. Ez horixe! —erantzun eutsan emazteak berehalaxe.

—Ez?

—Ez!

—Zer, ba? —samurkiro eta laztankiro Erranbidek.

—Izen itsusiak diralako.

—Politak dirala uste dot, ba, nik.

—Zera dira politikak!

—Zeintzuk ipiniko deutseguz orduan?

—Lehenengo jaio danari *Mintz* jarriko deusagu, eta *Idatz*, bigarren jaio danari.

—Biak bat izanik, *Mintzidatz* deitzea ez ete litzake hoba? —esan eban albotik apal-apal periodista gazte batek.

—Ez. Horrela izatekotan be, hoba *Idazmintz*, politagoa da eta, eta gozoagoa belarrirako. Baina ez, ez... Bat dira baina, bi be badira, eta *Mintz* eta *Idatz* esango deutsegu, *Mintz* jaio da eta lehenengo. Edo *Idatz* eta *Mintz*, bestelan, bata zein bestea jaio lehenengo bardin da eta. *Idatz* eta *Mintz*...? Bai, politago honela, politago, bai. *Idatz* eta *Mintz* esango deutsegu. Esateko be errazago: *Idatz* eta *Mintz*. Ez dozue uste?

—Bai —erantzun eben Erranbidek eta telebisinokoek eta irratikoek eta periodistek.

Eta esan eta izan, horrela izan zan: Erranbideren biki siamesak *Idatz* eta *Mintz* izan ziran.

Eta egunak joan eta egunak etorri, titia edan eta titia edan, urteak joan eta urteak

etorri, edan eta jan, jan eta edan, handi egin ziran.

*Idatz* baino handiagoa eta zabalagoa zan *Mintz*, eta bizkorragoa be bai oinez ibilten. Zabar samarra bai baina, oso argia, alaia eta herrikoia zan *Mintz*. *Idatz*, ostera, serioagoa zan, eta oso neurtua eta zehatza.

Irudimen onekoa eta ateralditsua zan *Mintz*, eta behingo baten ikasten zituan etxe-ko, auzoko, herriko..., *Ekidazu* osoko esakerak, ipuinak, errefraua, kantu zaharrak eta abar. Ha jaiotean Erranbidek esan ebanez, *hitz-jario* bat zan, bertsolari jator bat.

Adimen onekoa zan, ostera, *Idatz*, eta jakintsu argia eta sakona, eta *Mintzen* berezko jakituria batu, mehaztu, zuzendu eta edertu egiten eban, eta idatzi. Olerkaria zan *Idatz*.

*Berezko*, *Praktiku* eta *Konkretu* esaten eutsen herritarrek ezizenez *Mintzi*. Eta *Idatzi*: *Abstraktu*, *Logiku* eta *Teoriku*.

Ezbardinak izan arren, ondo konpontzen ziran biak, bata besteari lagunduz. Bi izanik, bat zirudien.

Pozik egoan Erranbide bere bikotx soinkideen nahietanahiezko alkartasuna anaitasunezko eta gogozko alkartasun bihurtu zala ikusirik. Eta maiz gogoratzen eban hareek jaiotean emaginak esandakoa:

—Haserre edo adiskide, soinkideok soinkide. Ez ahaztu, Erranbide, esakera zahar hau. Eta beste barri hau be ez: *Idatz* eta *Mintz* batean bi, luzaro ezin banan bizi. Hain zuzen be, alkar-turik, beti alkar-turik bizi izateko jaiok dira. Baina begira: hoba izango dala askatasuna

bientzako eta, soinkideok banatzea gura izango dozue, beharbada, bihar-etzi, al bait arinen banatzea. Ez egin horrelakorik, Jainkoarren! Geldi, mesedez, Erranbide. Ez banatu sekula soinkideok. Ez. Izan be, bizi izango badira, alkarregaz bizi beharra izango dabe, bat eginik bizi beharra. Ez banatu, ba, inoz be, Idatz eta Mintz. Entzun? Nik esanetik ez dozu hau, bada- kit badakizuna eta. Baina, halanda guztiz be, badaezpadan..., ahaztu ez dakizun dinotsut, kar- gutu zaitzezan. Nahiz eta handiago hazi Mintz, nahiz eta haserratu Idatz, ez banatu, ba. Bion hondamendia letorke bestelan, bion hondamen- dia eta zeuon hondamendia be bai. Kontuz, Erranbide! Zuhur ibili, eta gogotan hartu esan deutsudana. Ez egin jaramonik sasi-jakitunen esanari. Zaharren esakerak, guztiak jazoerak.

Pozik egoan Erranbide bere soinkideakaz. Eta egotekoa zan. Baina, halan be, zirikatu egi- ten eben bere adiskideek; zirikatu, Idatz eta Mintz banatzeko eskatuz, behin eta barrero.

—Inoz be ez banatzeko esan eustan emagi- nak —erantzuten eutsen Erranbidek.

—Emaginak? Zer ekian, ba, harek, atso zahar harek? Sasi-medikuen zerak, besterik ez. Hara, Erranbide: Uriburuko osagile jakintsuek esan deuskue. Bai. Sarri askotan esan deuskue: kalte- garri jakela Idatzi eta Mintzi beti alkarregaz ibili behar hori, eta kaltegarri jatzula zeuri be. Hobeto ibiliko litzatekezala banan...

—Ez dot uste.

—Baietz, ba, Erranbide. Mintzen berezkota- sun etorritsua ito ainean darabil Idatzek. Eta oso tamalgarria da hori. Beste alde batetik,

Idatzen zehaztasun jakintsu eta apaina nahas- te-borrastetu egiten dau Mintzek.

—Hori bai baina...

—Banatu eta askatu egin behar dozuz. Eta hainbat lasterren egin be, bakoxta bakoxtago izan daiten, bakoxtaren nortasuna sendoagotu daiten... Zer dinozu?

—Ez dakit, ba...

—Ezbaian zagoz?

—Bai. Zuok dinozuen egia izango da baina, emaginak esana be...

—Egiak bide bat baino ez dau, Erranbide. Ez al zaitugu adiskide?

—Bai, bai. Adiskide bai baina, bildur naz.

—Bildur? Ez zaitetz kokoloa izan. Uriburun dago etxe bat soinkideak banatzeko. Beren- beregi horretarakoxe egina. Eroan hara Idatz eta Mintz. Eroan, eta behingo baten banatuko deutsuez han hango banatzaile entzutetsuek. Goazen, Erranbide. Ez zaitetz bildurtu. Ikusiko dozu zelan poztuko zaran gero. Goazen. Baza- toz...?

—Joan joango nintzateke baina...

—Bai ala ez?

—Eta gero...

—Gero, hotz ez dana, bero. Ia, goazen arin.

Ekin eta ekin, ekina okerra da eta, azkenean baietza emon eutsen Erranbidek beronen adis- kide tematiei. Eta esan eta egin, Uriburuko banatzaile ospetsuengana eroan zituan Erran- bidek Idatz eta Mintz. Adiskideen auto eder zuri baten eroan zituan.

Besarka eta mosuka, ezezka eta aieneka joan ziran Idatz eta Mintz, mozkorti bi lez,

zoro bi bezala, gaixo biren antzera. Ez eben banatzerik nahi, ezergaitik be ez.

Erranbide berak be ez eban nahi hareek banatzerik baina..., ez eban nahi baina, adiski-deen bultzakada eta aupada eta ekinek zora-biotu egin eben gizajoa.

Iluntzea zan Idatz eta Mintz banatzaileen-gana heldu ziranean, iluntze larria. Kalerik kale eta etxerik etxe, arineketan etorren gau bal-tza. Eta berehalaxe sabeleratu eban Uriburu. Bere sabel erdimintsura sartu eban gau bal-tzak Uriburu, hurrengo goizeko egunsenti argi-tan barrero jaio eiten.

Indizino bana emon eutsen lehenengo, nahietanahiez, Idatzi eta Mintzi, indizino min-garri bana. Eta derrigorrezko lotara joan ziran berehalaxe.

Ameseta asko egin eban Mintzek: "Bakarrik egoan gela argitsu baten. Eta gela argitsu izan arren, ez eban ia ezer ikusten. Itsutu egin ete zan, ba? Ez ekian non egoan... Banatzaile mordo bat agertu zan bere aurrean, mozorroz jantzirik eta kutxiloakaz. Kutxiloakaz? Aizko-ra batzuk be baegozan han, eta behi zahar bi murrusaka, eta okela zatiak eskegita odoletan, telebisinoko anuntzio baten agertzen ziran okela zatiak... Haragitegiren baten ete egoan, ba? Nonbaitera joan gura eban, handik iges egin, alde banatzaile doilor hareengandik... Ahal izan baleu bai baina, ezin, ezetara be ezin. Ezin ikusi, ezin ibili, ezin arnasarik hartu... Ha zan estuaren estua eta larriaren larria! Eta banatzaileak beragana etorkozan, beragana ganorabako sinuak eginez, beragana zuzen eta

barre algaraka, eskuetan kutxiloak zitularik, beragana... Belarriak eta surra moztu egin eutsezan... ("Artipau", esan eban lehenengo banatzaileak). Bihotza eta begiak atera... ("Alaba, alabea, alabe, alabi, alabia", esan eban bigarren banatzaileak, eta "txakurrei, txakurrai, txakurrei, txakurrari, txakurrer", hirugarrenak). Hankak txikitu, eskuak ebagi... ("Noa Bilbora, aitari ikustsat Bilbon...", esan eban laugarren banatzaileak). Zati-zati egin eben azkenean... ("Nork josiko ditu zatiok?", itandu eben beste banatzaileek). Zati-zati eginda egon arren, bizirik egoan, ostera, bizirik. Bizirik? Norena zan, orduan, han kirotanoaren gainean luze egoan gorpua? Berea zan, berea bai. Berea? Zelan baina? Gorpua osorik egoan eta bera zati-zati eginda, gorpua gorpu eta bera bizirik. Bizirik, bai, ziur. Nor zan, ba, kirotanoaren gainean egoana? Idatz? Ez, Idatz ez. Ala bai?, Ez, bera zan. Eta Idatz? Ez egoan beragaz... Non ete egoan? Nogaz? Zelan? Bizirik ala hilda? Hilerrian? Ene! Bera be Ekidazuko hilerrian egoan orain, banatzaileak gabe, hautsez beterik, hotzakilik, lotan...".

Goizaldera arte egin eben lo Idatzek eta Mintzek, eta banaturik egozan izartu ziranean, eta oso ondo, antza.

Telebisinokoak, irratikoak eta periodistak be hantxe egozan, euren ondoan, zain.

Euria zan kanpoan, zarra-zarra, eta oso ilun eta hotz egoan. Neguko goizaldea.

—Zorionak, Erranbide, zorionak!!!

—Eskerrik asko, mila esker, esker mila! Esker mila, mila esker, eskerrrik asko...! —eran-

tzun eutsen Erranbidek banatzaileei, adiskideei, telebisinokoei, irratikoei, periodistei eta Idatzi eta Mintzi, pozaren pozez.

Emagina etorri jakon burura bat-batean Erranbideri, emagina eta behinola emaginak esandakoa.

—Ba! Jakina. Emaginaren jakituria eta esanak eta ahuntzaren gauerdiko eztula, bardin samarrak. Jakina. Eta hainbeste urtetan euki ditut loturik Idatz eta Mintz..., atso zahar bategaitik!— esan eban bere artean, irribarre gozatsuz.

Idatzen eta Mintzen banatze hori zala-ta, ba, pozik egozan danak... Danak? Urduri egozan, izan be, banatzaile batzuk. Isilik, baina urduri, artega. Zegaitik? Idatz zurbildu egin zalako. Gerizpetako lora bat zirudian, margul-margul.

Erranbide bera be konturatu zan.

—Zer? —itandu eutsen banatzaileei.

—Ez, ez da ezer. Egon nasai, Erranbide.

Mintz be ubeldu, berdoztu, morantzatu egin zan.

—Zer? —itandu eutsen Erranbidek barriro be banatzaileei, bera be apur bat urdurituz.

—Ez, ez da ezer, ez da ezer. Zagoz trankil —erantzun eutsien hareek barriz be.

Zerbait bazan, arnasa barik gelditu zan gerotxoago Idatz eta. Mintz be bai.

Hara eta hona, ezinegenez, estu eta larri ebilzan banatzaileak. Hara eta hona, arineke-

tan, izerditan, eztitan ebilzan telebisinokoak, irratikoak, periodistak.

—Ez da ezer, ez da ezer, Erranbide. Ikusiko dozu —esaten eutsien adiskideek Erranbideri.

Arnasa artifizialki hartzen jarri ebezan Idatz eta Mintz, eta indizinoz bete, eta igortziz, eta...

—Banatu dozuezalako izango ete da? —galdetu eutsan Erranbidek banatzaile bati.

—Bai zera! Ez, ez, ez.

Geroago eta zurbilago egin zan Idatz, eta gogortu. Geroago eta ubelago, ostera, Mintz; ubelago eta bigunago.

Eginahalak egin ebezan banatzaileek Idatzek eta Mintzek bizirik iraun eien baina, alperreko ahaleginak izan ziran.

Egunak joan eta egunak etorri, urteak joan eta urteak etorri, Idatz momia bihurtu zan, eta Mintz usteldu eta desegin.

Lurperatu egin eben Mintz Ekidazuko hilerrian. Idatz, ostera, museo batera eroan eben, eta hango bitrina eder baten sartu. Eta Erranbideren adiskideek haxe idatzi eben bitrinaren barrenean urrezko letraz:

## "IZANAREN IZANGOKOAREN IZANA"

Erranbide mututu egin zan, eta gaixotu, eta hil handik lasterrera.

Izadiaren orfeoi nabarmena be mututu egin zan.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Irakurri bikote honeek, eta esan sinonimoak ala antonimoak diran: Troka/lautada, izadi/gizarte, algara/astrapala, zabar/alper, herrikoi/herritar, mehaztu/ugaldu, anaitasun/itxikeria zirikatu/axaxatu, tamalgarri/mingarri, xehaztasun/zehetasun, apain/dotore, sendoagotu/indartu, temati/burugogor, doilor/jator, hotzakilik/izertzan, zarra-zarra/eskas, margul/zurbil, mututu/mintzatu.
2. Mikel Zarateren hizkerea oso aberatsa da, eta hori alegia honetan ikusi daikegu. Gauza bat esateko antzeko berbak erabilten dauz irakurleari beharra errazteko. Atera eizuz testutik berba bardintsuak.
3. Aztertu eizuz alegiatik atera doguzan esaldiak. Zer esan gura dabe?
  - Haserre edo adiskide, soinkideok soinkide.
  - Zaharren esaerak, guztiak jazoerak.
  - Gero, hotz ez dana, bero.
  - Emaginaren jakituria eta esanak eta ahuntzaren gauerdiko eztula, bardin samarrak.
  - Geroago eta zurbilago egin zan Idatz, eta gogortu. Geroago eta ubelago, ostera, Mintz; ubelago eta bigunago.
  - Lurperatu egin eben Mintz Ekidazuko hilerrian. Idatz, ostera, museo batera eroan eben, eta hango bitrina eder baten sartu.
4. Irakurri eizuz zatitxo honeek. Zer komentauko zeunke hemen? Zelan tratetan dau Mikelek izadia?

“Barri zabaltzailearen deiak eta deiadarrak arbolarik arbola ibili ondoren, oihartzundu egin ziran trokarteko haitzetan eta deiez eta deiadarrez bete zan Ekidazu guztia. Eta izadiaren orfeoi nabarmena Erranbideren bikien jaiotza ospatzen hasi zan mila abesti bateratsu kantatuz eguzkiaren zuzendaritzapean”.

“Iluntzea zan Idatz eta Mintz banatzaileengana heldu ziranean, iluntze larria. Kalerik kale eta etxerik etxe, arineketan etorren gau baltza. Eta berehalaxe sabeleratu eban Uriburu. Bere sabel erdimintzura sartu eban gau baltzak Uriburu, hurrengo goizeko egunsenti argitan barrero jaiotzen eiten.”
5. Eta zer komentauko zeunke hurrengo esaldi honetan?

“... joan ziran Idatz eta Mintz, mozkorti bi lez, zoro bi bezala, gaixo biren antzera”.

6. Eta beste honetan? Zer irudikatzen da Idatz eta Mintz banatzean?

"... Belarriak eta surra moztu egin eutsiezan... ("Artipau", esan eban lehenengo banatzaileak). Bihotza eta begiak atera... ("Alaba, alabea, alabe, alabi, alabia", esan eban bigarren banatzaileak, eta "txakurrei, txakurrai, txakurrei, txakurrari, txakurrer", hirugarrenak). Hankak txikitu, eskuak ebagi... ("Noa Bilbora, aitari ikustsat Bilbon...", esan eban laugarren banatzaileak). Zati-zati egin eben azkenean... ("Nork josiko ditu zatiok?", itandu eben beste banatzaileek)."

7. Ipin eizuz aditz honeek batuaz: Ospatu dagigun, ebilzan, erantzun eutsan, esango deusagu, esan deuskue, jake, banatuko deusuez, egoan.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da gaia? Zer irudikatzen dabe Idatzek eta Mintzek?
2. Kontaizu lerro gitxitan zein dan alegiaren argudioa.
3. Atera eizuz testuan agertzen diran personaiak. Zeintzuk dira personaia nagusiak? Deskribidu eizuz.
4. Komentau eizu personaien jokaerea.
5. Nora doa Erranbide Ekidazutik Idatz eta Mintz banatzeko? Zer irudikatzen da horregaz?

## ARRASTAKA



Haitz punta bateko gaztelu ederrean eguzkia diz-diz. Gazteluaren ate aurrean Arrano jauna, eguzkia hartuz bere erreinuari begira.

Halakoren baten, Marraskulu, bere erreinuko behekaldeko zerbitzari bat heltzen jako narraz, astiro-astiro eta makur-makur, bere atzaparpetara.

—Marraskulu! —deitzen deutso Arrano jaunak.

—Hona hemen zure zerbitzaria, Arrano jauna, jaunen jauna! —erantzuten deutso Marraskuluk, bere adartxo biak dardar ditualarik.

—Baina zelan heldu zara, ba, zu honaino?

—Arrastaka.



## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. "Bere erreinuari begira" dino alegiak. Zelan esango zeunke zeri *begira* beste modu batera? Zer esan gura dau *zure begira ego-teak*?
2. Narraz, arrastaka... ezagutzen dozu sinonimo gehiago?

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren gai nagusia?
2. Zeren sinboloa da Arrano jauna? Personaia boteretsua da, ala txiroa?
3. Zeren sinboloa da Marraskulu?
4. Goikaldea eta behekaldea bereizten dauz idazleak hemen. Zein da oposizio honen alderik garrantzitsuenak?
5. "Bere adartxo biak dar-dar ditualarik" dino honetan. Zer adierazoten dau?
6. Zein da alegiaren moraleja edo irakatsia?

## ESKOIKALE, EZKERKALE ETA ERDIKALE



Ha be bazan izatekoa: alkarregaz egon behar beti, alkarregaz ibili behar beti, eta alkar ikusi ezin! Neu nagusi edo musturrak hausi, adiskidetasuna gorrotoz jantzi.

—Zorri hil biztua baino pizti txarragorik ez dago. Eta horixe baino besterik ez da Eskoikale, harropuztu hori! Horixe: zorri hil biztua, edo zorri hil bizturen baten semea, edo lobeia, edo ilobeia; bardin da. Horrexegaitik esaten dau beti horrek: gure asabak, gure ugazabak, gure abizenak, gure hizkuntza zaharra, gure lehenagoko lehenagotasun zoragarri gogoangarria, gure... Aspergarri egiten jat horren jarduna, atzelarien jarduna. Ibili be atzera begira ibiltan da hori, eta kontuz, astiro-astiro, labankadarik egin ez dagian, jausi ez daiten... Pikutara joan daitela bere jauntxokeria, handikeria, jakituria, harrokeria, bere usain gozoal! Ala hortik! Erdikale joan daitela horregaz,

Erdikale urardotua, Erdikale bildurtti zentzunduna, Erdikale ipurdimunlari jatorra..., kaka, horixe! Ala hortik biok haizea hartzera! —esaten eban Ezkerkale ausartiak.

—Azeak berea dau kirtena, kaleak ez dau izan behar urtena. Eta Ezkerkale urtenegia da, ausartiegia. Ez dau lotsarik ezertarako, zikin ganorabako horrek! Apurtu eta apurtu aurrera eta aurrera..., eta zer? Ezer be ez; etxe zaharra desegin eta barririk egin ez, txabolarik be ez. Ezer be ez; inguru guztiak nahaste-borrastetu eta baketan dagoanari baketan itxi ez. Alperkeriaren alperkeriak sortutako ezinegonaren ezinegona! Horixe baino besterik ez da hori. Nora joango zara, ba, horrelakoakaz? Zoroetxeren batera edo presondegiren batera, haraxe. Eta Erdikalegaz? Inora be ez gizajo horregaz. Dana dala, Ezkerkale zantar horregaz baino nahiago dot

honegaz ibili... —esaten eban Eskoikale jakitunak.

—Adiskidea, nola zara? Zu bezala ni be halan. Ertzera joan gura dabe Eskoikalek eta Erdikalek? Joan daitezala, bazterzaleok halakook! Neu be geroago eta erdirago jarriko naz, eta kitu! Baina hainbeste zirriparra zertarako? Zer uste dabe, ba? Ba al dago erdiko bidea baino bide seguruagorik? Biderdian gelditzea ala erdibidetik heltzea, zein ete da hoba? Erdibidetik heltzea, jakina. Etorriko dira, lehentxoago edo gerotxoago, niganantz. Horixe bai. Eta adiskidetu nahirik etorriko dira etorri be. Ziur! Bestelan... —esaten eban Erdikale apalak.

Eskoikale, Ezkerkale eta Erdikaleren alkar ikusi ezina zala eta ez zala, kantu barregarriak kantatzen eutseezan horreei Kaleuriko beste hamar kaleek, leihorik ate eta aterik leiho.

*Hiru, hiru, hiru  
eta lau hamahiru.  
Eskoikale,  
Ezkerkale,  
Erdikale,  
beti alkarregaz bizi  
eta ezin alkar ikusi.*

*Eskoikale ahaldun  
beti bakezale  
bera dan arte  
jauntxo eta jabe.*

*Ezkerkale behartsu  
ezinegon hutsa,*

*buruan bihotza  
eta aurrerakuntza.*

*Erdikale erdiko,  
ez jan eta ez lan,  
inoren menpean  
bien bitartean.*

Kantu honeek entzuten ebezanean, mindu egiten ziran hiru kale haserratuok. Baina, halanda guztiz be, ez ziran adiskidetzen. Bai zera!

Behin baten, udazkeneko jaiegun eder baten, eguzkia hartzen egozan hirurak alkarren ondoan, beti lez.

Arlanduz, marmolez, pinoteaz eta eskudoz jantzirik egoan Eskoikale. Adriluz, lurrez, karez eta grafitoz, Ezkerkale. Eta zementoz, plastikoz, dendaz eta anuntzioz Erdikale.

Zahar samarra bai baina, handia eta indartsua zan Eskoikale, eta jakintsua. Gazte zapazto bizkor odoltsua Ezkerkale, eta ameslaria. Lodikote txaparro bat Erdikale, eta trebea.

Hantxe egozan, geldi eta mutu, noizean behin azpitik alkarri destainaz begiratur. Halakoren baten, jakina, Ezkerkale ausartiak eten eban isiltasuna.

- Zelan, Eskoikale ospetsu hori?
- Zelan..., zer? —erantzun eutsan Eskoikalek gogo handi barik.
- Zelan zure gaixoa?
- Nire gaixoa?
- Gaixorik zagozala entzun dot.
- Gaixorik ni? Ez nekian gaixorik nengoanik.

—Bai, antza. Eta zureak laster egingo daua-  
la entzun dot.

—Entzun? Ala zeuk asmau?

—Egia bada, bardin da.

—Hasi zara, barriz be...

—Hasi ez, amaitu baino.

—Zagoz isilik, mesedez.

—Neu isilik, gainera? Ez horixe. Usain gozo  
eta pitxi eder eta guzti be, gaixorik zagozala  
esan deuste, eta...

—Zeu bai zu, zeu gaixorik, zikin hori!

—Garbitu nagizu, zikin gogaikarria naz eta.  
Sendotu nagizu argal txatxar bat naz eta.  
Osatu nagizu, guztiahaldun horrek!

—Neu lohituko nintzateke zu garbitzean...

—Hori, hori! Bardintzerik ez dozu gura zuk,  
bakezale horrek! Ondo bizi danaren bake san-  
tu zorientzua gura dozu zuk, bakea erlijinoz,  
politikaz, kulturaz, hizkuntzaz... Zer zaitut zu  
be, bada? Neu lakoa, neu lakoa...

—Zeu lakoa? Zertan?

—Parkatu. Txarto esan dot. Ez naz zu lakoa.  
Zure azal fina ondo jandakoaren azala da; zure  
esaldiak harrian idaztekoak dira; zure...

—Isildu zakidaz.

—Besterik ezean, komunean bardin sama-  
rrak izango garala uste dot. Ezta?

—Ganorabakoakaz dabilena...

—Ganorabakotu. Badakit. Zuk zer dinozu,  
Erdikale?

—Nik ezer be ez. Ekin zeuek.

Barriz be, mututu egin ziran hiru kaleok.  
Baina ezinegonez egoan Eskoikale. Ez zan  
erraz urduritzen baina..., Ezkerkaleren ekinak

atera egin eban bere senetik. Eta ezin luzaro  
isilik egon. Ezin.

—Noren lepotik bizi izan zara zu orain arte,  
ba, Ezkerkale? Neure lepotik. Norgaitik zagoz  
zu bizirik, ba? Neugaitik.

—Zugaitik?

—Bai. Ez legoke Ezkerkalerik Eskoikalerik  
gabe. Eta Erdikalerik be ez.

—Ederto! Egia da hori, baina iruntzietara.  
Beste hau be egia da, baina eratarra. Entzun:  
Neugaitik, neugaitik zagoz zu, Eskoikale, bizi-  
rik; neure ahaleginakaitik, neure izerdiakaitik,  
neure aurrerapideakaitik. Neugaitik zara zu  
zarana. Ez legoke Eskoikalerik Ezkerkalerik  
gabe. Eta Erdikalerik be ez.

—Zuok baino lehenagokoak gara eskoikale-  
tarrok.

—Bai? Zergaitik? Ezkerkaletarrok bai baga-  
rala zuok baino askoz lehenagokoak.

—Nondik dakizu, ba?

—Eta zeuk nondik dakizu, ba?

—Badakidalako.

—Zer?

—Haxe!

—Zera dakizu zuk! Nik badakit ez dakidana,  
baina ez dakizunik be ez dakizu zuk.

—Pikutara zoaz hitz jokookaz.

—Zoaz zeu.

—Zeu, ni ez. Eta laster joan be.

—Zeu.

—Zeu.

Isilik egoan, bien bitartean, Erdikale. Baina  
bere lagunak eztabaidaka ikusirik, berotu egin  
zan ha be, azkenerako.

—Baina hainbeste eztabaida alperreko zertarako? Zuok biok norgaitik zagoze bizirik, ba? Norgaitik? Esan! Neugaitik, Erdikalegaitik —esan eutsen Erdikalek Eskoikale eta Ezkerkaleri.

—Zugaitik? —itandu eutsan harriturik eta urduri Eskoikalek.

—Ez horixe —trankil Ezkerkalek.

—Bai. Hara: Ni barik bat izango zinatekeze zuok biok. Eskoikale edo Ezkerkale izango zinatekeze, baina bat bakarrik.

—Ezkerkale ez —esan eban Eskoikalek.

—Eskoikale ez —esan eban Ezkerkalek.

—Parkatu. Barrero esango dot, eta ez haseratu. Begira: Ni barik bat izango zinatekeze zuok...

—Baina hori ez —Eskoikalek.

—Zu be ez —Ezkerkalek.

—Esaten noana esaten itxi egidazue, ba!

—Aurrera —Ezkerkalek.

—Bai —Eskoikalek.

—Ba, esan dodanez, bat izango zinatekeze zuok ni barik. Baina ni barik ezin izan zuok zeuek. Ezin izan Eskoikale edo Erdikale, Kale baino. Ikusi, ba, zelan beharrezkoa nozuen...

—Bai baina... —Eskoikalek.

—Berba egiten itxi egiozu, ba! —Ezkerkalek.

—Zertarako haserraturik egon? Hirurok gara preminazkoak bata bestearentzat. Zer dala-ta, ba, alkar ikusi ezinik ibili gu beti? Adiskidetu gaitazan. Eta eskoiratuz, ezkerretatuz, erdiratuz, edertu dagigun Kaleuri kalez, loraz eta abesti ederrez.

—Konforme nago ni —esan eutsan Ezkerkalek.

—Ni be bai —Eskoikalek.

—Gora Erdikale! —esan eban orduan bizturik oihuka Ezkerkalek.

—Gora! —erantzun eutsan Eskoikalek.

Txikitan ikasiriko abesti bat kantatzen hasi zan berehalaxe Erdikale.

*Bat eta bi eta hiru,  
hirurok ezbardin,  
lanean ari gara  
pozik alkarrekin.*

Eta Eskoikale, Ezkerkale eta Erdikale adiskidetu egin ziran. Eta pozaren pozez, biloztu egin ziran hirurak, eta biribilketa bat egiten hasi... Baina zorotzat hartu zituen (*streaking* egitea be galazota egoan, gainera), eta atxilotu eta zoroetxe batera sartu ebezan behingoan.

Hor dagoz orain nonbaiten erdi zoraturik.


## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Berba honeen sinonimoak emon: Asaba, zantar, ziur, mindu, destaina, gogaikarri, txatxar, lakoa, galazo.
2. Beste honeen esanahia topau edo zure berbakaz azaldu zer dan bakotxa: Jarduna, ezinegona, preminazkoa, biloztu.
3. *Alkar* berbea hainbat erabilten dau Mikelek kaleen gainean dabilenean. Badakizu zuk zein dan alkarkariaren tratamendu zuzena? Hartu eizu gramatika bat eta atera eizuz kontzeptu nagusiak.
4. Zein da alegiatik atera doguzan esaldi honeen esanahia?
  - Neu nagusi eta musturrak hausi, adiskidetasuna gorrotoz jantzi.
  - Zorri hil biztua baino pizti txarragorik ez dago.
  - Azeak berea dau kirtena, kaleak ez dau izan behar urtena.
  - Eta zureak laster egingo dauala entzun dot.
  - Noren lepotik bizi izan zara zu orain arte, ba, Ezkerkale?

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren gaia? Zer adierazoten dabe hiru kaleek?
2. Zer erabagiten dabe azkenean? Zergaitik?
3. Zein da horren ondorioa?
4. Nortzuk dira Kaleuriko beste hamar kaleak?
5. Eskoikale, Erdikale eta Ezkerkale ondo definitzen dauz Mikel Zaratek. Egin bakotxaren deskripzino zehatza. Zelan ikusten dabe beste biek bere laguna?
6. Zein da Mikelek alegian erabilten dauan kontaketa teknikea?
7. Zelangoa da erabilten dauan hizkerea?

## BAIKOR ETA EZKOR



*Erdi beterik  
eta erdi hutsik  
zahatoa;  
ezin hobea  
eta indargea  
ardoa;  
bero, ausarti,  
epel, bildurti,  
gogoa:  
Baikor eta Ezkor  
bi mozkor.*

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Topau eizuz berba honeen sinonimoak: Zahato, indarge, ausarti, bildurri, baikor, ezkor.

## ULERTU DOZU?

1. Nortzuk dira Baikor eta Ezkor? Zeren sinboloa dira? Deskribidu personaia bakoitza.
2. Zuk zelan ikusten dozuz gauzak normalean, erdi beterik ala erdi hutsik? Zergaitik? Egin idazlantxo bat.



## ABERETASUNA ETA ABEREKERIA



*Erdiminaren minez  
laino baltz ernaria;  
irribarrez ondoan  
emagin eguzkia.  
Trumoi eta haizearen  
urruma urduria  
negarrez ikusirik  
euri jaioparria!*

*Negar-hotsa dardarti  
haizearen altzoan;  
txalapartaren hotsa  
euri tantak basoan.  
Errekatxo zuzenak  
usategi-lepoan,  
eta barruan uso bi  
"Marti-dantza" gozoan.*

*Barriz be egin dau  
usamak arrautzea;  
eta habia zaharrean  
itxaropen betea.  
Ez katu, ez arratoi,  
osasun eta bakea,  
nork leukean betiko  
usoen aterpea!*

Mosu arin bat emon deutso usaitak usamari. Eta hitz gozoz edertzen dau: "Kutuntxo, ederra zu, oso ederra zara! Mosu bat, zure aho-txoaz mosu bat emoidazu!"

Haserre dagoz senar-emazte bi etxe baten, haserre eta isilik. Burruka dabilz beste bi beste etxe baten, burruka eta garrasika, auzo guztien pozarren. Betiko banandu dira beste

senar-emazte bi beste etxe baten. Beste bi be...

Kurrunka dabilz uso maiteminduak. Usaitak estutu egiten dau besartean usama. Eta pozik, eztitan, hau usaitaren hegopetan. Eta hitz gozoz edertzen dau usaita: "Ederra zara, kutuntxo, zu bai ederra! Bikaina benetan zu, ene maite, txit zoragarria!".

Birao jaurtika dabilz gizon batzuk lantegi baten, baita andra batzuk be portu hegal baten. Hondatu egin dau berba gordinez gizon batek andra bat kale bazter baten. Ganorabako berbak entzuten dira beste nonbaiten be.

Harrotu egin jakoz usamari bere luma zuri garbi bigunak pozaren pozez. Eta usaitak loraz beteten dau: "Nire maite, nire atsegin iturri! Zu bai ederra! Bai zu txairo polita! Liluragarriak zure hitzak! Ene usoa, ene ederra!".

Ume galdu bat lurperatu dau emakume batek. Bere sabelean dau oraindino beste batek, baina prest lurperatzeko. Maitekeriak egiten dabilz gizonezko bi; besarka eta mosuka andrazko bi be.

Balet zoragarri bat egiten dihardu orain usamak, hegoak zabalik. Usaita zoraturik dago hari begira, eta kantari: "Ene ederño! Zatoz, negua joana baita. Ez da gehiago euririk. Atertu dau. Landa lorak agiri dira. Olerki aroa heldu da. Dagoaneko, gure alderdi honeetan usapalaren urruma entzuten da. Pikondoan aleak

ernatzen doaz, eta mahastiak loratan usain ederra zabaldu dabe. Ene ederño! Zatoz."

Euren "lanera" doaz lau neska, minigona nabarmenez jantzirik. Txistuka hasten dira mutil batzuk hareek ikusirik. Lizunkeriaz beterik dagoan nobela bat irakurten dago beste mutil bat. Irudi lizunez beterik dagoan aldizkari bat ikusten beste bat.

Usaitak laztandu egiten dau usama. Usamak laztandu egiten dau usaita. Maitaleak maitatua maitekiro maitatuz, usoak maiteminduen zeruko ateetan dagoz, zorabioturik, berezko berezkotasun zuzenaren liluragarritasunean: "Hain dira ezti zure hitzak, hain da polita zure mosua...! Zorabiatu egiten nozu, ostu egiten deustazu bihotza begiratuaz batera. Zure maitetekak bai zirraragile!".

Hamabost urteko neska bat bortxatu dau hogeita hamazortziko mutilzahar batek. Diruz erosi dau neska gazte polit bat aberats batek. Pastilla batzuk erosi ditu botika baten andra ezkondu batek bere "maiteagana" joateko. Neskazahar bat bere txakurraz maitemindu da. Neskabila baten sabelean dagoan umetxoa hiltera doa atsozahar bat...

Usoak maiteminduen zeruan dagoz: "Ni nire maitearentzat naz eta nire maitea niretzat. Heriotza baizen ahaltsua da maitasuna."

Gizonezkoak eta andrazkoak higuinaren inpernuan dagoz.


## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Testutik berba batzuk atera doguz zuk kontrakoa topetako: Banandu, estutu, berba gordinak, bigun, txairo, liluragarri.
2. Mikelek alegia honetan *maite* berbea hainbat bider aitatzen dau. Atera eizu testutik bakotxean zelan erabilten dauan ikusteko.
3. Atzizkidun berbak azaldu beharko dozuz oraingo honetan, eta bide batez, atzizki hori berori daukien beste berba batzuk asmau: Hegope, garrasika, emagin, zirraragile, liluragarri, abere-tasun, aberekeria.
4. Eta lexikoaz amaitzeko, alegia osorik ulertzeko, berba honeen esanahia emon. Gura izan ezkerro, hiztegia erabili zeinke.  
Urruma, altzo, pozarren, besarte, birao, hegal, harrotu, txairo, pikondo, lizunkeria, higuin, erne.

## ULERTU DOZU?

1. Zer irudikatzen dabe usoek?
2. Zer irudikatzen dabe gizonezko eta emakumezkoek?
3. Kontrastea hasieratik ikusten da. Hartu eizu izenburua eta azaldu adierazoten deusuna.
4. Oraingoan aztertu eizu parrafoka. Polita da ikustea zelan tartekatzen dauan *-tasun* eta *-keria* horreen adierazpena. Zelan deskribiduko zeunke alde bakotxa?
5. Zein da alegiaren gaia? Zer kritiketan dau Mikelek alegia honetan?
6. Hartu hasierako bertsoa. Egizu horren azterketa sakona. Zenbat parte dagoz? Agertzen da kontrasterik? Non? Nortzuk dira personaiak? Personifikaziorik ikusten dozu? Non agertzen da islaturik?

## BASAMORTUKO ROBOTAK



Gerrate zital baten ondoren izan zan. Basa-  
mortuan egozan. Bakardadean. Aieneka. Eta  
haserre bizitan. Robot bi.

Bata itsuturik egoan. Bestea hanka barik.  
Eta geldi egozan biak, ikusi ezinik, ibili ezinik.  
Geldi, baina eztabaidaka, alkarri irainka.

—Begibako! —hankamotzak itsuari.

—Hankamotz! —itsuak hankamotzari.

Haizea agertu zan, halakoren baten, nonbaite-  
tik, hareagaz dantzari. Eta laztandu egin zituan  
robotok, eta abesti gozo bat kantatu eutsen  
gero maitekiro, hareek adiskidetu nahirik.

*Batera, bestera,  
aurrera, aurrera!  
Hauxe zuen zeregin,  
zuen ahalegin,*

*gure zeregin, gure ahalegin.  
Zu horren begiekin,  
hori zure hankekin,  
aurrera alkarrekin.*

Baina geldi egozan robot biak. Geldi-geldi.  
Ez eben zirkinik egin.

Aurrera eta aurrera ekin eutsan haizeak  
kanta kantari, hareek adiskidetu eta adoretu  
gurarik.

Halanda guztiz be, geldi robotak. Geldi eta  
haserre bizitan, eta eztabaidaka.

Holantxe egon ziran geroago be ordu asko-  
tan, egun askotan, urte askotan...

Azkenean ugerrak jan ebazan. Herdoitu egin  
ziran. Ezereztu.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Emon berba honeen sinonimoak: Zital, ondoren, irainka, laztandu, zirkin, ekin, herdoitu, ezereztu, aieneka, adoretsu.
2. Ipini eizuz bizkaierazko aditz honeek batuaz: Egoan, zituan, eutsen, egozan, eben, eutsan, ebazan.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren gaia? Non agertzen da islaturik?
2. Zelangoa da Mikelek erabilten dauan hizkerea? Zergaitik?
3. Zein da alegiaren irakatsia?
4. Alegian personifikazioa agertzen da. Non? Zeozer irudikatzen dau?
5. Aztertu eizu haizeak kantatzen dauan abestia. Zein da bere esanahia? Zer da haizeak lortu gura dauana?

*Batera, bestera,  
aurrera, aurrera!  
Hauxe zuen zeregin,  
zuen ahalegin,  
gure zeregin, gure ahalegin.  
Zu horren begiekin,  
hori zure hankekin,  
aurrera alkarrekin.*

## EKIDAZUKO ASTASENDIA



Orain urte asko, batek badaki zenbat, alkar-  
tasunean bizi izan ziran abere guztiak, alkar-  
tasun pozgarri baketsu baten.

*Bat eginik guztiak  
alkarren artean,  
bizi ziran etsai gabe,  
kontentuz, bakean.  
Otsoa eta ardia  
zelai zabalean  
sarri ikusten ziran  
biak jolasean.*

Zoragarria izan zan Abereta eta Abereta-  
ko bizitza aldi haretan. Eta Ekidazun, Abere-  
tako baztertxo baten, asto familia bat bizi  
izan zan: astaita, astama eta zazpi astakume,  
zein baino zein lasterkariago eta arrantzala-  
riago.

Akerrak, azeriak eta erbiak izan ziran hare-  
en auzoetako lagunak. Eta udabarriko eguzki  
argi, lora koloretsu, txori kantari eta bedar  
guria agertzen ziranean, jaialdi eta jolasketa  
itzelak egiten zituen alkarregaz, astategiaren  
ondoko zelaian, abesti alaiak biribilketan kan-  
tatuz.

*Tan parran patan,  
akerra dantzan,  
astoa bibolin jotzen,  
azeria suari puzka,  
erbia urun eralgiten.*

Behin baten, kanta-kantari eta dantza-  
dantzari ziharduelarik, orroe zoli indartsu  
bat entzun zan.

Eta gelditu egin ziran danak. Eta isil-isilik  
eta dar-dar jarri ziran.

Beste orroe bat entzun zan.

Akerrek, azeriek eta erbiek alde egin eben arineketan nonbaitera.

—Nor ete da? —galdetu eban isil-misilka astaitak.

—Piztiagakoren bat ete da? —erantzun eutsan itaunka bildurrik gabe astasemerik gazteenak.

—Zertan ete dator? —galdetu eban astamak be, bildurkilik astaita besarkatuz.

—Amorratu egin dirala Piztiagakoak esan deuste lehen Untxik, Lapinek eta Kukumixak —erantzun eutsan semerik zaharrenak.

—Amorratu? Bai zera!

—Zer da hori?

—Amorratu...?

—Amorr....

—Goazen barrura arin. Goazen... —agindu eutsen astaitak.

Eta astategira sartu ziran asto guztiak, arrantzaka eta saltuka.

Hirugarren orroe ikaragarri bat entzun zan. Orroe amorratua! Orroe izugarria! Eta zabaldu, luzatu eta ugaritu egin zan behingoan oihartzunean.

Isilik egozan astoak eta zutunik, belarriak be zutunik. Geroago eta larriago.

Eguzkia be larritu egin zan bat-batean. Eta laino arteko bere jauregira sartu, eta trumoia jarri eban atezain.

Ilunak inguratu eban astategia.

Laugarren orroe bat entzun zan. Eta bosgarrena haren ondoren. Eta seigarrena, eta zazpigarrena, eta..., trumoia be orroeka hasi zan,

orroeka eta negarrez. Orroearen orroe larria eta dana orroea!

Lehoikume eta otsokume batzuk etozan astategirantz.

—Zer nahi ete dabe? —esan eban astasemerik arrantzararienak.

—Ixxx...! —esan eutsan astaitak.

—Baina...

—Ixxxxx...iii!

Orroeka eta eupadaka, berehalaxe heldu ziran astategira lehoikume eta otsokumeok. Eta ate-joka hasi ziran. Geldi, isilik eta dar-dar bien bitartean astoak. Halakoren baten, atea apurtu eta barrura sartu ziran arrapaladan kanpotarrok. Eta erpekadaka eta haginkadaka astoak agurtu ondoren, astategia euren zala esan eben.

—Geurea da, geurea —esan eben garrasika eta negar baten astoek.

—Zuena? Noiztik hona? Zer dala-ta? Zue-na...? —erantzun eutsen harropuzturik irribarre maltzurrez lehoikume bigoterre batek.

—Ba..., ba geurea dalako, horrexegaitik —esan eutsan izerdi larritan astamak.

Hementxe bertan bizi izan gara astaldiz astaldi... —esan eutsan urduriturik astaitak.

—Nozkoak zarie, ba? —otso argal ulezto batek.

—Gu ez gara inozko —asto guztiek batera.

Alperrik izan zan. Eztabaidaka lehenengo eta burruka hurrengo ekitaldia eginda gero, azkenean ekidazuarrek galdu eta piztiagatarrek irabazi eta nagusitu.

Burrukaldia amaitu ondoren, itsu-itsuka olgau eben irabazleok astakumeakaz.

*Astotxoa, gure astotxoa,  
astotxoa, arrantzarik ez.*

*Buruan joko zaitut,  
buruan, buruan, a!!!*

*Astotxoa, gure astotxoa,  
astotxoa, arrantzarik ez.*

*Buruan eta begian joko zaitut,  
buruan, begian, sudurrean,  
ahoa, okotzean,  
belarrian, lepoan,  
besoan...*

Indarkeriaren indarra, indarbakoan negarra. Zer esan edo zer egin ez ekielarik, astaita eta astama zotinka eta zizpuruka egozan.

—Aurrerantzean gure menpeko izango zarie  
—esan eban lehoikume batek, olgetaldia amaitu ebenean.

—Bai —erantzun eutsan astasendiak.

—Ez —esan eban bere artean astasendiak.

Joan ziran lehoikume eta otsokume amorratuok astategitik. Joan ziran urteak be. Eta, joanak joan, poztasun barri bat erne zan Eki-dazuko astategian, inoren menpean egon beharra astuna izan arren.

Piztiagakoan baimenez, jakina, barriztau egin eben astategia gorostiz, larrosa gorriz eta lirioz.

Baina, halanda guztiz be, ezinegonezko kezka iraultzaile batek irakiten eban astoen bihotzetan. Eta kezka horrek eraginda, arrantzalariagotu egin ziran astakume batzuk. Eta zirriparra eta matxinadak sortu ziran Eki-

dazun. Eta lehoikume eta otsokumez bete zan herri osoa.

—Kontuz, astakumetxook, kontuz! —esan eutsen orduan astaitak astakumeei.

—Betiko leloa! Betiko kontuzko kontua! —erantzun eutsan astakume azkar ausarti batek.

—Eta zer egin, enetxook?

—Honela bizitekotan, hoba hil, eta kitu. Kitu eta kitu, asto bat hil eta beste bat biztu.

—Ez, kutuntxook. Horrelakorik ez. Astakeriarik egin barik jagon behar dogu gure astotasuna. Gu geu gara eta gure geuretasuna geugan zaindu behar dogu. Nahiz eta aurretik erabili, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti.

—Eta beti astoak ardaoa ekarten eta ura edaten?

—Gazte zagoze eta, bai ba, odola bizi. Baina asto txikia beti astakume. Lehoikume eta otsokume, asto hila jatean adiskide. Lehen halan, orain holan, gero ez jakin zelan.

Astaitaren esanei ez eutseen jaramon handirik egin astasemeek. Eta halakoren baten, ostikada bat emon eta zauriturik itxi eban astakume batek otsokume bat. Eta astakumerik gabe gelditu ziran astaita eta astama, atxilotu eta otso-habia batera eroan zituen astakumeak eta.

Erpetitz bat hartu eban handik lasterrera astaitak. Aberetatik etorren. Eta betaurrekoak atera, eta astiro-astiro irakurri eban, astama bere ondotoxoa artega eta erdi negarrez ebalarik.



## ABERELKARTE

### Abereta

Aberetatik, katuilaren 24an  
Astar morroiari  
Ekidazuko astategira

### Astar laguna:

Jakitun egongo zarala uste dogu zelan aspaldion nahaste-borraste zirriparratsu batzuk sortu diran gure artean. Hau dala-ta, aurten aurreratu egin dogu urteroko BATZAR NAGU-SIA. Datorren astean izango da, katuil honen 28an (ez ahaztu), goizeko seiretan, betiko tokian: *Basarteko Jauregian*.

Etorri, bada, batzar interesgarri eta garrantzitsu honetara. Laster arte. Besarkada bat

Lehoi Jaunaren aginduz:  
Luki Ipurdimunek

—Ezin zarala joan esanez hankatitz bat bialdu, eta ez zaitez joan badaezpadan batzarrrera —esan eutsan astamak astaitari, hiru bider erpetitza irakurri eta gero.

—Badaezpadan joan hoba. Osterantzean...

Eta esan eta egin, gogorik gabe baina, joan egin zan batzarrrera astaita.

Abere asko batu ziran batzarrean. Eta beti bezala, Lehoi Jauna egon zan danen erdian, batzar-buru, eta azeriak, otsoak eta tximinoak haren ondoan, azerikeriak, otsokeriak eta tximinokeriak eginen, beti bezala.

Orroee dardartsu bat egin eban lehenengo eta behin Lehoi Jaunak, eta bat-batean isildu ziran animalia guztiak.

Sarrerako berbaldia egiten hasi zan orduan azeri zerbitzari bat. Eztul txiki bi egin zituan hasi baino lehen.

—Lehoi Jauna! Gure Jaun eta Jabe zaitugun Lehoi ospetsu eta on hori! Gure agintari eta bakegile zuzena zaran Lehoi Jauna! Jaunen Jaun agurgarri hori! Agur t'erdi! Otso, tximino, azeri lagun eta gainerako batzarkideok: ongi etorri eta agur! Badakizue gure Lehoi Jauna haserre dana. Errazoiz gainera! Bai horixe! Aita on batek baino maiteago gaitu guztiok eta gure bake eta zoriona gura dau. Berau dogu gure benetako zerbitzaria, aberetarren zerbitzari leiala, zerbitzarien zerbitzaria... Asko sufridu dau aspaldion horrexegaitik. Minduta dago beronen aurka egin diran eta beronen zerbitzarien aurka egin diran astakeriakaitik. Bai, azpilana eta azpijana egiten dihardue lotsa galduko maltzur zantar batzuk, gure Lehoi bihozbeheratsuaren agintaritza eta gure zerbitza izengatu eta arbuiatu gurarik... Baina gure Lehoi Jauna lagun eta jarraibide dogularik, laster azpiratu eta zapalduko ditugu gure etsai gaizto banaka horreek, eta hil egin behar badira hil egingo doguz. Bakotxak berea eta bakotxari berea...

—Hori hori! Gora gure Lehoi Jauna!

—Gorall!

Orroeka, murrusaka, irrintzika, kurrinkaka, urrumaka, zaunka..., saltoka, ostikadaka,

adarkadaka..., hasi ziran suturik entzulerik gehienak, Lehoi Jauna, azeriak, otsoak eta tximinoak goraka goratuz.

Astaitak, ostera, ez eban arrantzarik egin; salturik be ez; ezta ostikadarik be. Ez eukan ezertarako gogorik eta geldi eta mutu egon zan, azeriak hitzaldian aitaturiko *astakeriakaitik* hausnartzen.

Alkarrizketa luze eta bare bat egin eben gero batzarkide guztiek, Lehoi Jaunaren eta bata bestearen birtuteak adierazoz eta arerio zitalen jokabide okerrak gorrotatuz.

Ia haserre ete zan itandu eutsan, atsedernaldi baten, azeri batek astaitari; ia zergaitik ez eban arrantzarik, ez salturik, ez ezer egin; ia konforme ez ete egoan... bildurrik gabe erantzuteko eskatzen eutsan, ez eutsala ezertxo be inori esango eta.

—Lehenengo eta behin, nire astasemeen barririk be ez dakit eta badakizu...

—Bai, badakit, astar. Tamalgarria benetan! Baina badakizu: zigortu beharrean egon diran arren, okerkeriak egiten ibili dira eta, ez doguz zigortu. Atxilotzea preminazkoa genduan. Dana dala, nasai egon, laster ikusiko dozuz eta, barriro be, astategian.

—Bai?

—Bai, astar, ziur, gure Lehoi Jaunaren borondate onari eskerrak.

—Eskerrik asko.

—Eta zer? Zelan doa batzar hau?

—Ondo. Baina, halanda guztiz be...

—Zer?

—Zeozer esango neuke bildur ez banintz.

—Bildur? Zeren bildur baina? Esan, astar. Esan esatekoa, bildurrik gabe. Hara: nahiz eta kontrakoak izan, mesedegarri jakuz sarritan behekoen eretxiak.

—Bai baina.

—Horrexek galtzen zaitue: Isilik egoteak edo zeuen artean marmar ibilteak.

Ekin eta ekin, zer edo zer lortu eban azeriak azkenean. Hain zuzen edo oker be, Lehoi Jaunaren hutsegite eta akats batzuk agertu eutsazan astaitak azeriari isilpean. Azeriaren beraren faltsokeria eta oker ibilte batzuk be bai. Baita animalien arteko berezko eta legezko eskubide eta hankabide batzuk be.

Eskerrikaskoka entzun eutsan azeriak astaitari.

Lehoi Jaunaren hitzaldiaz amaitu zan batzarrara.

—Zalapartari okerren erruz haserre barru-barrura sartu arren, samurkiro natorkizue, aberetarrok, nire narru eta hortzetako aberetar nabarrok. Zirriparra bihurri eta lorraren amorrugaitik berba gogorak jaurtitera etorri beharrean, berba adikor eta irribarre samurrez natorkizue, gaurko batzar garrantzitsua hausnarturik. Hartu bardinok eta bardinagook, goitarrok eta behetarrok, eme eta arrok, hartu eskerrik barnekoienak. Aurtengo zirriparrakaitik zerbait orroetu beharrean dihardut. Parkatu, ez nator harrokeriaz. Gogortasun jatorra, gogortasuna jatorra da. Gogorkeriak gogorkeria dakar, gogorkeria bakarrik. Eta horrexegaitik, nahaste-borrasteon sortzaileok harrapatu beharrean

gagoz. Harrapatu, ba, doilorrok eta urrutiratu laster edo apurto bizkor bizkarrezurrak maltzur zantarroi. Azkar, aberetarrok. Zoritxarra baztertzeko zuhur. Eta birrindu behar badira okerrok, birrindu, erruki barik, eta lurperatu. Sartu ar gorrien herrira... Eskerrak barrero. Datorren urtera arte. Agur."

—Gora gure Lehoi Jauna!!! Gora gure Lehoi Jauna!!!

—Gora!!!!!!

Begi distikorrek malkoz bete jakozan astaitari. Eta astamari be bai astategian, bere asto maitea gogoan ebalarik.

Gautu baino lehen egin eban alde astaitak batzarretik. Baina gautu eta gero be ez zan agertu astategian.

Astama zain egoan.

—Laster etorriko da astaita, laster —esaten eutsan noizbehinka bere sabelean eukan astakumetxoari.

Baina astaita ez zan agiri.

Astategiaren kondaira kontatzen eta kantatzen hasi jakon, orduan, astama laster jaioteko egoan astakumetxoari.

*Artoa danean arto,  
ez danean lasto,  
izan nire astakume  
izan beti asto.*

Goizaldean agertu zan astaita. Bide bazterrean hilda aurkitu ebela-ta, ekidazuar batzuk ekarren, hilotz.

Iturri bi bihurtu jakozan bere begi ederrak astamari. Eta erdi zoraturik eta erdiminetan, arrantzaka hasi zan.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Ekidazu: hizkiak mobidu, eta ea ze berba agertzen jatzun.
2. Beharbada honeetariko berba batzuk ezezagunak dira zuretzat eta zure ikaskideentzat. Ea danon artean argitzen dozezan: Orro zolia, bildurkilik, amorratu, erpakadaka, harropuztu, bigoterre, ulezto, zotinka, zizpuruka, barriztau, zirriparra, matxinda, erpatitz, zirripartsu, hankatitz, bihotzbeheratsu, izengatu, marmar, eskubide eta hankabide, adikor, hausnarturik, hilotz, erdiminetan.
3. Orain beste honeen sinonimoak aurkitu behar dozuz. Zelan esaten dozue berba hori zuon etxean?  
Arrapaladan, garrasika, artega, doilor, samurkiro, zalaparta, arbuiatu, suturik.
4. Atera eizuz alegiatik *asto* berbagaz egin dauzan berba konposatuak eta eratorriak.
5. Alegian zehar hainbat bider agertzen da *orro* berbea. Atera testutik eta aztertu beragaz datozen adjektiboak. Zer adierazoten dabe?
6. Izadia be hainbat agertzen da islaturik. Batzuetan protagonismoa hartzen dau izadiaren elementuak personifikauta datozalako. Non? Zer adierazoten dabe?
7. Emon esaldi honeek beste modu batera.
  - Behin baten kanta-kantari eta dantza-dantzari ziharduelarik, orro zoli indartsu bat entzun zan.
  - Eta erpakadaka eta haginkadaka astoak agurtu **ondoren**, astategia euren zala esan eben.
  - Eztabaidaka lehenengo eta burruka hurrengo ekitaldia eginda **gero**, azkenean ekidazuarrek galdu eta piztiagarrek irabazi eta nagusitu.
  - Eta, joanak joan, poztasun barri bat erne zan Ekidazuko astategian, inoren menpean egon beharra astuna izan **arren**.
  - **Nahiz eta** aurretik erabili, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti.

- Eta betaurrekoak atera, eta astiro astiro irakurri eban, astama bere ondotxoan artega eta erdi negarrez ebalarik.
  - Gautu **baino lehen** egin eban alde astaitak batzarretik.
8. Hurrengo aditzak orainaldian ipini behar dozuz: Eutsan, eban, eutsen, ekien, egozan, ziran, zituen, eutsazan, egoan.

## ULERTU DOZU?

1. Liburutik ateratako esaldi honeek irakurri, eta eztabaida sortu irakaslearen laguntzaz.

"Orroeka eta eupadaka, berehalaxe heldu ziran astategira lehoikume eta otsokumeok. Eta ate joka hasi ziran. Geldi, isilik eta dar-dar bien bitartean astoak. Halakoren baten, atea apurtu eta barrura sartu ziran arrapaladan kanpotarrok. Eta erpakadaka eta haginkadaka astoak agurtu ondoren, astategia euren zala esan eben."

"Burrukaldia amaitu ondoren, itsu-itsuka olgau eben irabazleok astakumeakaz."

"Indarkeriaren indarra, indarbakoen negarra."

"Piztiagakoen baimenez, jakina, barriztau eben astategia gorostiz, larrosa gorriz eta lirioz."

"Eta kezka horrek irakiten eban astoen bihotzetan. Eta kezka horrek eraginda, arrantzalariagotu egin ziran astakume batzuk, eta zirriparra eta matxinadak sortu ziran Ekidazun. Eta lehoikume eta otsokumez bete zan herri osoa."

"Honela bizitekotan, hoba hil, eta kitu, kitu eta kitu, asto bat hil eta beste bat biztu."

"Astakeriarik egin barik jagon behar dogu gure astotasuna. Gu geu gara eta gure geuretasuna geugan zaindu behar dogu. Nahiz eta aurretik erabili, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti."

"Eta beti astoak ardaoa ekarten eta ura edaten?"

"Esan esatekoa, bildurrik gabe. Hara: nahiz eta kontrakoak izan, mesedegarri jakuz sarritan behekoen iritxiak."

"Eta birrindu behar badira okerrok, birrindu, erruki barik, eta lurperatu. Sartu ar gorrien herrira."

"Eta erdi zoraturik eta erdiminetan, arrantzaka hasi zan."

2. Zein da alegia honetako gaia?
3. Zein da istorioa? Lau lerrotan azaldu.
4. Egizu kontetan dan istorioaren interpretazioa. Zer erakutsi gura dau Mikelek? Zegaz identifiketan dozu alegia?
5. Badago zeozeren kritikarik alegia honetan? Zerena?
6. Egitura: nondik nora doa parte bakotxa? Zoriona eta etsipena argi eta garbi ikusten dira alegian zehar. Zertan igarten da?
7. Mikel Zaratek alegia horretan erabilten dauan kontaketa teknikea ez da beti bat. Zerez baliatzen da? Narrazioa baino ez dau erabilten? Zer gehiago erabilten dau?
8. Alegian agertzen diran bertsoak irakurri banan banan eta komentau eizuz zure ikaskideakaz. Zer esan gura dabe zuretzat?
9. Atera eizuz personaiak, eta kokatu bi multzotan, ekidazuarrak eta piztiagatarrak.
10. Non kokatzen da alegia? Non gertatzen dira gauzarik garrantzitsuenak? Aitatu agertzen diran lekuak.
11. Zein da alegiaren irakatsia? Non ikusten dozu?
12. Alegian mendekua agertzen da argi eta garbi. Non? Noren alde-tik? Zelan? Egizu gogoeta antzeko bat, eta idatzi eizu alegiak adierazo deutsuna.

## TXIRORIK TXIROENA



*Diruduna genduan,  
diruduna Don Juan:  
Dirua hemen,  
dirua hor,  
dirua han...  
Baina oso pobrea zan.  
Dirua baino besterik  
ez eukan.*

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *-dun* atzizkia agertzen da alegian. Zertarako erabilten da atzizki hori? Emoizuz beste bost adibide.
2. *Besterik ez* aztertuko dozu oraingoan. Hartu eizu gramatika bat eta azaldu zelan erabilten dan.

## ULERTU DOZU?

1. Zergaitik zan pobrea Don Juan diruz beterik baegoan? Egizu gogoeta.



## ZALDIBI



Iluntzeko argi ilunetan begi beilegi biak bizturik, badoa Zaldibi. Badoa nonbaitera arineketan, itsu-mutsuka, zibuka, bozina hotsean, ketan... Estu eta larri doa.

Goienkale, Eskoikale, Erdikale, Ezkerkale, Barrenkale..., bizkor doa Zaldibi kalerik kale. Hona eta hara, badoa nonora. Baina nora?

Osasunmendiko haizezko karatula bat daroa aurpegian arnasa hartzeko; haize garbizko karatula bat haize usteldu hareetatik ibilteko. Galtzairuzko aterkin bat daroa eskuan, hauts-auria da eta, mara-mara. Guatezko tapotz batzuk daroaz belarrietan, zaratearen zarateaz gortu ez daiten.

NAHASTESA, KASKOLA, URPINGI, E.R.R.E. B.E.S.A., ITZONTZIO..., abiadan doa Zaldibi anuntziorik anuntzio. Norantz ete doa?

Euria eta kea dantzan dabilz haize ustelduaren altzoan, ilunaren mozorroz jantzirik, boite izugarri haretan. Uriburuko argi koloretsuak

be dantzan dabilz, sorginkiro, diru-etxeetan, jantokietan, dantzalekuetan, zineetan, dendetan...

GOZOTOKI, ARNOTXOKO, DROGAKABI, LORETEGI, EUSKERAITZEGITENDA..., tximista bezala doa Zaldibi dendarik denda. Nora?

—Zaldibi! Zaldibi! —deitzen deutso adiskide batek.

—Zaldibi! Zaldibi! —deitzen deutso arerio batek.

—Agur! Agur! —erantzuten deutse Zaldibik. Ez dau, izan be, gelditzeko astirik, nasai egoteko gogorik, ezer gogoratzeko girorik, ezertarako...

Fiat, Seat, Ford, Simca, Ferrari..., prisaka doa Zaldibi berebil errekan igeri.

Edonora, edozelan, edonoiz...? Joan doa Zaldibi, joan eta joan, arineketan, arrapaladan... Joan bai baina... nora?

Gelditu egin da. Gelditu? Bai, gelditu egin da norbait jo dau eta, aurrez-aurre jo be.

Mercedes jo dau, harro-harro jantzirik eta usain gozoz inguraturik doan Mercedes ederra, orain geldi dagoan Mercedes.

Min egin deutso Zaldibik Mercedesi, min mosuetan. Eta haserratu egin jako ha. Eztabai-daka dabilz biak orain, eta garrasika... Burruka hasi dira, burruka gogorrean. Hango burdina hotsak ez dau azkenik! Laster azpiratuko dau Zaldibi Mercedesek. Zahar egin da egin be Zaldibi eta indargetu...

Seat Txiki jatorko laguntzera Zaldibi koitaduari. Eta Mercedes azpiratu dabe orain bien artean, eta erdi itsuturik itxi deustie hari begi bat... Baina Tanke erraldoi itsusia agertu da,

bere lagun Iskilugaz... Jakina, astindu-astindu egingo ditue behingo baten Zaldibi eta Seat Txiki.

Irrintzi kirrinkari samingarriak egiten ditu Seat Txikik Tankeren hankapetan. Mailatu egin dau honek. Iskiluk be ederrak emoten deustaz. Hil egingo dabe...

Irribarreka dago orain Mercedes burrukarien ondoan, izerdia sikatzen, begiko zauria osatzen. Nasai eta pozik dagoala dirudi.

Zaldibik igesari emon deutso, marmar purrustaka eta arnasoska. Kale arterik kale arte, karatularik gabe orain, han doa Zaldibi alda-maldaka, kulunkan, zalantzan, aurrera eta aurrera. Baina nora?

Nork jakin nora doan...? Berak baleki...

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Itandu berba honeen sinonimoak. Ea zenbat aterateko kapaza zaran.  
Aterkin, tapotz, abiadan, eztabaida, garrasika, burruka, azpiratu, indargetu, irrintzi, kirrinkari, samingarri, marmar, kulunkan.
2. Zenbat modu diferente erabilten dau Mikelek Zaldibi galapaka doala adierazoteko? Ezagutzen dozu zuk beste adibiderik?
3. Mikelek adjektiboak darabilz deskripzinoak egiteko. Atera eizuz dagozan adjektiboak eta azaldu zer lortzen dan horreek erabilita.
4. Batu eizuz indarkeria eta larritasuna adierazoten daben berbak eta esaldiak.
5. Oraingoan testuan dagozan mugagabeak sailkatu.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegia honetako gaia? Azaldu lau lerrotan alegiak kontetan deuskuna.
2. Nondik nora doa Zaldibi? Non ikusten da hori?
3. Nortzuk dira pertsonaiak? Zeren sinbolo dira?
4. Irakurri eizu arretaz esaldi hau. Zer komentauko zeunke? Zer gertatzen da esaldi horretan?

"Euria eta kea dantzan dabilz haize ustelduaren altzoan, ilunaren mozorroz jantzirik, *boite* izugarri haretan. Uriburuko argi koloretuak be dantzan dabilz, sorginkiro, diru-etxeetan, jantokietan, dantzalekuetan, zineetan, dendetan..."

## TXORIKUMATXOA, BEHIA ETA KATUA



Bere aita-amen habia epeletik bidezidor baten erdira jausi ondoren, estu eta larri dabil txorikumatxo bat.

Txorikumatxo errukigarria! Jantzi barik dago oraindino, narrugorritan, eta hotzakilik. Hegaz egin nahi dau baina..., ezin, ezin ezelan be.

Halakoren baten, behi bat jatorko, eta ikaratu egiten da. Zer ete da hain handi eta indartsu jatorkon ezezagun ha? Jan egingo ete dau? Edo zapaldu eta birrindu...?

—Ene bada eta ni? Galdua naz. Ama...!

Heldu da behia txorikumeagana, eta musu bero gozo bat emoten deutso honi. Gero, gainetik igaro eta pekorotz opil bat jaurtiten deutso. Ez dau jan txorikumea, ez dau zapaldu..., eta epeletan dago hau orain pekorotz

artean, bere burutxo kanpoan daualarik. Bizkortu egin da, eta poztu, *arerio ikaragarria* adiskide maitagarri bihurtu jakola ikusirik.

Joan da behia. Baina katu bat agertu da berehalaxe pekorotz piloaren ondoan. Irribarrez agurtzen dau txorikumatxoa, eta garbitu egiten deutso burua, kontuz-kontuz, bere erpa eta mihinaz. Eta atseginez ixten deutso hori egiten txorikumatxoak. Ez da ikaratu *adiskide maitagarri* honen aurrean.

Atera egin dau pekorotz artetik katuak, eta gorputza be garbitu egiten deutso mihinaz miazkauz.

Garbi-garbi egin dau katuak txorikumatxoa, eta aurreko erpa bien erdian hartu eta jan egiten dau.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Topau eizuz berba honeen sinonimoak: Bidezidor, errukigarri, narrugorritan, ikaratu, birrindu, jaurti, bizkortu, miazkau.
2. Txorikumea da alegiaren protagonista bat. Kumeak abereen umeak dira. Zelan esaten deutsezu beste abere honeen umei? Katua, txakurra, astoa, lehoia.
3. Topau eizu berba honeen esanahia: Pekorotz, erpa, miazkau.
4. Alegiak dino: "Zer ete da hain handi eta indartsu jatorkon ezezagun ha? Jan egingo ete dau?" Zein funtzino dauka *ete* partikuleak? Ez badakizu topau eizu gramatika liburu baten.
5. Esaizuz esaldi honeek beste modu batera.
  - Bere aita-amen habia epeletik bidezidor baten erdira jausi **ondoren**, estu eta larri dabil txorikumatxo bat.
  - ... eta epeletan dago hau orain pekorotz artean, bere burutxoan kanpoan **daualarik**.

## ULERTU DOZU?

1. Lehenengo eta behin kontaizu lau lerrotan alegian gertatzen dana.
2. Zer adierazoten dau testuak? Zein da irakatsia?
3. Gertau jatzu zuri inoz alegiak kontetan dauanaren antzekorik? Komentau eizu zure ikaskideakaz.

## NI EZ NAZ ZU



Haserre bizitan doa gabarra bat ibaian. Ikatzez beterik doa, gora eta gora. Haserre bizitan doa. Eta marmarka.

—Ez, ez eta ez. Ez dot nahi honela bizi. Ito eta kito. Arte, gibel, eroapen, egoarri, pazientzia...! Baina noz arte? Noraino? Ez, ez. Hone-la bizitekotan..., hoba hil. Horixe, hil. Ai enel! Hau ezinaren ezina eta larriaren larria!

—Haserre zara, lagun, eta aieneka zabilz? Eta nik, zer esango dot orduan nik? Zuk darozazun ikatz astun hori eta zeu, biok zaroedaz nik —dinotso ibaiak.

—Bai baina, ni ez naz zu.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Berbakaz jolastuko gara. Irakurri zerrenda hau, eta esan zein erlazino daukien berbek euren artean. Sinonimoak diranean 1 zenbakia ipini beharko dozu. Antonimoak diranean 2a, eta zeri-kusirik ez daukienean 3 zenbakia erabili.

	1	2	3
Haserre bizi/Errukarri			
Marmarka/Marmarrean			
Arte/Gibel			
Gibel/Eroapen			
Eroapen/Egoarri			
Egoarri/Pazientzia			
Eroapen/Arte			
Gibel/Pazientzia			
Egoarri/Arte			
Ezina/Ahalegina			
Aieneka/Alarauka			
Astun/Arin			

2. Ze ondorio ateraten dozu goiko ariketea egin ostean?
3. Zer lortu gura dau Mikel Zaratek?

## ULERTU DOZU?

1. Saiatu zaitetz idazleak kontetan dauana zure berbakaz esaten zure ikaskideei.
2. Mikelek alegia laburra baina sano esanguratsua idatzi dau. Zer irakatsi gura deusku?
3. Emoizu eretxi kritikoa.

## ON EGINAREN PAGUA



Zezeila. Edurrez mendiak. Hotz. Ilun.  
Gaixorik dago otsoaita. Ai! eta ai! dabil.

Erbi izoztu batzuk ekarri zituan atzo otso-  
amak Berexiko supermerkatutik eta, zoritxa-  
rrez, hazur bat trabatu jakon otsoaitari  
saman. Eta, ez atzera ez aurrera, hantxe,  
saman dauka orain be hazurra.

Eginahalak egin ebezan berak, otsoamak eta  
otsokumeak hazur hori kentzeko baina, alperrik.

Osagile entzutetsu baten zain dago orain  
otsoaita, Bildots jaunaren zain. Ahoa zabalik,  
betagin sendo eta zorrotzak agirian ditu, eta  
aireportutu egin dau haren mihina neguko eltxo  
epel batek. Otsoama dago bere ondoan.

Otsokumeak telebisinoa ikusten dagoz. Hain  
zuzen be, futboleko partidu bat emoten dabe:  
*Hartzeta-Zezentza*. Koloreetan emon be. Eta  
oso futbolzaleak dira otsokumeok. Telebisinoan

sartuta daukiez begiak, eta belarriak espikere-  
rrenaren ahoan.

—“Zekor eta Zezenko orain baloiagaz. Hau  
arineketa! Harzkumek behera bota dau Zezen-  
ko... Min egin dau, antza, honek. Haserratu bai  
egin da, behinik behin. Harzkumegana doa  
Idiskorekin... Begira, ikusi, telebisino ikusle-  
ok..., jo egin dau Harzkume. Arbitroak tarjeta  
gorria aterako deutso. Jakina...”

—Ba! Hainbesterainokoa ez da izan —dino  
otsokume batek, hankapetan hazka eginez.

—Bai izan da! —erantzuten deutso berehala-  
xe bere ondoan erdi etxunda dagoan otsoa-  
naiak, hortz bitartean dituan haragi zatiak  
iruntsiz.

—Ama! Ama! —deika otsoaitak, estu eta larri.

—Zer? Hemen nago, zure ondotoxoan. Min?

—Bai. Ai! Ez al da etorri osagilea oraindino? Ai!



—Ez. Baina laster etorriko da.

—Nor joan da haren bila, ba?

—Elikoteru joan da. Zagoz geldi-geldi..., eta isilik, berba egitea kaltegarri jatzu eta.

Amaitu da futboleko partiduaeren lehenengo zatia.

*HEGABERA!*

*Gora behera,*

*beti aurrera.*

*HEGABERA!*

*Entzun, txoferrok,*

*ikusi auto ederrok.*

*Arin joan nahi dozue nonbaitera?*

*Erosi, bada, arin gure HEGABERA.*

*HEGABERA!*

*Hauxe kotxea,*

*oso merkea!*

*Hauxe aukera:*

*gure HEGABERA!*

Heldu da Bildots jauna. Apala dirudi. Estaldu-  
durik ditu begiak betaurreko baltzez.

Irribarreka hartu dau otso familiak. Bigun-  
bigun eta eskerrikaskoka agurtu dau otsoaitak,  
eta baijaunaka eta ezjaunaka jabilko orain.

—Txarto daukazu hazur hori euki be, gero!

—Bai, jauna.

—Benetan! Baina laster kenduko deutsut.

—Bai, jauna.

—Trankil hartu arnasea.

—Bai, jauna.

—Baina ez mobidu, mesedez.

—Ez, jauna.

Serrot txikitxo bat atera dau bere maletin-  
etik Bildots jaunak. Eta, kontuz-kontuz, rist-  
-rast, rist-rast, rist-rast..., ebagi egiten deu-  
tso otsoaitari saman lotuta daukan hazurra.  
Halakoren baten, klask, zati bi egiten da.

—Orain ederto, ez? —esaten deutso orduan  
Bildots jaunak.

—Aaaa...a! Hau bai hau deskantsua! Ordua  
izan da..., atsedeen pixka bat hartzeko. Aaaa...a!  
—erantzuten deutso otsoaitak, Jesus eta  
amen esan orduko hazur zati biak janez.

—Gozo? —Bildots jaunak.

—Gose —otsoaitak, aharrausi luze bildurga-  
rri bat eginez.

—Eskerrik asko, egin deuskuzun mesede  
handi honegaitik. Baina holako mesede bat ezin  
daiteke ordaindu eskerrik asko esanda baka-  
rrik. Esan eiguzu, ba, zenbat dan... —otsoamak  
Bildots jaunari.

—Zenbat dan zer? —otsoaitak zutundurik.

—Kontua —otsoamak samurtasunez.

—Kontua? Zelako kontua dakarzu zuk orain,  
ostera? Zerena? Zer dala-ta? Ez al da nahiko  
ordaintzerik neuk beronen alde egin dodana  
egitea? —haserraturik otsoaitak.

—Zer egin deustazu, ba? —harriturik eta  
apalkiro Bildots jaunak, serrota maletinera  
sartzen dauan bitartean.

—Zer egin dinostazu gainera? Zer egin?  
Egon zaitetz pozik eta isilik, mesedez. Egon zai-  
tez pozik, bai, egin deutsudana kontatzeko  
moduan zagozalarik. Izan be, ez deutsut minik

egin, egiteko erea izan arren. Hil ahal izan zaitudan arren, ez zaitut hil, ez, gitxi deritxazu horri? Sari handiagorik zelan emon deikezut, ba? Bizirik zagoz nire hagin zorrotz artean egon arren, bizirik. Zer nahi dozu, ba, zer? Zagoz isilik haserratu ez naiten eta behar ez danen bat egin ez deizudan.

—Parkatu —Bildots jaunak.

—Gabon —otsoaitak.

—Bai, gabon guztioi. Agur. Beste batera arte —Bildots jaunak.

—Ondo joan —otsoamak.

—Agur —otsokumeak.

Maletina hartu, eta isilik eta ikaraturik, badoa bere etxerantz Bildots jauna. Etorri ez da bakarrik etorri baina, bakar bakarrik doa orain.

Kanpoan oso hotz dago eta ilun.

Deika jabilko telebisinoa Bildots jaunari.

"Udabarria da, bai, JANTZITEGI-n.

Etorri eta udabarritu zaitetz.

JANTZITEGI, JANTZITEGI, JANTZITEGI."

Baina Bildots jaunak ez deutso jaramonik egiten, eta aurrera doa oztokoka, ez dau ezer ikusten eta; aurrera doa neguaren sabelean.

Futboleko partidua amaitu da eta, pelikula bat ikusten doaz otsokumeak. Otsoaita eta otsoama be orain otsokumeen ondoan dagoz, afaltzen, hazur-hotsean.

Telebisinoko otsoak, ostera, bazkaltzen dagoz.

"Badator, badator udabarri pozgarria... Adarrik adar, saltuka eta kantuka, kardantxi-loak. Erle eta mitxeletak basolora koloretsuen artean balet liluragarri bat dantzatzen. Untzorritz apainduriko haretxen gerizpetan bazkaltzen otso batzuk, eta TXIRODOL edaten. Kardantxiloen abesti hori-gorriak TXIRODOL-en itoten dira; erle eta mitxeleten dantzak TXIRODOL-en ezkututzen dira... TXIRODOL! TXIRODOL! Hau egunaren argia! Hauxe udabarria! Hau eguzkiaren beroa! Hauxe edariaren gozoa! TXIRODOL! TXIRODOL! TXIRODOL!"

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Hurrengo berba honeen sinonimoak topau. Ahalik eta gehien batzen ahalegindu.  
Zezeila, eginahalak, arineketa, behinik behin, hankape, hazka, bildurgarri, oztopo.
2. Orain antonimoak topetan eukiko dozu beharra.  
Hotz, zoritxarrez, kaltegarri, apal, bigun-bigun, zorrotz.
3. Zelan esango zeunkez hurrengo esaldi honeek beste modu batera?
  - Osagile entzutetsu **baten zain** dago Otsoaita.
  - Izan be, ez deusut minik egin, egiteko erea **izan arren**.
  - Hil ahal izan **zaitudan arren**, ez zaitut hil.
  - Zagoz isilik **haserratu ez naiten** eta behar ez danen bat **egin ez deizudan**.
4. Alegiatik atera diran bizkaierazko aditz honeek batura pasau behar dozuz: Zituan, jakon, ebezan, daukiez, deutso, dino, zagoz, jatzu, deusut, eiguzu, dau, deustazu, dinostazu, naiten.
5. Hartu izenburua. Atsotitz baten lehenengo partea dala ikusi daiteke. Zerk jarraitzen dau? Zer esan gura dau?
  - On eginaren pagua...
    - a. behar ez dan modua.
    - b. ate ondoan palua.
    - c. haserratzeko kontua.
6. Eta beste honeek? Aukeratu ostean interpretatu eizuz zure ikas-kideakaz.
  - Beti ona izatea, ...
    - a. txarra.
    - b. beharra.
    - c. gitxi izango da.
  - On egina...
    - a. sekula galdu ez.
    - b. guztion zeregina.
    - c. bakerako bidea.

- Handia ez da beti ona,...
  - a. ez da txarra be.
  - b. ona beti handia.
  - c. baina bai hobea.
- Ona gitxirengan,...
  - a. guztientzako irakatsia.
  - b. hobea besteakan.
  - c. txarra guztiakan.

### ULERTU DOZU?

1. Zer pasau jako Otsoaitari? Zergaitik dabil aieneka?
2. Ze gai erakusten deusku idazleak alegia honetan?
3. Zer lortu gura dau Mikelek kontaktetan zehar telebisinoko anun-  
tzioak tartetuta?
4. Otsoaitak arpegi bi erakusten dauz. Ze modutara? Zure ustez  
ondo jokutzen dau?
5. Alegiaren izenburua irakurrita, eta atzetik jatorkona ikusita,  
zein da alegia honetako moraleja edo irakatsia?

## EKINAREN IRUZURRA



Urtero erosten dau kotxea Txemak. Izan be, kilometro asko egin beharra izaten dau autoan egunero biajantetzan.

Urtero erosten dau kotxe barri bat, eta kolore bardinekoa beti: zuria.

Aurten be erosi dau. Baina erdi zorabiatu erabili dabe bere adiskide batzuek.

Etorri da bere herrira, harro-harro, kotxe zuri barri dizdiztsuagaz, eta bedeinkatzera eroan dau eleiza alderantz.

—Aurten baltza erosi dozu, e! Zer, ba? Ohi-turak aldatu? Baltza baino... —esan deutso irribarrez abadeak.

—Baltza? Ez horixe. Ez dot ohiturarik aldatzen nik.

—Ba..., oker ez banago, baltza da hau.

—Beti brometarako gogoaz?

—Ez. Egia da.

Bedeinkatu ondoren, tabernara joan dira Txema eta abadea, zerbait edatera.

—Baltza aurten, e! —esaten deutso adiskide batek.

—Baltz-baltza gainera —beste batek.

—Zuria eta zuria ibili zara beti eta, ondo egin dozu kolorea aldatzeaz. Oso polita da hori be izan baina, gorria-edo politagoa izango zan —tabernako ugazaba-andreak.

—Zoratuta zagoze gaur guztiok ala? Zuria erosi dot aurten be, zuria! —Txemak erdi haserraturik.

—Benetan ez dozu hori esango baina! —taberna ondoko garajetik etorri dan mekaniku batek.

—Bete basuak, Mari...

Etxera heldu danean, auzoko Krispin etorri jako kotxe barria ikustera.

—Polita benetan! Baina zergaitik baltza oraingoan?

—Zu be adarra joten, Krispin?

—Adarra joten? Ez al da baltza?

Etxera sartu da Txema arineketan, eta honen aurpegia ikusirik ikaratu egin da emaztea.

—Zer? Ondo zagoz?

—Bai. Zer, ba?

—Ez dozu ekarri kotxe barria ala?

—Bai.

—Zuria?

—Zuria edo baltza, hor dago. Joan eta ikusi.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Ekina* dino alegiaren izenburuak. Badagoz euskeraz *ekin* berbagaz hainbat atsotitz. Ea asmetan dozun zelan amaitzen diran.
  - Ekinak .....
    - a. erdia egina.
    - b. ekina dakar.
    - c. gauza txarrik ez.
  - Ekin ekin, .....
    - a. guztia lortzeko bidea euki.
    - b. azeri zaharrak oiloak harrapau.
    - c. guztirako ona.
  - Ekinak egina dirudi, .....
    - a. lanak urregorri.
    - b. baina egiarik ez.
    - c. guztirako beren-beregi.
2. Orain emoizu aukeratu dozuzan erantzunen esanahia.
3. Zer esan gura dabe berba honeek?  
Zorabiatu, harro, bedeinkatu, ohitura, irribarre, adarra jo.

## ULERTU DOZU?

1. Alegia ulertu dozun ikusteko, erantzun galdera honeek.
  - Zergaitik erosten dau urtero kotxea Txemak?
  - Zer egiten dau Txemak kotxeagaz tabernara joan aurretik?
  - Zertan dabilz Txemaren lagunak?
  - Zer erantzuten deuto Txemak bere andreari azkenean?
  - Zergaitik?
2. Zer adierazoten deusku alegiak?
3. Zein da Mikelek erabilten dauan hizkerea? Edonork ulertzeko modukoa?
4. Zuri pasau jatzu inoz Txemari alegia honetan gertatzen jakonaren antzekoa? Zer iruditu jatzu alegia?

## MENDITZAR ETA MENDITXO



—Kendu zaitetz nire ondotik, txikiagotu egi-  
ten nozu eta —esan eutsan haserrez Mendi-  
tzarrek Menditxori.

—Kendu zaitetz zeu nire ondotik, handiagotu  
naiten —erantzun eutsan haserrez Menditxok  
Menditzarri.

Ez batak ez besteak, ez eben zirkinik egin.




## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Alegiako personaia bat Menditzarra da. Zer esan gura dau -tzar atzizkiak? Zelan erabilten da? Emoizuz beste adibide batzuk.
2. Alegiako personaiek ez dabe zirkinik egiten. Zer esan gura dau zirkinik egin formeak?
3. -ik partitiboa darabil Mikelek alegia honetan. Zertarako erabilten da partitiboa?

## ULERTU DOZU?

1. Agertzen da oposiziorik alegian? Non? Zer adierazoten dau?
2. Lortzen dabe zeozer Menditzarrek eta Menditxok? Zergaitik? Emoizu eretxia.

## SARIKETA NAGUSIA



—Ez hoa hi, Bizkuter, arineketara ala?

—Ez. Zahar egin nok ni horretarako.

—Arineketari asko batu ei dituk aurten.

—Bai, hurrean.

—Arineketa ikustera be ez hoa ala?

—Etxakiat, ba. Telebisatu egin jabeak, ez tok?

—Baietz uste joat.

Arineketari asko be asko batu dira batu be aurten Lasterbiden. Inozkorik gehien, *Sariketa Nagusia* irabazteko asmoz.

Meta ondoko motor-hotsak eta keak ez dau azkenik.

Han dagoz, arineketa hasteko prest, Ferrari, Porsche, Ford, Alfa Romeo, Fiat, Seat, Mercedes, Jaguar, Renault, Rolls Royce, Doge, Austin, Citroen, Peugeot, Simca..., eta abar eta abar, euren laguntzaileakaz. Han dagoz Tanke eta Traktor be, besterik ezean *acesit* bat

irabazteko ustetan.

Epaimahaiko batek tipo bat bota dau.

Hasi da arineketa. Eta hor doaz arineketari guztiak zein baino zein arinago eta zaratatsuago.

Espikerra be, Papagai entzutetsua, zarataka dabil.

—Ikusi, ikusi. 1 doa lehenengo... Ez, ez, parkatu, 2 doa orain. Hau arineketa! Ikusgarria benetan! 36 eta 37 atzean gelditu dira. 31 doa orain lehenengo, 32, 33 eta 34aren ondoren; 15 hurrengo... Urten egin dau bidetik batek..., O da. Urten egin dau eta hiru-lau aideko buelta emon ditu. Baina hau miragarria! Begira, aurrera doa, eta sartu egin da barriro be bidean, eta 1 eta 2ren atzetik, bai, 1 eta 2ren atzetik doa orain. 120 agertu da berehalaxe. Hau arineketaren arineketa! Nork irabaziko ete dau? Nork jakin? Onenak irabazi dagiala... AIZETArekin. AIZETA! AIZETA! AIZETA!

Hau haizearen ederra Uriburuko kale artean hartzeko! AIZETA! AIZETA! AIZETA! Salgai edozein dendatan... Emon dabe lehenengo buelta arineketariok. Bigarrena be laster emongo dabe. 31 doa orain be lehenengo...

Iskilu joan da epaimahaikoen ondora, eta alkarrizketan dihardu harek hareekaz. Zer gura ete dau?

Tankeri eta Traktorri buelta bi baino gehiago kendu deutsez arineketari batzuk. Hiru be bai laster.

Galderaren bat egin deutse, antza, Iskiluk epaimahaikoei, baiezka eta ezezka jabilkoz hareek eta. Baiezka eta ezezka, baina azkenean danak baiezka, Iskiluren aurpegi haserretua ikusi ondoren. Alde egiten dau Iskiluk.

Hamar buelta asko dira baina, arin ibili ezkerro, behingoan egiten dira.

—Hor datoz barriz be arineketariok... Azkenengo buelta da oraingoa lehenengo doazenentzat, azkenengo buelta... —dino orroeka Papagai espikerrak.

—Nor dator lehenengo? —itanduten dau batek.

—Ferrari dala uste dot —ferrarizale batek.

—Doge dator —dogezale batek.

—Badatoz, badatoz metarantz... 1, 2, 3, 4, 1, 2, 3, 4; 5, 6, 7, 5, 6, 7..., zeinek, zeinek irabazi...? Badatoz, badatoz... —espikerrak.

Tanke eta Traktor datoz lehenengo metarantz (hiru buelta gitxiago eginik, jakina), eta txaloka hartzen ditue ikusleek. 1, 2 eta 3 datoz hareen atzetik. Igaro dira metatik Tanke eta Traktor. Sartu dira metara 31, 32, 40 eta 37. Bozina eta motor hots ikeragarria entzuten da.

Gelditzeko agintzen deutse Iskiluk Tankeri eta Traktorri, eta epaimahaikoenganantz doa barriro be.

11, 34, 22 eta 1 be sartu dira metara. Baita 8, 3, 29 eta 14 be. Gehienak sartu dira; O ez oraindino.

—Heldu dira metara, heldu dira. Nork irabaziko ete dau? Laster esango deuskue epaimahaikoei —dino Papagaik.

—Nork irabazi? Ez dakizu ala? Ez al dozu begirik? 31k irabazi dau —ferrarizale talde batek.

—Isilik, mesedez, isilik! —Papagaik.

Ez deutso inork entzuten. Edo entzunda be, jaramonik ez behintzat, ez da inor isiltzen eta.

Halakoren baten, epaimahaikoen buru danak hartzen dau mikrofonoa, eta isiltzeko agintzen dau. Eta esan eta izan, bat-batean isiltzen dira danak. Orduan, hauxe esaten dau mikrofonotik epaimahaikoen buru danak:

—Isilik, mesedez, eta entzun! Aurtengo *Sariketa Nagusia* Tankek irabazi dau. Bigarren Traktorrek egin dau. Eskerrik asko guztioi eta zorionak irabazleoi!

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Topau eizuz berba honeen sinonimoak: Arineketa, hurrean, miragarri, itauna, orroe, barriz.
2. Atera testutik atzizkidun berbak, eta esan zein dan atzizki bakotxaren esangurea: -keta, -ketari, -ketalari, -ka, -tsu, -garri, -gai, -zale.
3. Zein esaldi mota dan esan.
  - Eta hor doaz arineketari guztiak **zein baino zein arinago eta zaratatsuago**.
  - Onenak **irabazi daiala**.
  - Edo entzunda be, jaramonik ez behintzat, **ez da inor isiltzen eta**.
  - Orduan, hauxe esaten dau mikrofonetik epaimahaikoen buru **danak**.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren gaia?
2. Azaldu eizu hurrengo lerroetan alegiaren laburpena.
3. Zeren sinboloa da Iskilu? Zein da alegiaren barruan daukan funtzinoa?
4. Zelango garrantzia hartzen dau alkarrizketak alegian?
5. Alegia hau besteakandik aldentzen da. Zer dauka alegia honek beste batzuk ez daukiena?

## TXORIAK ARRANO JAUNARI



*Hementxe datza  
Arrano jauna,  
jaun aberatsa  
eta ezaguna.*

*Jan eta edan  
eta ondo bizi,  
hainbat urtetan  
dogu ikusi.*

*Ai, lehenago  
hil balitxaku...,  
txarto egongo  
ginan gaur gu.*

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Datza* dino bertsoak. Ze aditz forma da? Aztertu eizu.
2. Eta beste hau? *Hil balitxaku*. Aztertu eizu.

## ULERTU DOZU?

1. Nor da Arrano Jauna? Zer irudikatzen dau?
2. Zer irudikatzen dau txoriak?
3. Zergaitik dinotso Txoriak Arrano Jaunari lehenago hil ezkerotxarto egongo lirakeela?

## URAREN HILETA



Erreka hegaletako haltz, sarats, leizar eta sasi kirikolaztuak zoroen sinuak egiten dihardue haize hozkirriaren besoetan. Sinu zoro ikaragarriak!

Inauterietako mozorroz jantzi ditu ur gaixoak, goitiko eta behetiko, azkenengo euritearen ondorengo goraldi bulartsuan.

Kosmetiku barri koloretsuz apaindurik dabe zugatzek euren berezko edertasun ederra, liraintasun klorofilatsua, gaurko neskatala lerdan pailazotuen antzera.

Zeintasun, zertasun eta nortasunik gabe, barregarriak eta negargarriak erreka hegale-tako zugatzok! Udabarriko jantzi dotore lora-tsuen orde, pintura eta ikatzez egindako jantziak ditue, buztin zatarrezko jantziak. Eta edergailu asko (uraren ume galduak) belarri, papar eta eskuetan, sorki zaharrez, plastikoz-

ko botilaz, paperez eta gomaz egindako pitxi nabarmenak.

Ikusgarria benetan erreka hegaletako haltz, sarats, leizar eta sasien kalejira itun eta geldi hau, ur gaixoaren ondoan!

Kiratsa eta barautsa dariola dago ura. Eta txiplitxaplakadaka dabil iges egin nahirik.

Hil aurreko lozorroan egon da. Baina arrainkari ameslari batzuk iratzartu dabe. Eta jauzika eta jausika, nonbaitera joan gura dau; muna gainetara igon nahi dau... Baina ezin. Ezin, hil aginean dago eta.

Usteldurik dau bere haragia. Ez dau odolik bere zanetan. Ezta indarririk be bere eskuetan... Bihotzekoa dau, garnuena dau, bularretik dago, asmena be... Zer ez?

Muna gainetara igoteko eginahalak egin arren, jausi egiten da, behin eta barrero,

munak hatsez eta bitsez txipristindurik itxi ondoren. Arnasoska eta zotinka dabil, atsozahr baten antzera. Egon be atsozahartuta dago, tximelduta, tximurrez beterik.

Burutik egiten dau baina, argialdia dau orain. Eta lehena jatorko gogora, lehena, zaharrei etorten jaken lez.

Gaztea zan orduan, gazte urduri ameslaria, etorkizunaren itxaropen gozoa. Eta gaztetasuna eta edertasuna gainezka borbor zitualarik, kanta kantari kantore, aurrera joian beti bere bidean, aurrera karabillkatsu, sugelandara bat bezala, zoro-zoro.

Behin baino sarriagotan etorten jakozan olerkariak bere ondora, eta maitemindurik, maitezoraturik, laztanka eta hitz gozoka agurtzen eben.

*Itxaropenezko emai ibilgarriz,  
errekaz erreka eta kanta kantari,  
bihotza leher, taupadaka, eskaintza betean...  
O, ene haitzarteko iturburu apal,  
mendiaren ugatz, iturrino iturri,  
borborka, sorburu gardenez sortua,  
egon ezinezko oinaze, minduraz...,  
ai!, nora hoa hain artega igesi?*

Bat-bateko hitz-jario loratsu ha entzun ondoren, berak be olerkiz erantzuten eutsen olerkariei. Zelan ez, ba, olerkarien iturria eta etorria zan eta aldi zoriontsu haretan?

*Itxasorako bideratze behartuan,  
ibai ondoko lur bazterrak ezetuz*

*eta, loreekin ederzale, berrimin,  
aurrerantz noa amets hausnarrean,  
ilargi, laino eta goiko izarrekin,  
bideetako egunkera ezbardinez,  
aurrera noa, bai, bizitzarekin kutunka,  
betikotasuna darion oihartzunez.  
Aurrerantz noa, bai, geraka, berez,  
dana gibel, dana goi, atzean itxiz:  
neure lur, neure izar eta landara,  
unero neure bizitza igeskorra  
ikutu arin, goraldi minkorretan  
zuztarrik zuztar, ur tantoka barnetuz,  
beti urduri, beti, bai, berrizale,  
beti aurrera amets itxaropenez,  
bihotzaren edergai, zatirik onenak,  
bidezko lore eta zugatz artean  
betiko erein eta betiko erantziz.*

Gaztea zan orduan, eta gazte ikusten eban dana bere begi garbi eta argitsuz. Baina orain zikindu eta lausotu egin jakoz begiak. Lehena-goko zidarrezko jantzi ispilutsuak be kendu egin deutsiez eta legenar itsusiz jantzi. Sosa eta potasaz nasimasiturik dau odola, eta kristalez, plastikoz, ojalataz eta zimaurrez ernariturik, izorraturik bere sabela. Amuarrainen paradisu izandako sabela, ur basati aberatsen sabela, amuarrainen inpernu bihurtu jako; eta arratoien inpernu izandako sabela, arratoitzar zikin higuigarri ugarien paradisu.

Noizean behin apur bat barritu eta bizkortu eta adoretu arren goraldietan, bereak egin dau. Baina zergaitik? Ez ete da konturatu inor bera hil ezkerok... Ez al dago osagilerik?



Zuzentzailerik? Hiltzaile bihurtu al dira guztiak? Zergaitik? Zoroak halakoak! Ikusiko dabe laster... Non dira nire amuarrainak? Non dira nire jantzi gardenak? Non? Hau estua eta larria! Hau bakardadearen bakardadea! Ai ene! Egin on... Baina.... Zer? Nor? Nora? E? Zergaitik? Ai, bardintasun bardinean bardinagoaren bardinkerien menpean dagoanaren errukarria! Mama, mama gozoa gura dot. Amatxo! Egarri naz. Mama, mama...!

Burutik egiten hasi da barriz be. Dizdizka ditu negar anpuluak bere begi beilegietan. Negar malko kimikuak. Gazte drogatuena begirakunea dau, tristuraz gainezka. Azken arnasetan dago, antza.

Lantegietako adarrek ito egiten ditue uraren arnasa larri eta estuak. Eta arrainkariak haltz baten adarretik eskegita itxi daben transistorea kantatzen hasi da, uraren hileta mingots samingarria kantatzen, penarik gabe, abade batzuen antzera.

*Gure ibaiak*

*gure errekek  
ur ustelduak,  
zornia daramatela  
sabelean,  
gure animaren  
zornia*

*daramatela*

*gibelean.*

*Esan diezaiegun hiri ederretako*

*ahaldun jaunei*

*bakoitzak ahal duena*

*ematen duela,  
bakoitzak bere izakeraren  
seinalea:  
sua eta kea,*

*sosa, potasa,  
sulfatoak,  
sulfitoak,  
bisulfitoak,  
trisulfitoak*

*eta*

*beste*

*zerbaiten*

*usain*

*leuna.*

*Joango dira*

*joaten dira*

*ur horiek*

*itsasora.*

*Eta gure lotsa*

*nolabait*

*estaltzen da*

*izkutuaren itzalean.*

*Herri eroria,*

*herri ezereza,*

*herri ahuldua,*

*arraza eta kuraia galdu zituan*

*herri tristea:*

*hor dituk,*

*hor doazik*

*hik merezi ditukan ur ilunak,*

*hik sortutako*

*lokaztegi lirdinga horiek...*

*Begira hitzak,*

*eta egin zak kontu*

*hire animaren ispilu direla.*

Loak hartu dau ura. Betiko loa ete?  
Lantegiek intzentsu baltzez lurrinkatzen  
dabe. Organua joten dau, bien bitartean, tru-  
moiak.

Erreka hegaletako haltz, sarats, leizar  
sasien kalejira, hiletajira bihurtu da.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA


1. Argitu eizu berba honeen esanahia: Hozkirri, sorki, barauts, lozorro, zan, karabilkatsu, geraka, lausotu, izorratu, zorne, lokaztegi.
2. Erreparau forma honeei eta komentau eizuz.
  - Bereak egin dau.
  - Burutik egin.
3. Ume hizkerea be agertzen da alegian. Non? Zer adierazoten dau?
4. Mikelen lexikoa aberatsa dan aldetik, alegian bertan berba bardiñtsuak eta kontrakoak erabilten dauz. Atera eizuz testutik kanpo.
5. Non ikusten dozuz Mikelek erabilten dauzan hitz jokoak?

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegia honetako gaia?
2. Zeren kritikea egiten da alegian? Hasieran agertzen da, ala ez da azkenerarte ikusten?
3. Nortzuk dira personaiak? Zein da nagusiena?
4. Zer gertatzen jako personaia nagusiarri? Azaldu lerro gitxitan alegiak kontetan dauana.
5. Personaiak zuzenean egiten dabe berba? Badago narratzailerik? Zein da bere funtzinoa?
6. Ze teknika erabilten dau Mikelek alegian?
7. Olerkian uraren oraina eta lehena kontetan dira. Zelan datoz egituratuta?

8. Nor da, uraren eretxiz, berari gertatzen jakon guztiaren erruduna? Zergaitik? Non ikusten da?
9. Irakurri eizuz alegian agertzen diran esaldi honeek? Zer adierazoten dabe?
- "Bat-bateko hitz-jario loratsu ha entzun ondoren, berak be olerkiz erantzuten eutsen olerkariei. Zelan ez, ba, olerkarien iturria eta etorria zan eta aldi zoriontsu haretan?"
  - "Noizean behin apur bat barritu eta bizkortu eta adoretu arren goraldietan, bereak egin dau. Baina zergaitik? Ez ete da konturatu inor bera hil ezker... Ez al dago osagilerik? Zuzentzailerik? Hiltzaile bihurtu al dira guztiak? Zergaitik? Zoroak halakoak! Ikusiko dabe laster... Non dira nire amuarrairak? Non dira nire jantzi gardenak? Non? Hau estua eta larria! Hau bakardadearen bakardadea! Ai ene! Egin on... Baina.... Zer? Nor? Nora? E? Zergaitik? Ai, bardintasun bardinean bardinagoaren bardinkerien menpean dagoanaren errukarria! Mama, mama gozoa gura dot. Amatxo! Egarri naz. Mama, mama...!"
  - "Amuarrainen paradisu izandako sabela, ur basati aberatsen sabela, amuarrainen inpernu bihurtu jako; eta arratoien inpernu izandako sabela, arratoitzar zikin higuigarri ugarien paradisu"
10. Alegia guztian zehar, konparazioak agertzen dira. Non? Atera eta komentau eizuz.
11. Hainbat personifikazio agertzen da. Non?
12. Emoizu gai honen gainean dozun eretxia.

## TRENA ETA AUTOA



Barre egiten deutso auto gazte batek tren zaharrari, biak parean, bata trenbidetik eta bestea kaminotik, aurrerantz doazalarik.

—Zeure bidetik pozik zoazala dinozu? Zaharren kontuak! Bide bat hartu eta hari jarraitu. Aspergarri egingo litxakit niri beti bide bardin batetik ibili beharra. Behin hemendik, behin handik, orain hona, gero hara..., bestelakoa da hau, gora eta behera askatasunez ibiltea.

—Bai, egia da. Baina behin bide bat, gero beste bat eta horrela ibiltea be arriskutsua da. Ez uste askatasun gehiegi be ona danik.

—Ez da izango baina, beti bide bardina be gogaikarria da.

—Gogaikarria zuretzat izango da. Niretzat ez.

—Jarraitu, ba, jarraitu zeure bidetik, pozik bazoaz. Nik ez dot nahi horrelako biderik. Agur.

Eta agur esanaz batean, urten egin dau autoak bidetik, eta barranku batera jausi da. Haitz punta bat jo, arte ipurdi bat jo, bilinboka ibiltaldia egin ondoren, harriarte baten geratu da, mailatu-mailatu eginda.

Tren zaharra mendipeko tunelera sartu da, eta aurrera doa bere bidean.

Beste auto bat be jausi da barrankura. Gelditu egin da beste bat bide bazterrean. Gara-jera daroe, zauriturik, laugarren bat. Hilerrira, bosgarrena.

Urten dau tuneletik trenak eta, txaka-txaka txaka-txaka, aurrera doa bere bidean.

Trinkilin-trankalan, aldoka-maldoka, topoz topo, aurrera doaz auto gazteak be tren zaharren ondotik.


## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Berba honeen sinonimoak topau: Parean, gogaikarria, mailatu, kamino, barranku.
2. Mikelek darabilen lexikoa aztertuta, gauza bat esateko berba diferenteak erabilten dauzala ikusi daiteke. Atera eizuz testutik berba horreek. Zer lortu gura dau horregaz?
3. Oposizino argi bat ikusten da Autoa eta Trena personaien artean. Zer irudikatzen dau bakotxak?

## ULERTU DOZU?

1. Zer adierazoten dau Mikelek alegia honetan?
2. Ze irakatsi emoten dau egileak?
3. Ze ondorio ateraten dozu? Emoizu zure eretxi kritikoa.

## ZERBITZARIEN ZERBITZARI



*Erdoi baltzeko burdin-arantza  
larra inguruko elorri;  
zeru urdinez bero horizka,  
larran lur lakarra gorri.*

*Bedar berdeak, bedar guriak  
erre egin dira, erre;  
ardi otzanak Matxinen larran  
haserre dagoz, haserre.*

*Txutxu eta mutxu, ixi eta mixi,  
haserrearen bildurra;  
gizen eta mizen, nasai eta masai,  
aurrean daben txakurra.*

*Zuri eta gorri, gorri eta zuri,  
estukuraren kolore;  
bildur itoa leher indartsu...,  
berehalaxe adore.*

—Txakur jauna! Sumindurik eta samindurik gagoz atsekabearen atsekabez, eta guztiz nekaturik. Itota gagoz esparru honetan eta gorriak ikusten doguz lur gorri lakar honen agortasunean. Ez al dago beste landarik, beste bedarlekurik, beste barrutirik, nasaitasun handiagoz bizi izateko? Esparru ito honetan bizi izango al gara beti?

Zure eta gure ugazabagana joatea nahi dogu, argi eta garbi egia esatera. Gure bildotsak, gure artile, gure esne, gure haragi..., emoten deutzaguz. Gure bizia emoten deutzagu. Eta zer emoten deusku berak? Gure esparrutik kanpora agiri diran larra ederrak...? Bai zera! Larragorriak bakarrik.

Zuri zeuri be zeozer esan behar deutzugu. Nahiz eta zu haserratu, preminazkoa dogu eta. Hara: zuk ez deutzazu ezer emoten ugazabari eta berak, ostera, guleria guztiak egiten deu-

tsuz zuri; beragaz ibili, beragaz jatekorik gozoenak jan, beragaz ondo eta nasai bizi, bizi, bizi... Eta gu esparruan, hesi barruan, esparruan gosekilik, esparruan bizi ezinik, bizia emonez, esparruan egon behar. Eta haserre gara...

*Goikoa goian, berezko lege,  
behekoen onerako;  
muna gainean dago txakurra  
ardien zerbitzurako.*

*Ardi larrien errenkurak  
arretaz ditu hak entzun;  
behekariak zaunka isildu,  
eta aita bihotzez erantzun.*

—Bai, egia da. Errazoia dozue. Badakigu, ondo jakin be, nire ugazabak eta nik. Eta al bait arinen atera gura zaituegu egoera estu eta larri horretatik. Bai, horretan gagoz aspaldion.

Baina zuok uste dozuen adina erraza danik ez uste. Arduratan gagoz, eta laster egingo dogu zer bait zuen alde. Pazientzia apur bat bien bitartean, pazientzia apur bat..., eta zen-

tzunez jokatu. Galduak zarie, bestelan, galduak...

Zer, ba? Zer uste dozue, ba? Arerio asko dagoz zuen inguruan, zuek hondatu gurarik, arerio gaizto asko. Ez al zarie konturatzen? Zenbat otso, zenbat azeri, zenbat... arerio zuen ingurumarian! Bazenkie ondo...! Baina hementxe gagoz gu be, hementxe zuen ondoan, lapurrakandik zuek zaintzeko, arerio guztia-kandik zuek jagoteko. Izan be, zer egin daikezue zuok, bakarrik? Zer zuok gure laguntasun barik? Ezer be ez, gaixook! Gu, zuon zerbitzariok zuen ondoan egon ezik, zuen artile, esne eta bildotsak ezeze, zeuok be txarto ibiliko zinatekeze, nora joan ezean, zer egin ezean, zer jan ezean...

Zagoze, ba, isilik eta geldi, mesedez. Eta pazientzia pixka bat. Laster etorriko da ugazaba, laster. Eta ez da ugazaba haserratzerik komenidu. Ez horixe. Bestelan...

*Gogorkeriak gogorkeria  
berehalaxe dakar;  
ardiak larran hesi barruan  
isil, geldi, larri, bakar...*



## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Emon berba honeek beste modu batera: Otzan, elorri, lakar, agortasun, arduratan egon, pazientzia.
2. *Gorriak ikusi* dino Mikelek alegian. Zein da bere esanahia? Ezagutzen dozu beste esamolderik?
3. Txakurrak behekariak zaunka isiltzen dauz. Zelan esango zenduke *zaunka* beste modu batera? Txakurrak zaunka egiten dau. Esan beste animalia honeek zelan egiten dabeni: ardiak, katuak, astoak, oiloak, txoriak, behiak, igelak.
4. Irakurri pasarte honeek eta komentau zer adierazoten dauan Mikelek. Zerez baliatzen da lortzeko?
  - Itota gagoz esparru honetan eta gorriak ikusten doguz lur gorri lakar honen agortasunean.
  - Ardi larrien errenkurak arretaz ditu hak entzun.
5. Esaizu zein motatako esaldiak diran hurrengo honeek.
  - Gure esparrutik kanpora agiri diran larra ederrak.
  - Baina zuek uste dozuen adina erraza danik ez uste.
  - Nora joan ezean, zer egin ezean, jan ezean..

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren gaia?
2. Irakurri eizu barriz alegia, baina oraingoan bertsoak bakarrik. Ze ondorio ateraten dozu?
3. Zelango hizkera erabilten dau Mikelek? Zergaitik egiten dau hori? Zelan lortzen dau?
4. Alegia hitz bategaz amaitzen da: "Bestelan..." zer erakutsi gura dau idazleak horregaz?

## INURRI-PILO PIRAMIDETUA



e  
zu  
batu  
tabota  
gizarobota  
batubotatabete  
botatabeteporlanez  
harriburдинаetazaborraz  
anuntziotakolorenabarmenez  
etxekalelantegisiglaetazarataz  
botatabetedanainurripiloitxuraz  
betarineketakutsaduraetaestukuraz  
botatabotatabotaetabotainurri-pilora  
irrikituazeuretabizirikereegonezdadin  
momiaturpiramidetuetahilobituzurehirihoriarin  
etagizonafamiliaherriaegitekozoazbarrizbasora

## **DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA**

1. Lehenengo eta behin berbak banandu behar dira. Ipiri eizu piramidea modu normalean.
2. Emoizuz berba honeek beste modu batera: Porlan, zabor, estukura, barriz.

## **ULERTU DOZU?**

1. Zein da inurri-pilo piramidetu honen gaia? Zeren kritikea egiten dau Mikelek?
2. Emoizu eretxi kritikoa.

## ARRANKARIREN BIHURRITASUNA



Egunsentia zan. Udako egunsentia.

Basoaren handiko aldean, oso nagi egoan eguna, erdi lotan. Eta erdi lotan, basoko erreka baten ondoko iluna urratzen hasi zan, astiro-astiro, gogo handirik gabe, aharrausika. Baina oraindino ez zan ezer be ikusten uretan, ura bera be ez.

Azkenengo uluakaz isiltasuna eten eta haresti baten sartu zan gauontza. Saguzar bat be haraxe sartu zan, zizt-zazt, hegazkada oker eta bizkorrez.

Errekako uraren murmur isil gozo batzuk entzun ziran. Sasiarteko bedarpetan egoan erbiak begi biak zabaldu zituan.

Eguna erdi lotan egoan baina, haizea bizkor ebilan, harantz eta honantz, gau lotiaren al-tzoan. Erreka hegaletako bedar moltsoak iratzartu nahirik ebilan. Bizkarrean jotzen eba-zan, kontuz-kontuz, ikaraturik izartu ez eite-zan.

Loguratu egin zan gaua eta, isil-isilik, lotarantz joan zan.

Han, urrinean, kantatzen hasi ziran txori goiztar batzuk. Errekarantz etorzan beste batzuk, arin etorri be. Baina aurrerantz joan ziran, baserri bateko soloetarantz.

Txantxangorriaren kantu apalak eraginda, honen habia itxi eta erreka ertzerantz etorri zan kukua be, eta bertan gelditu, leizar baten adarrean, egunaren zain.

Baetorren etorri be eguna, baetorren. Nagiak atera eta pozik eta arineketan etorren errekarantz, argiz eta berotasunez jantzirik. Haxe zan benetan bat-bateko bizitasun eta apaindurizko ikuskizun harrigarria!

Eguna etorriaz batean, barriz jaio zan iza-dia zoragarriro. Bizi-bizi agertu zan bizia.

Han, hor eta hemen, leku guztietan agertu ziran txoriak, euren abesti alaitsuz eguna eta izadia agurtuz.

Garbi eta urdin ikusten zan zerua bere zabalaren zabaltasun zabalean, hango urrineko mendi-oste batetik irribarrez eta kinuka etorren eguzkiaren argitan. Muskerturik egoan lurra, berde-berde, zugatzez eta bedarrez jantzita eta sakabanaturik egozan etxe zurien teilatu gorritz ederturik. Mendiak, pagadiak, harestiak, artadiak, pinudiak..., baserriak, herriak, uriak..., dana agertu zan ederkiro, Arkadia barri bat sortu izan balitz lez.

Erreka ertzeko lorak be mila kolorez apaindu ziran eta usain liluragarritz bete eben inguru guztia. Hareen ondoko ur gardena ispilutu egin zan, eta ispiluaren azpian..., ez, oraindino ez zan agiri amuarrainik.

Hain zuzen be, erreka zuloko jauregian egozan oraindino amuarrainak, ilunetan. Lo...? Ez. Laster agertu zan amuarrain bat uraren argitara. Poliki-poliki etorren, alde guztietara begira. Baina, dzast, jauregira sartu zan barriro, tximista bihurturik. Zer ikusi ete eban? Zeozer izugarri, antza.

Harizko sare bat egoan errekan, amuarrainen jauregiaren aurreko aldean, arrainkariren batek han jarritakoa amuarrainak atrapatze-ko-edo.

Beste amuarrain batek urten eban jauregitik, ortzadarraren koloreak dizdizka zitualarik. Geldiro-geldiro urten eban eta sarerantz joan zan bildurkilik, arnasea belarrietatik estu samar hartuz. Nork jarri ete eban? Zertarako? Hagin zorrotzak erakutsi eta haginkada bat emon eutsan. Beste bat be bai berehalaxe. Baina gogor egoan sare handi zabal ha, eta

artegatu egin zan amuarrain eder koloretsua. Haurt eta jaurt, hegoei eta buztanari eraginez, jauregira sartu zan arrapaladan, bunbuilo lorratz txiki bat itxirik. Baina ez zan barruraino sartu, antza, beste zortzigaz agertu zan eta, barriz be, sartuaz batean.

Alkarren atzetik etorzan amuarrainok, handi bi eta zazpi txiki, handiak aurretik eta txikiak atzetik, baina aurretik joan gurarik, zoro-zoro.

Usainka eta muzinka, jira eta bira, inguruminguru, han ibili ziran amuarrainok eta amuarrainkumeok sarearen aurrean. Ekitaldia egin eben gero, zizt eta zazt, haginkadaka, sare gogorra urratu, eten, nondik edo handik apurtu nahirik, uretan gora joateko.

—Nik gorantz joan nahi dot, gorantz joan nahi dot —esan eban, erdi negarrez, amuarrainkume batek.

—Euli eta eltxo gozoak dagoz han, besteko aldean —esan eban gosez beste batek.

—Badakit, badakit, enetxook! —erantzun eu-tsen amuarrain-aitak, erdi haserraturik.

Eginahalak egin arren, ezin izan eben ezer egin. Han ibili ziran geroago be urtenbide bat aurkitu gurarik, non edo han urtenbideren bat egongo zalakotan. Baina bila ibili arren, ez eben urtenbiderik topau.

Izan be, oso gogorra zan sarea, hedeak lako-xea, eta ez eban zulorik, zulo handirik. Zulo txikiak bai, asko, zulo txikiz josita egoan eta. Baina ezin handik urten amuarrainak, amuarrainkumeak be ez, honeen gorputzak baino askoz be estuagoak baitziran zuloak. Halanda

guztiz be, ez ete eban sareak apropos eginda-ko zuloren bat? Bai, baeban nonbaiten, sarearen besteko aldean ebulan saltuka amuarrainkume bat eta.

—Nondik joan zara horra? —galdetu eutsan orduan deika amuarrain-aitak.

—Hortik, goragotik..., hortixe dago zulo bat... hortik ez, honagotik... Hortik, hortik, bai. Etorri.

Baegoan egon be beren-beregi egindako zulo bat, enbudoaren antzera eginikoa, alderdi batean zabal eta bestean estu. Butrinoaren zuloa.

Amuarrain-aita eta amuarrain-ama bildur izan ziran lehenengotan handik sartzen. Baina amuarrainkume guztiak, saltu hor eta saltu hemen, besteko aldean euli eta eltxo jaten eta dantzari ebilzala ikusirik, eurak be besteko aldera joan ziran, hareekaz batean uretan gora joateko.

Arineketan igaro eben zulo nabarmen ha, eta amuarrainkumeenganantz joan ziran. Eta hareen ondora helduaz batera dardar jarri zan amuarrain-aita, beste sare bat ikusi ebalako aurreko aldean.

—Zer? —itandu eutsan amuarrain-amak bere hegoakaz haren bizkarra laztanduz.

—Beste sare bat dago hor.

—Ene!

—Urtenbidea zalakoan, sartubidea izan da hori, gu atrapatzeko sartubidea.

—Bai?

—Bai.

—Zer? Zer dala-ta zagoze hor geldi-geldi? —esan eutsen Arrankarik, amuarrainkumerik gazteenak.

—Ezer be ez —erantzun eutsan amuarrain-aitak hotz eta motz.

—Zerbait bai.

—Ikusi beste sare hori.

—Non?

—Ez al daukazu begirik?

—Bai, bai, ikusten dot. Zertarako jarri dabe...?

—Zertarako? Neuk baneki...!

Urtenbide bila hasi ziran barrero be amuarrainok, urtenbide eta igesbide bila, hara eta hona, gora eta behera, arineketa bizkorrak eginez sare zabalaren sabelean, geroago eta estuago eta larriago, gora eta gora joan nahirik uretan.

Halakoren baten, bat-batean gelditu ziran. Erreka ertzeko bedar artean egindako oinotsa entzun eben, kontuz-kontuz eta geldiro-geldiro etorzan arrainkari batzuk ateraten eben oinots motela, motela be motela. Bai belarri zoliak amuarrainenak!

Eurengana hurreratu ziranean arrainkariak, itsumutsuka joan ziran amuarrain guztiak jauregirantz... Baina ezin bilatu lehengo zulorik.

Arrapaladan sartu ziran orduan arrainkariak erreka, eta behingo baten jaso eben butrinoa amuarrain txiplitxaplakariakaz. Eta erreka bazterreko bedar gainean itxi eben.

Arnasarik hartu ezinik egozan amuarrainak, dragoka, zotinka, buztanka...

Butrinoa zabaldu, eta amuarrain-aita eta amuarrain-ama zorro batera bota zituen arrainkariak, euren etxera eroateko edo.

Amuarrainkumeak be eskuetan erabili zituen, zorrora botateko. Baina ez ebezan hara bota. Oraindino txikiegiak ziralako edo, sarean bertan itxi ebezan. Gero, haren zulo guztiak zarratu, eta erre kara eroan zituen barriz be amuarrainkumeak, erdi hilik.

Laster biztu ziran uretan, eta gurasoen bila hasi. Baina, jakina, ez eben gurasorik aurkitu. Urtenbiderik be ez. Euliak, eltxoak, ogi birriak eta abar, oster a, gura eben beste, arrainkariak botata, jan eiezan eta hazi eta loditu eitezan.

Eta egunak joan eta egunak etorri, hantxe bizi izan ziran aurrerantzean amuarrainkumeak, sare barruko amuarrain zurtzak.

Nahiz eta zer jana ugari izan, lehenengotan ez eben jaten ez eulirik, ez eltxorik, ez ogi birrinik, ez arrainkariak emondako ezer, bildurretan egozalako. Gero, oster a, joanak joan, bertakotu egin ziran eta bizi be oso ondo. Arrainkarien lagun be egin ziran azkenean... Baina danak ez. Danak ez egozan pozik han, askakeriaren atseginetan.

Hain zuzen be, Arrankari ez egoan gustura, eta bizirik egoteko lain baino besterik ez eban jaten, eta igesbide bila ibiltzen zan egun guztietan, ordu guztietan ...

—Baina zergaitik ez dozu jaten, ba? —esaten eutsien besteek.

—Nik ez dot hemen biziterik gura.

—Txarto bizi zara ala?

—Bai.

—Zer faltau jatzu, ba?

—Askatasuna.

—Zera faltau jatzu: kopla zaharrak! Hemendik kanpora hobeto bizi izango zarala uste dozu?

—Ez dakit, baina hemen egoterik ez dot nahi. Horixe.

—Eta nora joateko asmoa dozu, ba?

—Kanpora.

—Kanpora...?

—Bai, hemendik kanpora.

—Baina zelan kanpora? Nondik?

—Ez dakit, baina nonondik bai, horixe bai.

—Bai, zeretik!

—Zeretik ez, saretik baino.

—Bai, zereko saretik!

—Ikusiko dozue...

—Ikusi? Hilten ikusiko zaitugu laster, horixe, hiltzen.

—Eta zer?

—Alperreko bihurrikeria da zurea, Arrankari. Ez dozu ezer be lortuko horrela. Alperreko bihurrikeria!

—Edo bihurritasuna.

—Kokoloa ez zaitez izan.

—Gero ikusiko dogu nor dan kokoloa eta nor ez dan.

—Zoroa halakoa!

—Eta zuok ez? Zuok zarie zoroak, zuok.

—Gu? Zergaitik?

—Inoren menpean zagozelako, hiltzeko loditzen.

—Eta zu hiltzeko argaltzen. Bardin da.

—Ez da bardin. Ni ama izango naz laster eta hemendik kanpora egingo ditut arrautzak. Zuok, oster a, arrautzarik be ez dozue egingo.

—Zer, ba?

—Ikusiko dozue...

—Ai, gure Arrankari! Beti ameslari eta abeslari.

—Eta zuok...

—Hementxe egin beharko dozuz arrautzak, nahietanahiez, hementxe bertan.

—Ez horixe.

—Bai horixe, lehenago hil ezik.

—Ez, ez...

—Bai, bai. Zelan bizi jan ezean?

—Neuk jakingo dot zer egin.

—Burugogor hori halako hori!

—Buruarinok halakook!

—Joten bazaitut jo...

Alde egin eban Arrankarik bazter batera. Barre algaraka hasi ziran, bien bitartean, beste amuarrainak.

Erdi barautan bizi ezinik bizi arren, zotz bat lez argal-argal gelditu arren ez eban atzerarik egin Arrankarik.

Esan eta izan, ameslari eta abeslari ebulan eta ustetsu eta itxaropentsu, bakarrizketan.

—Hemendik alde egiterakoan..., bai, arrautza asko egingo ditut, arrautza asko, amuarrainkume asko egingo ditut, arrautza asko, amuarrainkume asko sortu daitezana. Ha izango da poza ha! Amuarrainkume barri asko, eta emeak. Emeak behar doguz, hain zuzen be, emeak. Berrehun ar egon arren, eme bat baino egon ezik..., ume bat edo bi edo hamabi, gehiezez. Baina ar bat eta berrehun eme egon ezke-ro, orduan bai, orduan mila edo bi mila edo hamabi mila ume. Ugaritasun pozgarria! Emeak

behar doguz, emeak, ume asko sortzeko. Ha izango da pozaren poza sare gabeko uretan! Ha bai ha atsegina! Ai! Hau da larria! Erdiminak ete dira? San Antonio!

Baetorren etorri be arrautzak egiteko sasoia. Baina Arrankari sare barruan egoan oraindino, geroago eta argalago eta indargetuago.

Beste amuarrainkumeak, ostera, amuarrain bihurtu ziran, eta geroago eta lodiago, handiago, ederrago eta indartsuago egozan, eta aurretik erabilten eban Arrankari.

Behin baten, beste egunsenti zoragarri baten, jatekorik gabe etorri ziran arrainkariak, eta zorro bat ekarren hutsik. Eta jaso egin eban butrinoa, eta erreka bazterrera aterara. Gero, amuarrainak hartu eta zorrora bota zituen, etxera eroateko. Sei amuarrain eder. Hain zuzen be, ez egoan han zazpigarrenik. Arrankari faltau zan eta.

Iges egin eban Arrankarik butrinoaren zulo batetik. Apurtu egin zalako? Ez. Butrinoaren zulo txikiak baino txikiagoturik egoalako, argalaren argalaz.

Arrankariek butrinoa jaso ebenean, azala eta hazurra baino besterik ez zan bere gorputz estu luzea, haria orratzaren zulotik lez, sare-zulo batetik igaro, eta uretara saltu eban Arrankarik, sarerik bako uretara.

Batera eta bestera begiratu eta, hegoei eta buztanari agudo eraginez, bizkor joan zan uretan gora, aurrera eta aurrera, ameslari eta abeslari, arrautzak egitera.



## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Zure lexikoa aberasteko, topau eizuz berba honeen sinonimo eta antonimoak: Nagi, ikaratu, urrin, arrapaladan, artegatu, barriz, apropos.
2. Atera eizuz testutik atzizki honeek daukiezan berbak: -kada, -pe, -tar, -tasun, -kizun, -garri, -ka, -keria, -tsu.
3. Alegian agertzen diran atzizkiak sailkatu ostean, ea ausartzen zaran bakotxaren esangurea azaltzen. Zertarako erabilten da atzizki bakotxa?
4. Aurreko ariketa kontuan hartuta, guztiz kontrajarten diran atzizki bi dagozala ikusi daiteke, -tasun eta -keria. *Bihurri* berba erabiliz, aztertu eizu atzizkia gehituz sortzen dan kontrajarpaena.
5. Alegia irakurten dozun bitartean, testuan berba bat hainbat modutara aitatzen dauala ikusiko zenduan. Atera eizuz testutik eta komentau eizu zure ikaskideakaz. Zelan erabilten dozu zuk? Zelan erabilten dabe zure ikaskideek? Beste modurik ezagutzen dozu?
6. Antonimoak be erabilten dira testua aberasteko. Zeintzuk topau dozuz? Zuk beste moduren batera ezagutzen badozuz, aberastu eizu zure ikaskideen lexikoa.
7. Alegiatik berba batzuk atera dira atsotitzakaz olgetako. Aukeratu eizu erantzun zuzena.
  - Aharrausi luzea .....
  - a. logura eta gosea.
  - b. pijama eta ohera.
  - c. egun guztirako ajea.
  - Amuarrain handiak...
  - a. arrain berea.
  - b. mokau handia.
  - c. sare biribila.
  - Sareetan arrainekin...
  - a. zaborra eta zikin.
  - b. ez du iges egiten usoak.
  - c. ezin inora joan.

8. Idazkeraren aldetik jantzita zagozan ikusteko, ortografia ari-  
ta bat egingo dozu oraingo honetan. Ipini eizuz S, Z, TS, TX eta  
TZ bakotxari jagokon lekuan.

Egun\_entia \_an. Udako egun\_entia.

Ba\_oaren handiko aldean, oso nagi egoan eguna, erdi lotan. Eta  
erdi lotan, ba\_oko erreka baten ondoko iluna urra\_en hasi zan,  
astiro-astiro, gogo handirik gabe, aharrau\_ika. Baina oraindino  
ez zan ezer be ikusten uretan, ura bera be ez.

A\_kenengo uluakaz i\_iltasuna eten eta hare\_ti baten sartu zan  
gauon\_a. \_aguzahar bat be haraxe sartu zan, zizt-zazt,  
hega\_kada oker eta bizkorre\_.

Errekako uraren murmur i\_il go\_o ba\_uk en\_un ziran. Sa\_iarte-  
ko bedarpetan egoan erbiak begi biak \_abaldu zituan.

Eguna erdi lotan egoan baina, hai\_ea bi\_kor ebulan, haran\_ eta  
honan\_, gau lotiaren al\_oan. Erreka hegaletako bedar mol\_oak  
ira\_artu nahirik ebulan. Bi\_karrean joten eba\_an, kontuz-kontuz,  
ikaraturik izartu ez eitezan.

Loguratu egin zan gaua eta, isil-isilik, lotaran\_ joan zan.

Han, urrinean, kantatzen hasi ziran \_ori goi\_tar batzuk. Erreka-  
ran\_ etorzan beste ba\_uk, arin etorri be. Baina aurreran\_ joan  
ziran, baserri bateko soloetaran\_.

\_an\_angorriaren kantu apalak eraginda, honen habia i\_i eta erre-  
ka er\_erantz etorri zan kukua be, eta bertan gelditu, lei\_ar  
baten adarrean, egunaren zain.

Baetorren etorri be eguna, baetorren. Nagiak atera eta po\_ik  
eta arineketan etorren errekarantz, argiz eta berotasunez  
jan\_irik. Haxe zan benetan bat-bateko bizitasun eta apainduriz-  
ko iku\_ki\_un harrigarria!

Eguna etorriaz batean, barriz jaio zan izadia \_oragarriri. Bizi-  
-bizi agertu zan bizia.

Han, hor eta hemen, leku gu\_tietan agertu ziran txoriak, euren  
abe\_ti alai\_uz eguna eta i\_adia agertu\_.

9. Alegian arbolen izenak agertzen dira. Atera eizuz testutik, eta  
argitu zeintzuk diran. Ziur zure etxe alboan, auzoan, edota ikas-  
tetxetik paraje arbola desberdinak dagozana. Zeintzuk dira?  
Batu eizuz ahalik eta arbola gehienen izenak eta zure ikaskide  
eta irakasleagaz komentau.

10. Baltzez dagozan berbak kontuan hartuta, esan zein motatakoa dan esaldi bakotxa.

- **Halanda guztiz be**, ez ete eban sareak apropos egindako zulo-  
ren bat.
- Baina, bila ibili **arren**, ez eban urtenbiderik topau.
- Baegoan egon be beren-beregi **egindako** zulo bat, enbudoaren  
antzera eginikoa, alderdi batean zabal eta bestean estu.
- Eta hareen ondora helduaz batera dardar jarri zan amuarrain-  
aita, beste sare bat ikusi **ebalako** aurreko aldean.
- Urtenbidea **zalakoan**, sartubidea izan da hori, gu atrapatzeko  
sartubidea.
- Euliak, eltxoak, ogi birrinak eta abar, **ostera**, gura eben bes-  
te, arrainkariak botata, jan eiezan eta hazi eta loditu eitezan.
- Zelan bizi jan **ezean**?
- Berrehun ar egon arren, eme bat baino egon **ezik**, ume bat edo  
bi edo hamabi, gehienez.

11. Orain ea esaldi honeek beste modu batera esateko kapaza zaran. Ikusi daigun.

- Sasiarteko bedarpetan **egoan erbiak** begi biak zabaldu zituan.  
\_\_\_\_\_ **-ak** \_\_\_\_\_
- Dana agertu zan ederkiro, Arkadia barri bat sortu izan  
balitz **lez**.  
\_\_\_\_\_ **moduan**.
- **Nahiz eta** zer jana ugari izan, lehenengotan ez eben jaten ez  
eulirik, ez eltxorik, ez ogi birrinik, ez arrainkariak emondako  
ezer, bildurretan egozalako.  
\_\_\_\_\_ **arren**, \_\_\_\_\_
- Erdi barautan bizi ezinik bizi **arren**, zotz bat lez argal-argal  
gelditu **arren** ez eban atzerarik egin Arrankarik.

**Nahiz eta** \_\_\_\_\_

12. Azaldu eizu labur-labur zer gertatzen dan esaldi honetan.

- Amuarrain bihurtu ziran.

13. Atera eizuz Egite era eta Nor multzoko aditzak. Deskribidu eizuz.

## ULERTU DOZU?

1. Alegia ondo ulertu dozun ikusteko, erantzun itaun honeek.
  - Zenbat amuarrain agertzen dira? Zenbatek lortzen dabe askatasuna?
  - Zergaitik sartzen dira sarera amuarrainak? Zeren bila doaz?
  - Amuarrainak engainatu egiten dabez? Zelan?
  - Zer gertatzen da amuarrain-aita eta amuarrain-amagaz?
  - Noren menpean dagoz amuarrain zurtzak?
  - Zer da Arrankariri faltau jakona? Zergaitik dago hain triste?
  - Zer egiten dau Arrankarik askatasuna lortzeko?
  - Zer gertatzen da azkenean beste amuarrainkumeakaz?
2. Zein da alegiaren gaia?
3. Egizu alegiaren laburpentxo bat. Aldez aurretik eskematxo bat egin zeinke gero erabilteko.
4. Zeintzuk dira agertzen diran personaiarik garrantzitsuenak? Ahal dan neurrian deskribidu eizuz euren ekintzak kontuan hartuta.
5. Honezkero hamaikatxo bider irakurri dozu alegia. Ondo aditu badozu, alde desberdin bi dagozala ikusiko zenduan. Batean lasaitasuna da nabarmen, eta bestean, urduritasuna eta larrialdia. Markau eizuz alde horreek.
6. Ze irakatsi ateraten dozu alegia honetatik? Zure ustez, zein da testuan agertzen dan barbarik garrantzitsuena? Jarri zaitzeze taldeka, eta egizue alegiak eragiten deutsuen gogoeta. Gero gainerako ikaskideakaz komentau.

## BESTE GARI MOTA BAT



Eztabaidaka ikusten zituan beti Zezenlarruk bere auzoko anaiak garia ereite orduan, udazkenean. Gari-haziak bazter baten itxi, eta matrakan ibiltzen ziran zazpi anaiak.

—Nik ekarri dodan gari-hazia da onena.

—Zurea?

—Bai.

—Horrek ez dau ezertarako balio.

—Zagoze isilik, mesedez. Neuk daukadaz hor gari-hazirik onenak batuta...

—Batuta euki arren, batzen jakin behar da lehenengo, eta zuk ez dakizu...

—Zeuk zer dakizu, ba?

—Igaz be neurea aukeratu genduan.

—Zurea? Hori ereitekotan hoba...

—Entzun! Honetara ibiltekotan garirik ez ereitea onena.

—Zoaz hortik! Ez horixe. Zelakoa edo halakoa erein egin behar dogu.

—Ereiten al dau inork orain garirik?

—Oraindino bai.

—Zein ereingo dogu, ba orduan?

—Hauxe.

—Hori ez, hau baino.

—Hori be ez. Neuk batu dodana da onena.

—Zera da.

—Neuk ekarri dodana, orduan.

—Ez.

—Ez horixe.

—Ezta...

—Bai.

—Ez.

—Bai...

Eztabaidaka ibiltzen ziran beti. Eta eztabaida horreek zirala-ta ez zirala, erein be lehena-go baino solo gitxiagotan ereiten eben.

Behinola, eztabaika eabilzan bitartean, ostu egin eutsezan Zezenlarruk hazitarako gari

guztiak. Eta beste gari mota bat erein eban zazpi anaien soloetan, beste gari mota bat erein eban, beste gari mota bat erein eban, beste gari mota bat erein eban..., hau ez.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Alegian zazpi anaiak eztabaidaka eta matrakan dagozala dino Mikelek. Badakizu horixe bera adierazoteko beste modurik?
2. Garia ereiten da alegia honetan. Zer da garia ereitea? Emoizuz, bide batez, beste honeen definizioak: Erein, erne, hazi, landatu, jorratu.
3. Emoizuz esaldi honeek beste modu baten.
  - Batuta euki arren, batzen jakin behar da lehenengo, eta zuk ez dakizu...
  - Honetara ibiltekotan garirik ez ereitea onena.
4. Ipini eizuz aditz honeek batuaz: Zagoze, aukeratu genduan, ereiten eben, ebilzan, ostu egin eutsezan, erein eban.

## ULERTU DOZU?

1. Zegaz identifiketan dozuz zazpi anaiak?
2. Zeren sinbologia da garia?
3. Zein da euren arteko borrokaren errazoa? Zer gertatzen da ados egon ezean?
4. Zein da alegiaren irakatsia?
5. Alegian sano esaldi esanguratsua agertzen da:
  - Ereiten al dau inork orain garirik?
  - Oraindino bai.Kokatu zaituz idazlearen garaian, eta emon zure interpretazioa.
6. Eta gaur eguneko egoerea, antzekoa da ala zelan ikusten dozu zuk?

## TXIMINO ETA TXIMINA



—“NORTASUN! NORTASUN! NORTASUN! Uriburuko dendarik handiena, ederrena, onena. NORTASUN! NORTASUN! NORTASUN! Ez zaitetz numerutu, makinatu, baloitu... Izan zaitetz zeu, nortasundun zeu. Zatoz, erdu, etorri NORTASUN dendara...”.

Oraintxe sartu dira Tximino eta Tximina NORTASUN dendara, nortasunez jazteko.

—Ule luzea, bizar luzea, nortasunaren ezau-garri. Baina garbitu, orraztu, dotoretu, lehenengo eta behin, burua. Non...? NORTASUNen, NORTASUNeko apain-gelan”.

Bere ule luze eta bizar luzeagaz, apain-gelara sartu da Tximino.

—“Mila koloretako ulea, mila koloretako begiak, nortasunaren ezaugarriak. Ule gorria, zuria, beilegia, berdea..., edozein koloretako

ulea NORTASUNen, NORTASUNeko apain-gelan”.

Bere ule labur eta betule laburrakaz, apain-gelara sartu da Tximina be.

—“Zaindu begiak, ibili antiojuak. Antioju gorriak, berdeak, baltzak, urdinak, handiak, txikiak, danetarikoak..., NORTASUNeko BETAURREKOTEGIN. Ikusi, sartu BETAURREKOTEGIRA”.

Tximinek eta Tximinak antiojuak erosi ditue. Kristal berdezko txiki batzuk erosi ditu Tximinok, eta kristal gorritzko handi nabarmen batzuk Tximinak.

—“Nora zoaz arkondara zahar horregaz? Nora marinera zahar horregaz? Gaur ez da horrelakorik eroaten. Inork be ez dau eroaten. Gaur nikiak eroaten dira. Jantzi, ba, arin



modara, gaurko modara. Ikusi NORTASUNeko niki-denda. Nikiak, nikiak, nikiak, gaurko nikiak, nortasunezko nikiak NORTASUNen".

Niki gorri bat hartu dau Tximinok, beilegi bat Tximinak. "Gu gara gu" ipinten dau papar aldean Tximinoren nikiak, eta "Superneska" Tximinarenak.

—"Ez al dozu ikusi oraindino NORTASUNeko PRAKATEGI? Ez? Zertan zagoz, ba? Zatoz eta ikusi neurri guztietako prakak, era guztietako prakak, nortasundunek eroaten dituen prakak. Zure zain dago PRAKATEGI, zure alde dago PRAKATEGI, zure onerako dago PRAKATEGI, zure arduraz NORTASUNeko PRAKATEGI".

Praka zabal kolorga batzuk jantzi ditu Tximinok, praka estu marroi batzuk Tximinak.

—"Abarketarik eta abarkarik ez dau jazten inork gaur. Zegaitik, ba, zuk? NORTASUNeko OSKITEGIAN egon ez zaralako, oinetakoek emoten daben nortasuna zer dan ez dakizulako. Baina nora joan gaur nortasun barik? Inora

be ez. Nortasunduna, ostera, edozein lekutara. Nortasundu zaitetz, ba, NORTASUNeko OSKITEGIn".

Takoi handidun zapata batzuk erosi ditu Tximinok, takoi txikidun bota luze batzuk Tximinak.

—"Niki hutsean ez zaitetz joan inora badaezpadan. Jantzi kanguro arin bat, jantzi trenka bero bat, jantzi..., baina non? KANGUROTEGIn, TRENKATEGIn..., NORTASUNen".

Tabardo bat hartu dau Tximinok, eta anorak bat Tximinak. Baltza batak, berdea bestea.

—"Jantziatarako kolonia, uleatarako txanpua, eskuatarako leungarria, oinetarako hautsa, besapeatarako usain gozoa..., zuk behar dozun guztia eta gehiago, NORTASUNen. Etorri, ikusi. NORTASUN! NORTASUN! NORTASUN!".

Aldaturik, barriturik, gaurkoturik... urten dabe kalera Tximinok eta Tximinak, eta hor dabilz jente artetik jente arte...

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Atera eizuz testutik atzizkidun berbak: -tasun, -tegi, -ga, -garri, -pe.
2. "Uriburuko dendarik handiena, ederrena, onena".  
Ze esaldi mota da hau? Azaldu eizu bere erabilerea.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da gaia? ...
2. Zeren kritikea egiten dau Mikelek alegia honetan?
3. Kontaizu lerro gitxitan zein dan alegiaren argudioa.
4. Eta zure kasuan, zuk be nortasuna galtzen dozu publizidadearen eraginez? Idatzi gai honen gainean dozun eretxia.

## ARRATOIBODA



Katarrek urtero hiltzen dituz arratoi bat edo bi. Pentsutegiko feriatik ekartzen dituz.

Hamaika arratoi bota pozgarri egin da Katar bere etxeak eta adiskideak.

Ondo gizenuriko arratoi bat hil dau aurren be, eta katu asko batu ziran arratoi bota.

Pernil ederrak atera eutsazan arratoiari, jana egin aurretik astiro-astiro ha txikitzean. Oso ederrak. Inozkorik ederrenak. Pozarren egoan Katar. Baita bere etxeak eta adiskideak be. Eta egotea zan.

Arratoi bota egin, eta hurrengo egunean, lehenengo ondo-ondo pipergorritu ondoren, ezkaratzean eskegita ipini zituan pernilok Katarrek. Eta hareei begira egon zan gero, luzaro eta bitsetan. Eta egunak joan eta egunak etorri, ketu, sikatu eta ondu egin ziran pernilak.

Egun baten, giharra zatitxo bana kendu eutsen Katarrek kontuz-kontuz, zelan egozan ikusteko. Eta laster jateko modura egozala esan eutsen bere etxekoei. Baina, ha zoritxararen zoritxarra, ostu egin eutseezan pernilok hurrengo egun baten, ostu. Baina nork? Inork be ez ekian.

Toto alkateagana be joan zan Katar, erdi negarrez, zer jazo jakon esatera. Laster jakingo ebala nor izan zan esan eutsan harek. Baina gaur arte.

Gutziz gogailduta, bihotz jausita dago orain Katar.

Katamixer etorri jako oraintxe bertan erpatitz bategaz. Eta haxe irakurten dago. Bere adiskideek bialdu deusie. Arratoipernil-jan bat egitera joateko konbitea da.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Joan hiztegiara eta topau eizu berba honeen esanahia: *Gizendu*, *pernil*, *txikitu*, *bits*, *ondu*, *ezkaratz*, *sikatu*, *bihotz jausita*.
2. "Hamaika arratoiboda pozgarri egina da" dino alegiak. Zer esan gura dau *hamaika* horrek? Zelan erabilten dozu?
3. Alkatearen izena *Toto* da. Zer da ume txiki batentzat *totoa*? Eta zer berba gehiago ezagutzen dozu ume hizkeran? Zer esan gura dabe?

## ULERTU DOZU?

1. Kasu honetan Katarrek arratoiboda egin dau, baina guk, personok txarribodak egiten doguz. Noiz? Zelangoak dira? Zure etxean oraindikarren txarribodak egiten badira, itandu zelan dan prozesu guztia eta zure ikaskide eta irakasleagaz komentau.

# KAIOLAN JAIO ETA HAZITAKO TXORIA



Adar batetik  
esketa  
esketa

dagoan urrezko kaiola txiki baten jaiotzean txori txiki

h  
e  
g  
a  
z  
e  
g  
i  
t  
n  
e  
z  
d  
a  
k  
i  
z  
u  
n  
t  
z  
o  
t  
z  
e  
s  
t  
u  
l  
u  
z  
e  
b  
a  
t  
e  
n  
g  
a  
i  
n  
e  
n  
g  
e  
l  
d  
i  
-  
g  
e  
l  
d  
i  
z  
a  
g  
o  
z  
a  
n  
t  
x  
o  
r  
i  
t  
x  
o  
r  
i  
t  
x  
i  
k  
i  
p  
o  
i  
t  
o  
r  
i

e  
z  
e  
r  
e  
g  
i  
t  
n  
e  
z  
d  
a  
k  
i  
z  
u  
n  
t  
z  
o  
t  
z  
e  
s  
t  
u  
l  
u  
z  
e  
b  
a  
t  
e  
n  
g  
a  
i  
n  
e  
n  
g  
e  
l  
d  
i  
-  
g  
e  
l  
d  
i  
z  
a  
g  
o  
z  
a  
n  
t  
x  
o  
r  
i  
t  
x  
o  
r  
i  
t  
x  
i  
k  
i  
p  
o  
i  
t  
o  
r  
i

-O,  
zú

hor,  
kaiolaren barruan  
eder eta nasai.  
geldi-geldi  
zagozan

t t  
x x  
o i  
r k

tzotz estu luze baten gainean geldi-geldi zagozan txorit

barruan magnetofonia jarri deusuen gure txori endekatu hori,  
ai, disekatua dirudizun gure txori txiki destxoritu errukarri.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Zer dino alegiak? Banandu berbak eta idatzi dana segiduan.
2. Emoizuz berba honeen sinonimoak: Hazi, eskegita, nasai, endekatu, errukarri.

## EGIEDERKO ALEGI



Lagun asko bizi dira Egiederren. Lagun ezagun asko. Nork ez ezagutu Eleberri, Antzerki, Saio, Ipuin, Kontu, Sermoi...? Mundu guztiak ezagutzen ditu.

Egiederren bihotz ingurua txalet eta apartamentu ederrez loratuta dago, olerkiz eta prosaz, eskuz eta inprentaz egindako txalet eta apartamentu zoragarriak. Eta honeetan bizi dira Egiederko lagunak gehienak. Danak ez.

Alegi, Atsotitz eta Sermoi (Alegi eta Atsotitzen morroia) txabola baten bizi dira, hautsak eta sitsak jandako txabola zahar baten, bazterturik eta erdi ahaztuta.

Eleberri, Saio eta Antzerki, Egiederko jauntxo handikiak, Alegi eta Atsotitzen txabolara joan dira gaur goizean, eta handik alde egiteko agindu deutsee hareei.

—Egiedertik alde...? Baina zer dala-ta alde?

Nortzuk zarie, ba, zuok besterik gabe gu Egiedertik kanpora botateko? —erantzun deutse Alegik.

—Hori, hori! Kanpoko etxera, etxekoa kanpora. Lehengo zaharren esaerak, guztiak jazoerak. Lehen halan, orain holan, gero ez jakin zelan —Atsotitzek.

—Ez egin jaramonik nire aitari. Zaharra be bada eta, erdi txotxoloturik dago... —Alegik.

—Antxina baten gaztea nintzan, orain egin naz agura, emazteak eta umeak be ez nabe ikusi gura. Errementariaren etxean zotza burduntzi, arotzaren etxean, otzarea aurki. Dagoanean bonbon, ez dagoanean, egon. Daukanak dauka, ez daukanak, baleuka. Negua zaharren hilgarria, gazteen zahargarria. Bagendu eta balitz... Ez al dakizue balizko olearen abestia? Entzun, entzun:

*Baneu eta banintz,  
ezaren irrintz;  
bazendu eta bazina,  
ametsaren ezina;  
baleu eta balitz,  
mutuaren bi hitz;  
bagendu eta bagina,  
alperreko ahalegina,  
bazendue eta bazinie,  
egin-nahi hutsaren adiskide;  
balebe eta balira,  
besteen anaiak dira.*

—Aital! —Alegik.

—Aita eta semea tabernan dagoz, ama eta alaba jokoan, hareen etxean... —Atsotizek.

—Aital! Zagoz isilik, ba, apur baten. Gero... —Alegik.

—Gero..., hotz ez dana, bero —Atsotitzek.

—Isilik egoteko, ba, Jesus! —Alegik.

—Jesus dinozu, Jesus? Berba ona da ez bada kunplimentuz. Jesus, Maria eta Jose, beti jan eta... —Atsotitzek.

—Parkatu, Antzerki, Saio eta Eleberri. Holakoxe txotxolo aldikadak izaten ditu noiz-behinka nire aitak eta —Alegik.

—Txotxoloa ni? Baita zera be! Ezertarako be ez nazala gauza uste dozue ala? Hau be bada! Jakina: zaharra, traste txarra... Bai, eta zer? Haizea be zaharra da, ezertarako balio ez dauana, baina bera barik bizi ezin. Eta haizea lakoa naz ni be: arina, biguna, gogorra, indartsua... Lehena, oraina eta geroa naz ni. Horixe, bai. Harritu egiten zaitue nire jakitu-

riak? Ala zorabiatu? Entzun, bada: Herriaren jakintza, ebanjelio txiki, zuen iturri, Egiederrren oinarri..., horixe naz ni. Gazi, gaza, gozo; erraza, laburra, sakona, argia, rimaz eta rit-moz jantzia, buruz ikasia, ezpan-belarri erabilia..., bizitzako liburu pozgarria eta negargarria. Zer ikusi, ha ikasi. Asko daki zaharrak, erakutsi beharrak... —Atsotitz.

—Ez al dozu entzun, Atsotitz, semeak esan deutsuna? Zagoz, ba, isilik, txotxolo gogaitu hori! —Saiok.

—Ba..., alde egin beharko dozue, Alegi, al bait arinen, Egiedertik —Eleberrik.

—Baina zergaitik? —Alegik.

—Lotsagarri eta kaltegarri baino ez zarielako hemen Egiederrren —Eleberrik.

—Zer egiten dozue, ba? Ezer be ez. Eta ezer egin eztekotan, alperrik zagoze hemen —Antzerkik.

—Alperra beti gazte —Atsotitzek.

—Egiederrren, egia edertzeko bizi behar da, eta zuok ez dozue ez egianik ez ederrik sortzen. Ez —Eleberrik.

—Sortu ez? —Alegik.

—Egia? —Saiok.

—Bai, egia —Alegik.

—Egiak ez ditu bide bi —Saiok.

—Egia... —Alegik.

—Egia, surraren ondoan begia. Egia askoren erregarria. Egia biribila da, eta ezin batera osorik ikusi. Egia esateko ez daukat lotsarik; ez deust bete sekula guzurak boltsarik —Atsotitzek.

—Isilik zu, Atsotitz —Saiok.



—Zer da egia zuentzat, ba? —Alegik.  
 —Egi bat baino gehiago al dagoz? —Antzerkik.  
 —Ez, egia bat da beti. Ez egia da hori. Baina alderdi asko ditu, alderdi asko, bai —Alegik.  
 —Zera ditu! —Saiok.  
 —Zereko zeraren zera zertu da zerean —Atsotitzek.  
 —Ez al dozue inoz entzun Budaren parabolea? Elefantearena eta itsuena? Ez? —Alegik.  
 —Zelako parabolea? —Eleberrik.  
 —Begira: behin baten, jaiotzatik itsu ziran gizon batzuk hartu eta elefante baten ondora eroan zituan errege batek. Eta elefante bat zala esan eutsen, aurrean ebena. Eta banan-banan harturik itsuok, elefantearen burura eroan eban lehenengoa, tronpara bigarrena, bizkarrera hirugarrena, hanketara laugarrena, buztanera bosgarrena, eta abar. Zer zan ha itandu eutsen gero itsuoi... —Alegik.  
 —Itsuak ikusgura, herrenak ibilgura, gorrak entzungura —Atsotitzek.  
 —Elefantea zala entzun eben bat-batean danak. "Baina zelangoa da?", galdetu eutsen barriro be erregeak. Eta orduan galdara handi baten parekoa zala erantzun eban buruan egoanak... —Alegik.  
 —Txapela buruan eta ibili munduan —Atsotitzek.  
 —Gomazko tubo lodi bat lakoa zala esan eban tronpearen gainean egoanak... —Alegik.  
 —Txirikitin txonea, Durangon tronpea. Eloorrion buzkantza, Ermuan sedea; Ermuan seda barri, mutilok dantzari, neskak konbidetako libre maspasea. Amak emon baleutso etxeko

lotsea, ez ebalu galduko urrezko boltsea —Atsotitzek.

—Sala baten antzeko zala esan eutsan erregeari elefantearen bizkar gainean egoanak. Tantai batzuk lakoa, hanketan egoanak; inarra bat zirudiala esan eban buztanari ikutu eutsanak; eta abar. Eta orduan... —Alegik.

—Ordua doanean doa mundua —Atsotitzek.

—Isilik! Jarraitu —Saiok.

—Ba, hauxe esan eutsen orduan erregeak itsuoi: "Ederto! Baina esan orain ia zelan izan daiteken batera galdara handi baten parekoa, gomazko tubo lodi baten antzekoa, sala bat lakoa, tantai batzuk lakoa, eta abar. Zelan hainbeste gauza ez bardin gauza bati buruz?". Eta eztabaidaka hasi ziran itsuok, bakotxak bereari gogor eutsiz... —Alegik.

—Bakotxak berea eta bakotxari berea —Atsotitzek.

—Ulertu dozue? —Alegik.

—Bai. Eta zer? —Antzerkik.

—Ba guk be geure egia ikusten eta erakusten dogula. Horixe. —Alegik.

Sermoi, Alegi eta Atsotitzeneko morroia, agertu da. Luzez eta baltzez jantzirik dago, betaurreko zahar batzuk sur puntan noz jausiko ditularik. Bera be zahar egin da.

—Zuek erakusten dozuen egia eta "bapez", bardin. Esatea be... —Saiok.

—Bakotxak berea —Atsotitzek.

—"In ore istorum non est sinceritas". Non da zintzotasuna? Non gure asaba zaharren zuzentasuna? Non...? "Vade retro, Satana!" O, zein dan...! —Sermoi.

—Isilik zu be, mesedez, Sermoi... Gure egiak ezertarako be balio ez badau, zuok dinozue-  
nez, zuok erakusten dozuen egia be nondik hartu dozue, ba? Nondik? Geugandik —Alegik.

—Zuogandik? —Saiok.

—Hona hemen bertan Bilbo! —Antzerkik.

—Bilbao, han be dongeak birao —Atsotitzek.

—Geuk sortu genduan Egieder —Alegik.

—Zoratu egin zara zu be, ala? —Saiok.

—Kirtenkeriak esaten ibili barik, zoaze, bai, eta kitu —Eleberrik.

—Jakina —Antzerkik.

—Baina zer uste dozue zuok, bada. Ezerezetik sortuak zariela...? Berez? Geure odola dozue zuek be —Alegik.

—Baita zera be! Nahiko koplarik da —Saiok.

—Nire aita eta ni hona etorri ginanean, ez egoan Egiederrik. Geuk emon geuntsan hasiera, geuk —Alegik.

—Amaiera be laster —Saiok.

—Kanpora hemendik! —Antzerkik.

—Ameriketako indioei emon deutseen antzera, erreserbatxo bat emoiguzue guri be, besterik ezean, mesedez —Alegik.

—Ez dira faltauko landerrak zure lurraldean. Agindu hau emoten deusut, ba: "Zabaldu zure eskua zure lurreko lander eta behartsuentzat". Txiroa zapaltzen dauanak, haren egilea iraintzen dau. Txiroaz erruki danak, ostera... Bai, ail "Beatus qui cogitat de egeno et paupere: die malo salvavit eum Dominus". Baina madarikatua... —Sermoik.

—Etxe barri bat egin ezkerro... —Alegik.

—Ez —Saiok.

—Ez horixe —Antzerkik.

—Ez —Eleberrik.

Eztabaidaka ekitaldia egin ondoren, Saiok, Antzerkik eta Eleberrik kanpora jaurti ditue, errukirik gabe, Alegi, Atsotitz eta Sermoi. Eta kanpotik ibili dira, hara eta hona, nora joan ezean.

Neure etxera etorri dira azkenean. Bai, oraintxe lehentxoago etorri jataz, eta pozik hartu ditut, eta alkarrizketa luze bat egin dogu, urdaiazpikoa eta intxaurrak janez eta ardao baltz indartsua edanez, bien bitartean. Gero, kantu zahar batzuk abestu doguz eta, jakina, kanturik kantura, tragua barrura.

*Oso arlote bizi gara  
ezin osaturik;  
zenbat aldiz eguerdian  
oraindik baraurik!  
Gaur bai...*

Lo dago orain Atsotitz, eta liburu zahar bat irakurten Sermoi. Berba eta berba dabilte Alegi, eta ni isil-isilik entzuten eta entzuten eta idazten eta idazten.

Gaueko hamabiak dira baina, oso pozik nago Alegiri entzuten, eta logurarik be ez dot.

—Aurrera, Alegi, jarraitu. Amaitu esaten ibili zatxatazana...

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Alegia ondo ulertzeko, lehenengo eta behin, hitz ezezagunak batu eta esanahia aurkitu: Handiki, jazoera, jaramon egin, balizko, aldikada, gauza izan, herrena, asaba, lander.
2. Batu eizuz alegian agertzen diran hamar atsotitz. Zer esan gura dabe?
3. Zer da *atsotitza*? Ziur zure etxean badakiela hainbat atsotitz. Galdetu eta ea bost bat batzeko kapaza zaran zure ikaskideei irakas-teko. Zer esan gura daben ez badakizu, eskatu etxekoei azaltzeko.
4. Zer da *alegia*? Alegia bat zer dan argi ez badaukazu, beste nonondik atera informazinoa.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegiaren esanahi nagusia? Lau lerrotan azaldu.
2. Atsotitz, Sermoi, Alegi, zelan definituko zeunkez personaia honeek? Zein da bakotxak beteten dauan papera?
3. Egizu alegian agertzen diran personaien sailkapena. Bakotxak dinonaren araberrako ondorioak atera. Zer irudikatzen dau talde bakotxak?
4. Nor da alegia honetan irabazlea? eta galtzailea? Zein esalditan ikusten dozu argi hori?
5. Non gertatzen da istorio osoa? Egizu lekuaren deskripzioa.
6. Egileak erabilten dauan egiturea, zelangoa da, aberatsa ala pobrea? Zergaitik?
7. Egilea alde batean jartzen da argi eta garbi. Noren alde dago? Non ikusten dozu?
8. Irakurri barrero balizko olearen abestia. Zer adierazoten dau? Zergaitik deitzen da "balizko"aren abestia?
9. Mikelek erabilten dauan hizkerea zelangoa da, pobrea ala aberatsa? Zergaitik?
10. Emoizu hamabost lerrotan zure eretxi kritikoa.

## HEZI ARREN



—Bai. Denpora askoan ibili nintzan horretan baina, azkenean lortu egin nuen gura izan nuen —esan eban orduan, harro-harro, Otsok, buztanari eraginez.

—Ondo bai gero? —erantzun eutsan Azagarrik, irribarre maltzurrez.

—Oso ondo, Azagari.

—Katu bat hezitea ez da gauza erraza, ba, Otso. Domestikatzailerik onena izan arren be...

—Erraza ez baina...

—Eta geldi-geldi egoten jatzu?

—Zirkinik be ez dau egiten. Estatua bat lez egoten da. Benetan! Jakina, jo edo holan egin ezker...

—Ez, ez. Ikuturik egin barik.

—Baietz, ba! Nahiz eta sinuak egin, nahiz eta zarataka ibili, berari ikuturik egin ezik, geldi —geldi egoten da, taketa lez, eskuetan kandela bat daukalarik. Ikustekoa da.

—Izango da baina, ezin dot sinestu.

—Sinestu ez? Zatoz geurera egun baten. Erdu afaltzera.

—Bai. Baina postura egingo deutsut joan baino lehen.

—Zer? Geldi egon ezetz katua?

—Bai.

—Baietz!

—Ezetz!

—Zer jokatuko dogu?

—Zeuk nahi dozuna.

—Afarria?

—Ederto!

—Baina ikuturik ez egitekotan gero katuari berari.

—Bai, bai. Nik ez deutsat ikuturik egingo. Egon nasai.

—Ba!

—Ba!

—Eginda dago.

—Noz joango naz afaltzera?

—Gura badozu, gaur bertan be bardin.

—Ze ordutan?

—Iluntze aldean, edozein ordutan.

—Gerora arte, ba, Otso. Galdu egingo dozu posturea. Segurutik.

—Galdu? Horixe ez. Irabazi egingo dot. Gero ikusiko dozu. Gerora arte.

Esan eta egin, Otsoren etxera joan zan Azagari afaltzera. Gogotsu eta pozik joan be, posturea irabazteko ustetan.

Prest egoan dana Azagari hara heldu zanean. Eta afaltzen hasi ziran berehalaxe.

Bildots bat atera eban Otsok, beretzat, eta oilanda bat Azagarirentzat.

Mahai gainean egoan hezitako katu hori, jesarrita eta zutunik, katuek egoten dakien lez, Azagariren eskoi aldean. Geldi-geldi egoan, argiontzi bat bezala, bere eskuetan kandela bat ebalarik, biztuta.

Sinu nabarmen eta ganorabako zarata batzuk egin eutsazan Azagarik. Baina ez eban ikararik egin argilari zintzoak.

Barre purrustadaka hasi zan orduan Otso. Azagari, ostera, eztulka hasi zan.

—Okerreko zulotik sartu jat hazurren bat, antza —esan eban, eztul eta eztul, Azagarik.

Eta moko-painelu bat atera eban, behingo baten, boltsatik.

Artegatu egin zan orduan katua pixka bat, eta usainka hasi, surpeko ule luze banakei gora eta behera bizkor eraginez.

Otso be isildu egin zan eta urduritu, bere katu kutuna halan ikusirik.

Irribarre maltzur bat ito eban Azagarik bere barruan.

Geroago eta urduriago egoan katua..., eta, bat-batean, kandlea bota, eta Azagariren plateraren ondoan larri eta estu ebulan saguagana joan zan...

Barre purrustadaka hasi zan orduan Azagari.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Sinonimoak topau: Maltzur, erraz, zirkin, taket, sinestu, postura, gogotsu, ganorabako, barre purrustada, artegatu.
2. Zein motatako esaldiak dira honeek?
  - Estatua bat lez egoten da.
  - Jakina, jo edo holan egin ezker...
  - Nahiz eta sinuak egin, nahiz eta zarataka ibili...
  - Berari ikuturik egin ezik, geldi-geldi egoten da.
  - ...eskuetan kandela bat daukalarik.
  - Baina ikuturik ez egitekotan gero katuari berari.
  - Geroago eta urduriago egoan katua...
  - Azagariren plateraren ondoan larri eta estu ebulan saguagana joan zan.
3. "Zer jokatuko dogu?" dinotso Otsok Azagariri. Zergaitik jokatu eta ez jolastu? Zein da *jokatu* eta *jolasturen* arteko desberdintasuna. Ipini eizuz adibide zehatzak.
4. *Be* hainbat erabilten dau Mikelek. Zelan erabili zeinke *be* partikulea? Erantzuteko erabili eizu gramatikaren bat.

## POZORDU ETA MINORDU



- Ni zu baino luzeagoa naz, Pozordu?  
—Luzeagoa?  
—Bai.  
—Ez zara.  
—Banaz.  
—Baina ez al dakizu, Minordu, bardinak garana? Esakerea danez: ordua ordu.  
—Bai baina...  
—Bai baina..., zer?  
—Esan esan, ia, gizona.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Zer esan gura dabe *pozordu* eta *minordu* berbeak? Zer adierazoten dabe? Azaldu idazlan baten esandu zehatza eta alegiazkoa.



## ERLE ETA MIRU



*Hegaz doa Txori  
haize epeletan;  
hegaz doa Arrain  
ur hotz gardenetan.  
Haizearen altzoan  
eta uraren kokoan,  
hegaz doaz biak  
udako pozetan.*

Hegaz egin gura dau Erlek be. Baina Miru zahar ankerraren erpabetan dago, eta, hegazka eta hegazka ibili arren, ezin hegazik egin, ezin ezelan be.

—Kendu zakidaz, mesedez, nire gaintetik, Miru jauna. Ai! Mindu egiten nozu... Itxi eidazu hegaz egiten...

—Ez. Zure eztenkadak...

—Zapaldu egiten nozu eta.

—Egin behar. Zure eztenkadak...

—Zapaldu egiten nozu eta.

—Egin behar. Bestelan...

—Zer?

—Eztenkadea.

—Ez, ez, ez, Miru jauna. Oker zagoz. Lora-rik lora joan nahi dot nik. Askatu nagizu, ba, mesedez, hegaz egin daidan, ezitia egin daidan, bizi naiten...

—Ez.

—Zergaitik baina?

—Ondo dakizu zuk zergaitik.

—Geldi egon naz ni neure lekuan...

—Geldi? Leku onean geldi zu, gaizto horil!

—Ai!

Miru olgetariaren erpabetan dago Erle. Estu eta larri. Eta, halakoren baten, larriaren larriak eraginda, bere ezten zorrotza atera, eta erpabetik sartu deutso Miruri. Eta, jakina, mindu egin da Miru, eta haserratu. Eta hil egin dau Erle, hil pikukadaka, eta iruntsi.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Ipini eizuz aditz honeek batuaz: Itxi eidazu, askatu nagizu, hegaz egin daidan, bizi naiten.
2. Zer esan gura dabe berba honeek? Bide batez sinonimoren bat emon.  
Garden, anker, eztenkada, askatu, ezti, ezten, iruntsi.

## ULERTU DOZU?

1. Zein da alegia honetako gaia?
2. Emoizu alegiaren argudioa.

## INAUTERI



*A, 1:* Personak numerotu ala numeroak personatu?

*B, 15:* Inauteri, aratuste, zanpantzar...

*X, 3333333333333:* Nor nor dan eta noz eta zelan eta non dagoan eta zer zer dan ulertzen ez dan edo ulertzen danean txarto ulertzen eta dan-dana osorik hartzen dauan magnetofoi handi baten hartu dan Inauterietako mozerro-dun hizketa zirriparratsu oihartzuntsu nahaste-borrastetsuaren hots nekagarritsu!

*F, 3:* Faborez...

*D, 145:* Bai.

*D, 146:* Bai?

*H, 56:* Ez, ez. Eta ez.

*L. 12345678987654321:*

*Binbili-bonbolo, jan eta lo...*

*Errege Frantzian balego!*

*Akerrak kanta,*

*idiak dantza,*

*astoak danbolina jo.*

*C, 1:* Parará, papá, parará?

*C, 2:* Parará, pachín, parará.

*F. OoOoOoOoOOOo:* Fa..., fa..., fa..., fa..., fafa..., fafa..., fafa..., fafafa..., kun..., kun..., do tre..., tre..., tre..., tre..., tretretre..., nean jo..., jo..., jojo..., an da eta..., Fa..., fafa..., fafafa..., bi..., bi..., bibibi..., an mo..., momo..., tor..., tor..., torrrrr..., torrrrr..., ean.

*G, 1:* Astiro-astiro, ez?

*H, O:* Herriaren hitzak.

*H, 1:* Herriaren hitzak.

*B, 4869:* Angulo naz ni.

*B, 4870:* Ba Angulo euskal abizena da. Ez zenkian zanik? Bai, euskal abizena da: *han, gu, lo.*

*J, 36:* Jan Juan, jan jan, jan barik joan barik.

*O, 99:*... no tiene enmienda no. Mundo mundorum per omnia saecula saeculorum.

*D, 100000:* Paleolitikoko erreserbak gaituk gu....

D, 100001: Entresaka ona egingo joan orduan naturalezeak.

D, 100002: Norbera apea izan ezkerotxar-to!

D, 100003: Hori, hori!

CH, 1: EDESA, PERTESA, GURELESA, ZUENLESA.

I, 1: Izena, bai.

1, 22: Izena? Hoba ezizena. Ezizena da izenik onena baino hobea. Ezizenak izana adierazoten dau, lehenagoko izenak lez... Gaurko izenak ezer be ez.

L1, 17: Ai!

M, 5678: Epe!

F, 1000: Efe.

A, 7654: Askatasunik ez, dirurik ez, andra-rik ez..., bota ardaoa, mesedez.

K, 100: Kaka!

W, 100: Mierda!

L, 4: Auto ederra benetan!

A, 1: A...!

E, 1: E...?

I, 1: I...!

O, 1: O...!

U, 1: U...!

Z, 5: A, e, i, o, u. Ama, meriendea behar dogu: bost arrautza eta koipetsu...

D, 48: Test ederra, eta erraza dominora jokatzen jakin ezkerotxar.

S, 698: Eta beste test hau: abcabcabbba-abcabceccce?

W, 234567: Yes.

T, 14: Ito egiten da, bai, gizona hainbeste barri negargarri egunero harturik.

B, 33: Arabako abadearen kapelapean baba garau bi, Arabako abadearen kapelapean baba garau bi, Arabako abadearen...

CH, 500: TRANSA, PERTRANSA, KANSA, MUCHO.

M, 222: Zelakoa gura dozu?

N, 111: Zelakoa...?

M, 222: Hiru eratakoak dagoz: omeleta, tortillea, arrautzopila. Omeleta frantzesak da; tortillea, espainola eta arrautzopila, euskalduna.

V, 555555: Con la cara tapada se dice lo que se siente, sin ella no se siente lo que se dice.

S, 2: Mama darama nire amak.

T, 34: Ekonomikoki ala sistematikoki?

H, 2: Historikoki?

D, 3: Zegaitik...?

G, 89: Ba...

I, 89: Zera...

Z, 987654321123456789:

*Aurtengo ihauteri*

*denbora de tirreteri.*

*Bazterretan anitz eri...*

A, 90: Izan edo ez izan, hor jauk untzea.

B, 37: Zoriontsu izan edo ez izanean be bai.

X, 10: 356 x 468=

Y, 11: a - b=

J, 7867098: Beste test bat? Norena?

K, 97: RAVEN-ena.

B, 33: Akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak adarrak okerrak ditu, akerrak adarrak...

M, 67: Ze ordu?

N, 98: Hamarrak hamar gitxiago.

P, 1: Orduan bapez.

Q, 45: La guerra es el acto más inhumano, siempre baja la bolsa una barbaridad.

L, 98: Latina kendu dabenetik hona ez dot ezer be ulertzen eleizan.

G, 23: Ez?

J, 6: Zuk.

E, 97: Zer?

Z, 888888889999999:

*Kikuri bikuri lakirikon,  
zinko binko larikon.*

A, 1: Dagoanean dagoantxo, ene enetxoa!

B, 2: Aitearen...!

C, 4: Cagüenla!

D, 5: Et, et, et!

E, 6: Ujuju!

F, 7: Arraiopola!

G, 8: Errekoño!

H, 9: Katxondeo mentala.

I, 10: Ja, ja!

B, 33: Katuak sagua, sagua, sokea, sokeak idia, idiak ura, urak sua, suak makilea, makileak akerra, akerrak artoa, akerra ken; baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

U, 36: Haizea ederra? Eta osasuntsua, gainera, mendi honetan! Zergaitik ez ete dabez uri nagusiak honelako leketan egiten?

K, 6: TRIKA, TREKA, TROKA, KAKI, KAKA.

M, 999: Edan, edan likora. Edan ALBORA, likor ederra. Edan likora eta joan autoan edonora. ALBORA! ALBORA! ALBORA!

P, 2: Edukazio aldetik hi be... Bokadilurik txikiena ez dok hartu badaezpada.

P, 3: Txikiena hartuko henduan hi izan bahintz ala? Bai? Ba hor daukak txikien horil Hainbeste kopla...!

R, 1: Eperrapan zapadapan zaper dupun opor?

R, 2: Apari onpedaperrak zupiri ipopurpedi-poa garbubiputzepuko.

CH, 8: Lepenguapajepe ripidipicupulopo.

B, 33: Ur drogatuaaren prosopopeia? Uraren prosopopeia drogatua? Prosopopeia drogatua-  
ren ura? Ur prosopopeiatuaaren droga? Droga urtuaaren... Ala Fantasia likidoa? Ala lobel olde? Ala...

1, 90: Hago isilik, astakume hori!

B, 33: Zer da astakumea, aitatxo?

1, 90: Astakumea? Astoaren umea.

G, 45: Mozorroturik, guzur itxuratan gabilzanean, orduantxe agertzen gara egiazkoenik.

V, 1: La risa, la barbarie, el disimulo, el miedo, la inquietud, la perfidia humana..., eso es el Carnaval.

W, 1: Yes.

Z, 3333333333333333:

*Gaur dala Maria kale,  
Bihar dala Zanpantzart,  
egin dezagun arte  
tripan larruak zart.*

E, 10: Zer?

F, 1: Ezer be ez.

G, 3: Ez?

D, 1: Ja..., ja..., jau..., jauna zu..., zu..., zu-zu..., zuekin.

D, 2: E..., e..., eta zu..., zu..., zure espi..., espi..., espiritua..., re..., rekin.

E, 1000: Bihar goizera arteko meza.

K, 1: Beste gizon guztiak bardinak dira.

L, 8: Minigona horrekin ezin zara sartu elei-

zara, oso hotz dago hemen barruan eta katarrotu egingo zara.

CH, 1: Si?

A, 10: Ez.

W, 20: Verkleidung. Maske...

C, 897654: Ezo etá mu floo.

R, 5: R12, 1500, 850, 4-4, 1430,R10...

T, 1: Izena?

S, 1: Ogino.

H, 2: Publikoki ala marjinatuen marjanean sekretoki?

B, 33: Iputz apezak napar istupez atorra, napar apezak iputz istupez atorra...

T, 31: Hogeita hamaika eskutik euki ezker, jakina.

X, 32: Xabierren xemea xoloan xaltuka.

M, 375: Non?

N, 90: Epe!

Z, 444444444444444444:

*Zalapart hartan zenbat nahaspil!*

*Zenbat karraxi, zer iskanbil!*

*Itsumuka,*

*trunbuluka,*

*jente dena dabil.*

A, 56: Baserririk ez da agiri.

A, 57: Ez. Buda bat bezala dago Madmonen eleizea uriburuaren erdian, eta uriburuko etxeak gurtu egiten dabe ha, haren inguruan belaunikaturik.

A, 100: Inauteritu egin dabe uriburu osoa.

H, 100: Komuniatu egiten dira danak komun komunean; komunzki komuniatzen ez diranak be bai.

K, 1: Noa Bilbora.

TX, 1: Dira asko.

TZ, 1: Nik zuri esango dot.

X,1: Aitari ikusi deusat lehen.

K, 8: Non dagode, bakaldun, txandoneko txindiak?

A, 1111111111: Uda eta udako ikastaroa eta udako ikastaroko gazteak eta udako ikastaroko gazteen gogoak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidea eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen deklinabidekerak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen deklinabidekera zehaztugabea eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen deklinabidekera zehaztugabearen kasuak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidekera zehaztugabearen kasuen atzizkiak eta...

B, 1: Nahiko dok, mutil! Zoratu egingo nok.

D, 9: E?

E, 1: Zer da?

F, 19876: Txarri emea.

C, 99: El Carnaval dura trescientos sesenta y cinco...

CH, 8: Ya, ya.

B, 33: Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz...

N, 974: Halanda guztiz be, ez etsipendu. Izadiak bere legeak ditu.

G, 4: Baina ez dot nahi hilterik.

K, 9: Nork gura dau hori, ba?

L, 80: Estalki bako gizonik non?

M, 1: Gizonak ez dau ondo emoten mozkortu ezker.

G, 7: Hori, ba.

*S, 1:* Gaur askotxo edan dozu, e. Karga handiegia, eta ezin egon zutunik.

*S, 111:* Ez, ez. Karga handiegia ez, txarto kargauta, alde itzela.

*T, 9:* Upealakoa.

*S, 111:* Bueltaka dabil mundua...

*B, 333:* Itxasoaren orroe larriak, transistoreen zaratak, umeen garrasiak, atsoen marmarrak, transistoreen zaratak, itsasoaren orroe

larriak, transistoreen zaratak, umeen garrasiak, transistoreen zaratak, transistoreen zaratak...

*A, 111:* Baina aurrera.

*B, 111:* Ez galdu geurea.

*D, 111:* ABEDE! ABEDE! Ederra, alafede!

*X, 123456789...:* A:Z:K:E:N:A:, 375hryr  
768tjgu 68tjg95, D87jGngut9ñ%\_ (HGTFB=  
%ht8chr6Hgr7f..., H:A:S:I:E:R:A, ba..., ba...,  
go..., az, bagoaz, bagoaz..., A:U:R:R:E:R:A.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Herri kanta asko agertzen dira alegian. Ezagutzen dozu baten bat osorik? Irakatsi eiezu zure ikaskideei.
2. Topau eizuz berba honeen sinonimoak: Inauteri, mozorro, hizketa, zirriparratsu, nekagarritsu, ezizen, makila, iskanbil, gurtu.
3. Orain egizu kontrakoa, hau da, antonimoak emon: Astiro, hobe, erraz, zoriontsu, oker, anitz.
4. Prosopopeia aitatzen dau Mikelek. Badakizu zer dan proposopeia? Topau eizu hiztegia.
5. "Mama darama nire amak" dino alegiak. Zer da *mama*? Eta ume hizkerako beste honeek ezagutzen dozuz?  
Mama, txitxi, punbala egin, atatan joan, txatxa, toto, popota, popak, plisti-plasta.

## ULERTU DOZU?

1. Mikelek anuntzio eta publizidade kartelei tratamendu berezia emoten deutse. Zein? Zer lortu gura dau horregaz?
2. Alegia honetan errekurso herrikoi asko ikusi daitezke. Non? Zertarako erabilten dauz?
3. Irakurri eizu pasarte hau:  
A, 100: Inauteritu egin dabe uriburu osoa.  
H, 100: Komuniatu egiten dira danak komun komunean; komunzki komuniatzen ez diranak be bai.  
K, 1: Noa Bilbora.  
TX, 1: Dira asko.  
TZ, 1: Nik zuri esango dot.  
X,1: Aitari ikusi deusat lehen.  
K, 8: Non dagode, bakaldun, txandoneko txindiak?  
A, 111111111: Uda eta udako ikastaroa eta udako ikastaroko gazteak eta udako ikastaroko gazteen gogoak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabide eta udako ikastaroko gazteen gogo-



ko deklinabidearen deklinabidekerak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen deklinabidekera zehaztugabea eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen deklinabidekera zehaztugabearen kasuak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidekera zehaztugabearen kasuen atzizkiak eta...

• Zer adierazoten da hemen? Zeren kritika egiten dau?

4. Orain irakurri eizu beste hau:

B, 33: Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz, Kanbon palangak pagoz...

N, 974: Halanda guztiz be, ez etsipendu. Izadiak bere legeak ditu.

G, 4: Baina ez dot nahi hilterik.

K, 9: Nork gura dau hori, ba?

L, 80: Estalki bako gizonik non?

M, 1: Gizonak ez dau ondo emoten mozkortu ezkeru.

G, 7: Hori, ba.

S, 1: Gaur askotxo edan dozu, e. Karga handiegia, eta ezin egon zutunik.

S, 111: Ez, ez. Karga handiegia ez, txarto kargauta, aldea itzela.

T, 9: Upealakoa.

S, 111: Bueltaka dabil mundua...

B, 333: Itxasoaren orroe larriak, transistoren zaratak, umeen garrasiak, atsoen marmarrak, transistoren zaratak, itsasoaren orroe larriak, transistoren zaratak, umeen garrasiak, transistoren zaratak, transistoren zaratak...

A, 111: Baina aurrera.

B, 111: Ez galdu geurea.

D, 111: ABEDE! ABEDE! Ederra, alafede!

X, 123456789...: A:Z:K:E:N:A:, 375hryr768tjgu 68tjg95,

D87jGngut9ñ%\_ (HGTFB=%ht8\_hr6Hgr7f..., H:A:S:I:E:R:A, ba..., ba..., go..., az, bagoaz, bagoaz..., A:U:R:R:E:R:A.

• Zeren ganean dabil hemen Mikel Zarate? Zelan interpretetan dozu zati hau? Zein da zure eretxia?

5. Badago narratzailerik alegian? Zerez baliatzen da idazlea ipuina egiteko?

6. Zelan agertzen dira pertsonaiak alegia honetan?

## SAI ETA OTSO



Bela jauna, hizlari ospetsua, hitzaldi bat emoten dabil telebisi-notik.

—... bai, ikusle maiteok, mundu hobeago bat egin behar dogu, hobeago bat. Eta...

—Hobeagoa oraindino...? —erantzuten de-tso bildots hil bat jaten dagoan Sai jaunak, ABEREIL enpresako buru dan Sai jaun abera-tsak.

Bere atzapar sendoz bildots hilari eutsi, eta moko kakodunez haren gorpua urratu eta zati-tu, eta jan eta jan dihardu Sai jaunak, Bikain jantokian.

Halakoren baten, Otso jauna jatorko ondo-ra, aspalditik adiskide dauan Otso jauna.

—Egunon!

—Jainkoak emon!

—On egin!

—Eskerrik asko.

—Ondo, ez?

—Bai, oso ondo Jainkoari eskerrak.

—Baina zer...?

—Zer..., zer? —bildotsaren bihotz usteldua iruntsiz.

—Zuk ez daukazu lotsarik ez errespatorik.

—Zer, ba? —mokoko zikina garbituz.

—Hilen gorpua jan?

—Eta zer?

—Nik neuk, behintzat, ez neuke horrelako-rik egingo. Ezergaitik be ez. Ez horixe Jainko-arren!

—Ez, zuk ez, jakina. Zuk bizirik jaten dozuz eta...

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Mundu hobeia ezin egin dino Sai jaunak. Zergaitik ezin da mundu hobeia egin berarentzat?
2. Zein da zuzena?
  - Egunon!
    - a. Halan ekarri!
    - b. Kia!
    - c. Bai, benetan!
  - Eskerrik asko.
    - a. Zuretzat be.
    - b. Ez dago zergaitik.
    - c. Hori bai hori!
  - Hau nire semea da.
    - a. Eskerrak.
    - b. Emon gorantziak.
    - c. Kaixo. Zelan?
  - Egia da azterketa egingo dozula?
    - a. Behintzat!
    - b. Bakarrik ba!
    - c. Baietz ba!
3. Emoizuz berba honeek beste modu batera: Buru, eutsi, moko, urratu, zatitu, ondora, aberats, adiskide.
4. *Gorpua ala gorputza? Ze desberdintasun dago? Ipini eizuz adibideak.*

## ULERTU DOZU?

1. Zein da Mikelek erabilten dauan kontaketa teknikea? Astuna ala arina egiten da alegia?
2. Kontaizu lau berbatan alegiak esaten deuskuna. Zure berbak erabili horretarako.

## BILDOTSAREN ABESTIA



*Ez dot gura, ez,  
hilterik;  
iraun gura dot  
bizirik;  
baina bildots, neu,  
izanik,  
nahiz eta bizi  
mindurik.*

*Bizi gura dot  
nik be,  
bizi, izanik  
ongile.  
Ez dot gura izan  
hiltzaile,  
neu hiltza da  
eta hobe.*

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Emoizu berba honeen esanahia: Bildotsa, iraun, mindu, ongile, hiltzaile.
2. Bertsoan *-gile* eta *-tzaile* atzizkiak agertzen dira. Zertarako erabilten dira? Ipiri eizuz beste adibide batzuk.
3. Bazara zu bertso bat asmatzeko kapaza? Egizu ahalegina.

## ULERTU DOZU?

1. Zer erakusten deusku alegiak? Emoizu zure eretxia.

## TUTULU



Asto asko dagoz Ekidazun (non ez?). Bat, oster, Tutulu, danetarik astoena.

Egia esan, bera aurrean dagoanean, Tutulu esaten deutse berari baina, bera aurrean ez dagoanean Kirten, Kaiku, Tenteltzar eta hola-koak esaten ditue ekidazuarrek berari buruz.

Kirten kaiku tenteltzar handi bat da Tutulu, izan be, eta kirtendu, kaikutu eta tenteldu egi-ten da edozein ordutan eta edozer gauzagaitik. Eztabaidaren bat sortzen danean batez be.

—Bai.

—Ez.

—Baietz, ba Tutulu!

—Ezetz, ba!

—Neu egon naz hantxe bertan baina!

—Bardin da.

—Egia dala, ba, Tutulu! Holantxe da.

—Ez da.

—Zergaitik ez da, ba?

—Haxegaitik.

—Baina...

—Ez dago bainarik.

—Baina entzun eizu, ba, lehenengo neurea, zeurean itsutu barik.

—Eta zergaitik ez zeuk lehenengo neurea?

—Zurea zer?

—Haxe.

—Ez zaitetz berotu. Neu egon naz hantxe bertan eta...

—Zer?

—Ba, ikusi egin dot.

—Zera ikusi dozu!

—Bai, eta zuk baino hobeto dakit, horrexegaitik.

—Zera dakizu zuk!

—Badakit.

—Ez dakizu.

—Zergaitik?

—Haxegaitik.

—Errazoi galanta! Jakina, ibili be astakirte-nakaz nabil ni eztabaidaka eta...

—Kontuz gero e! Kontuz zer esaten dozun.

—Astakirtenekin nabilela.

—Astakirtenekin zeu ibiliko zara, zeu. Entzun dozu.

Horra hor, Tutuluren zuhurtasuna. Besteari *astakirten* esan nahiaren esan nahiaz, bere buruari esan.

Jakituntzat dauka bere burua Tutuluk, eta beste behin be ikaragarritzko eztabaida bat sortu eban eguzkiaren eta iretargiaren balioa zala-ta ez zala.

—Kokolo handi batzuk zarie danok. Horixe. Kokolo handi batzuk. Besterik ezer be ez. Ez al zarie konturatzen beharrezkoagoa dogula iretargia? Eguzkiak egunez egiten dau argi, behar ez danean, baina iretargiak gauez, argia behar danean. Ikasi, ikasi lehenengo eta gero egin berba.

Bere seme gazteagaz be eztabaidaka ibili zan lehenengo egun baten. Eta azkenean haserratu egin zan Tutulu.

—Zoaz, zoaz nire inguruetatik nora edo hara.

—Zergaitik?

—Kendu zakidaz nire ondotik, mesedez, ostikadaren bat emon ez deizudan.

—Baina zergaitik, aita?

—Joateko, ba, astakume hori!

—Zer da astakumea, ba, aita?

—Astakumea? Kokolotzarra! Zer izango da, ba? Astoaren umea, seme, astoaren umea.

Nahiz eta irakurten dauanetik erdirik uler-tu ez, badaki irakurten Tutuluk. Arrantza egi-ten bakarrik ezeze, irakurten be ikasi eban, hainbeste urtetan eskolara ibili ondoren.

Alegia-liburu batzuk ekarri eutsazan, lehen-go egun baten, bere adiskide batek: *Esopo, Fedro, La Fontaine, Iriarte, Samaniego, Hartzenbusch, Alegizale, Mogel, Iturriaga, Uriarte, Zabala...*

Betaurreko barriak erosi, eta behingo baten irakurri ei ditu alegia-liburuok. Eta irakurten-irakurten ebilelarik, hauxe esan ei eban arrantzaka: "Ba! Pitxikeriak, umekeriak, huskeriak...". Gero, kili-kolo egoan mahai baten hanka bat bardindu eban liburu bat eta erdiaz, eta gainerakoak jesarlekutzat erabilten ditu.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Emoizuz berba eta forma honeek beste modu batera: Berari buruz, berotu, jakitun, ulertu, eztabaida.
2. "Pitxikeriak, umekeriak, huskeriak..." dino Tutuluk alegian. Zer adierazoten dau *-keria* atzizkiak. Asmau eizuz beste bost berba atzizki horregaz.
3. Irakurri forma hau. "Besteari astakirten esan nahiairen esan nahiaz, bere buruari esan". Zein da *Bere burua* formearen tratamendua? Begiratu gramatikaren batean.
4. Tutulu astoa da, eta astoaren irudia temati hutsarena da. Bada-goz euskeraz astoagaz zerikusia dauken atsotitzak. Ea erantzun zuzena aukeratzen dozun.
  - Astoa atzez baino .....
  - a. geldiroago zabilz.
  - b. terkoagoa zara.
  - c. torpeagorik ez dago.
  - Asto asko .....
  - a. lasto asko.
  - b. traturik ez.
  - c. gauza onik ez.
  - Asto bati buztana atera .....
  - a. eta haserratu egingo jatzu.
  - b. eta beste bati sartu.
  - c. eta zuhur ibili.
5. Aurreko ariketa egin ostean, emoizu zuzentzat emon dozun atsotitzaren esanahia.
6. Tutuluk arrantza egiten eban, baina zer egiten dabe beste abere honeek?

Ardiak, behiak, txakurrak, katuak, oiloak, txarriak, zaldiak.
7. Emoizuz esaldi honeek beste modu batera.
  - Bera aurrean ez dagoanean Kirten, Kaiku, Tenteltzar eta hola-koak esaten ditue.



- Nahiz eta irakurten dauanetik erdirik ulertu ez, badaki irakurten Tutuluk.
- Arrantza egiten ezeze, irakurten be ikasi eban, hainbeste urtetan eskolara ibili ondoren.
- Eta irakurten-irakurten ebilelarik, hauxe esan ei eban.

## ULERTU DOZU?

1. Nortzuk dira Esopo, Fedro, Jean de la Fontaine, Felix de Samaniego eta Tomas de Iriarte...?
2. Kirten, Kaiku eta Tenteltzar esaten deutse Tutuluri herrikoek. Mikelek gehienetan ezizenak erabilten dauz bere personaiak izendatzeko. Zergaitik? Zer lortu gura dau?

## BETIKO LELOAREN DURUNDUA



Hasieraren hasiera...?  
Aukera.  
Hasieraren azkena...?  
Onera.  
Azkenaren hasiera...?  
Aurrera!  
Azkenaren azkena  
Hau pena!  
Zergaitik  
betiko leloaren hotsean  
mindura bihotzean?  
Ez dakit.  
Hasiak egina dirudi,  
eginak urregorri...,  
eta ezin egon  
inon  
baketan ni?  
Zergaitik

zure,  
eta nire  
leloaren hotsean  
nator  
ezkor  
atzena emotean?  
Ez dakit...

Bat, bi, hiru eta lau,  
betiko zurrunbiloak iruntsi nau.  
Zurrunba,  
burrunba,  
erremola,  
zirimola,  
dardar,  
negar...,  
idazten,  
esaten:

hasieraren hasiera,  
hasieraren azkena,  
azkenaren hasiera,  
azkenaren azkena...  
Bai?  
Ez?  
Nork jakin...?  
Ekin...?

Alperrik...?  
Norekin...?  
Bakarrik...?  
Geroko geroaren geroak  
sortuko al ditu ni lako zoroak?  
Bat, bi, hiru eta lau,  
geroko geroaren geroak esango dau.

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA


1. Alegia honetan Mikel ezkor dator atzena emoten. Zer esan gura dau *atzena emon* formeak?
2. Atera eizuz bertsoan agertzen diran onomatopeiak, eta esan zer adierazoten daben.
3. "Hasiak egina dirudi, eginak urregorri" dino bertsoak. Zelan interpretetan dozu? Zer esan gura dau?

## ULERTU DOZU?

1. Lehenengo hiru galdera-erantzunak hartzen badozuz, pisu handikoak dirala ikusiko dozu. Zelan interpretetan dozuz?  
Hasieraren hasiera...? Aukera.  
Hasieraren azkena...? Okena.  
Azkenaren hasiera? Aurrera!
2. Zein da Mikelek alegia hau kontetako erabilten dauan teknikea?  
Zer adierazoten dau horrek?
3. Gatx egin jatzu bertsoa ulertzea? Zelango hizkerea darabil?
4. Zer uste dozu, bertso alai ala tristea dala? Non ikusten dozu argi?
5. Zein da Mikelentzat "betiko leloa"?



# ARIKETA OROKORRAK





1. Zer da alegia? Zure berbakaz azaldu.
2. Irakurri arretaz esaldi honeek, egileak idatzitako alegiei jago-kezan ezaugarriak dira. Esan zein dan egia eta zein ez (G/E).

Personaiak ia beti animaliak dira.	
Narratzaileak dauka paper garrantzitsuenetarikoa alegietan.	
Ez da alkarrizketarik agertzen.	
Bere helburua zeozer erakustea da.	
Alegietan beti agertzen da heroe bat.	
Prosaz zein bertsoz idatzitako jazoera txiki bat da.	
Gai bakarra baino ez da lantzen liburu osoan.	
Garai haretan herriak sufritzen eban zapalkuntzak kezkatzen eban Mikel.	
Euskerearen egoerak ez eukan garrantzirik Mikelentzat.	

3. Mikel Zarate nor dan eta zer egin eban jakingo dozu, jadanik. Ia holan dan, eta esan hurrengo esaldi honeek egia ala guzurra diran.

Mikel Zaratek ez eban <i>Ipuin antzeko alegi mingotsak</i> baino idatzi.	
Hainbat lekutako irakaslea izan zan.	
Lan zabala eta ugaria egin eban Mikelek arlo askotan murgilduz.	
"Resurrección Maria de Azkue" saria irabazi eban, besteak beste.	
Herri euskerari izugarrizko bultzakadea emon eutsan.	
Ez eban ikasketa garrantzitsurik egin.	


4. Zeintzuk dira Mikel Zaratek liburu honetan gehien lantzen dauzan gaiak? Zelan tratetan dauz?
5. Aitatu eizuz erabilten dauzan kontaketa teknika desberdinak.



6. Non ikusi daiteke liburuaren sinbologia? Non agertzen da? Paper garrantzitsua jokatzeko dabe sinboloek obra osoan, ala ez daukie inolako garrantzirik? Zer da sinbologia Mikel Zaraterentzat?
7. Zelango hizkera erabilten dau idazleak liburuan? Pobrea ala aberatsa da? Zergaitik? Zeintzuk dira hizkera hau lortzeko erabilten dauzan baliabideak?
8. Aitatu Mikel Zarateren liburuan agertzen diran pertsonaiarik esanguratsuenak.
9. Alegia guztiak irakurri badozuz, ikusiko zenuen Mikelentzat zazpi zenbakiak esangura berezia daukala. Zer erakutsi gura dau zenbaki horrek? Zeintzuk dira hori adierazoten daben alegiak?
10. Idatzi hurrengo lerroetan zer iruditu jatzun liburu hau. Ze ontorio atera daitezke? Egizu akabuko hausnarketa.

# ERANTZUNAK





## BESTELAN ONDO BAINA... EZ?

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1.

A2	B10	C8	D7	E6	F9	G5	H1	I4	J3
----	-----	----	----	----	----	----	----	----	----

2. *-ki*: Laztanki. Aditzondo-atzizki honek modu-aditzondoak sortzen dauz eta era guztietako hitzakaz erabili daiteke: izenak, adjektiboak, aditzak eta abar. Atzizki hau emonkorrenetarikoa dogu eta egunean egunean sortzen dira aditzondo barriak. Ingu-ruko hizkuntzetatik mailegatutako adjektiboakaz be sarri erabilten da.

*-ka*: Dingilizka, irribarreka. Aditzondoa sortzeko erabilia. Kategoria askotako berbei erantsi ahal jake, eta gehienetan ekintza errepikakorrek adierazoteko erabilten da. Batzuetan sintagma konposatuakaz erabilten da, adibidez izena+izenondoa edo izena+aditza erako sintagmakaz.

*-tsu*: Indartsu, osasuntsu. Atzizki honek "bataz beste, gitxi gorabehera, ia-ia" esapideen antzeko esangurea dauka eta era askotako berbakaz erabilten da. Sarri gitxi gorabeherako kopuru edo kantidadea adierazoteko be erabilten da.

*-dade*: Bakardade. Izen abstraktuak sortzeko atzizkia.

*-garri*: Ikaragarri, bildugarri, izugarri. Tresna edo baliabidea adierazoteko.

*-kada*: Bultzakada. Unidatea adierazoteko atzizkia. Atzizki honek mugatzen dauan hitzaren edukiera edo bertan sartzen dan kantidadea adierazoten dau.

### ULERTU DOZU?

1. Arazo politikoa. Herriaren zapalkuntzea. Euskal Herria indarrak baliatzen dan gobernu baten menpe dago.

2. *Berebila*: barria, kanpotarra, harroa, zapaltzailea.  
*Bedarra*: betikoa, bertokoa, apala, zapaldua. Erdi hilik dago autoaren keaz eta zapalduta.
3. Egitura osoa marketan dabe bertsoek. Hasierako bertsoak sarrerea emoten deutso alegiari. Gero korapiloa dator alkarrizketagaz, eta azkenengo bertsoak amaiera marketan dau.  
Hasierako bertsoa aurkezpen sarrerea litzateke, eta azkenengo ostera, alkarrizketea amaitu osteko ondorioa.
4. • Poztasuna/tristezia: Poztasuna ironiaz markauta dator. Berebila. Tristezia bedarrak dauka.  
• Barria/zaharra: Barria berebila. Zaharra bedarra.  
• Bizkorra/erdi hila: Bizkorra berebila. Erdi hila bedarra.  
• Bedar gaztea/bedar zahartua: Bedarra gaztea izan arren, zahar eginda dago eguzkiaren eraginez.
5. Ironia berebilak marketan dau alegia osoan.
6. Ironiaz beterik dago esaldi hori. Alegia guztian esaldirik esanguratsuena da. Hor dago guztiaren mamina.

## IDATZ ETA MINTZ

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1.

SINONIMOAK	ANTONIMOAK
Algara/Astrapala	Troka/Lautada
Zabar/Alper	Izadi/Gizarte
Herrikoi/Herritar	Mehaztu/Ugaldu
Zirikatu/Axaxatu	Anaitasun/Itxikeria
Tamalgarri/Mingarri	Doilor/Jator
Zehaztasun/Zehetasun	Hotzakilik/Izertzan
Apain/Dotore	Zarra-zarra/Eskas
Sendoagotu/Indartu	Mututu/Mintzatu
Temati/Burugogor	
Margul/Zurbil	

2. • Bikiak/Bikotxak.
  - Ipini/Jarri.
  - Samurkiro/Laztankiro.
  - Urduri/Artega.
  - Ubeldu/Berdoztu/Morantzatu.
  
3. • Ondo ala txarto konpondu, alkarregaz egon beharko dira beti.
  - Zaharrek badakie nondik dabilzan, bizitzan hainbat ikusi dabe eta.
  - Gaur egin ahal dozuna, ez itxi biharko.
  - Ez fiau emaginak dinonagaz, ez daki ezer eta.
  - Idatz, hau da, euskera idatzia gogortu egiten da, eta iraungo dau.
  - Mintz, ostera, bigundu, ubeldu, hil egingo da. Ez dau iraungo.
  - Idatzizkoari garrantzi handia emoten deusie eta mantendu egiten dabe, baina mintzamina lurperatu egiten dabe ezertarako balioko ez baleu lez.
  
4. Personifikau egiten dau izadia.
  
5. Esaldi labur baten hiru sinonimo erabilten dauz, irakurleari beharra errazteko. Berba bat ulertzen ez badau, bestea ulertuko dau, eta holan ez dau problemarik izango alegiaren esanahia aitzeko.
  
6. Euskalkiak irudikatzen dira.
  
- 7.

BIZKAIERA	BATUA
Ospatu dagigun	Ospa dezagun
Ebilzan	Zebiltzan
Erantzun eutsan	Erantzun zion
Esango deusagu	Esango diogu
Esan deuskue	Esan digute
Jake	Zaie
Banatuko deusuez	Banatuko dizkizue
Egoan	Zegoen

## ULERTU DOZU?

1. Alegia honetan azaltzen dan gaia hizkuntzea eta honen inguruko problematika da. Idatz eta Mintzek euskerea irudikatzen dabe. Idatz euskera idatziaren sinboloa da, eta Mintz ahozkoarena. Hizkuntzea eta literatura alkartuta dagozala esan gura deusku Mikelek.
2. Ekidazun bikiak jaio dira, Idatz eta Mintz. Bata besteagaz guztia dira, jakintsuak, argiak..., bati faltau jakona besteak dauka, eta alderantziz. Emaginak argi esan arren, Erranbidek ez dau kasurik egiten, eta Uriburura eroaten dauz Idatz eta Mintz banatzeko. Banatu ostean hil egiten dira. Mintz betirako lurperatzen dabe, eta Idatz museo bateko bitrinean ipinten dabe gogorturik.
3. Personaia emagina, Erranbide, Idatz eta Mintz dira. Personaia nagusiak Idatz eta Mintz dira. Idatz Mintz baino handiago eta zabalagoa zan, eta oinez ibiltzen bizkorragoa. Serioa, neurtua eta zehatza. Adimen onekoa, jakintsu argia eta sakona. Mintzen berezko jakituria batu, mehaztu, zuzendu eta edertu eta idatzi egiten eban. Olerkaria zan. Berezko, Praktiku eta Konkretu esaten eutsien ezizenez. Mintz zabar samarra, oso argia, alaia eta herrikoia da. Irudimen onekoa eta ateralditsua, leku guztietako esakerak, ipuinak eta denetarik dakiz. Hitz-jario bat zan, bertsolari jator bat. Abstraktu, Logiku eta Teoriku esaten eutsien ezizenez.
4. Personaiek zuzenean egiten dabe berba, eta horrek arintasuna emoten deutso alegiari, ez da narratzaile bat behar. Horregaz pisurik handiena alkarrizketak daroa.
5. Erranbidek Uriburura eroaten dauz Idatz eta Mintz, Ekidazutik Uriburura. Euskerea herrietan baino ez zan egiten lehen, eta Uriburuko "indarkeriak" desagerrarazoten eban euskerea.

## ARRASTAKA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Noren adi: Idoiaren adi egon.  
Noren begira: Idoiaren begira egon. Idoiari itxaroten egon zentzuagaz.
2. Arrastan, dandarrez, kinkili-kankala, tarrazean, tatarrez.

### ULERTU DOZU?

1. Zapalkuntzea.
2. Boteretsua, gain-gainean bizi dana, goiko maila baten.
3. Marraskulu zerbitzari guztien sinboloa da.
4. Goikaldean Arrano jauna bizi da. Erregea. Aberatsa. Boteretsua. Behekaldean Marraskulu, narraz doana Arranoren zerbitzurako.
5. Bildurra.
6. Nahiz eta botereduna goi-goian egon, eta zu behe-behean egon, apurka-apurka lortuko dozu gora heltzea. Ekinaren beharra adierazoten dau Mikelek ipuinean.

## ESKOIKALE, EZKERKALE ETA ERDIKALE

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Asaba*: Arbaso, aurretiko, aurreko...  
*Zantar*: Zatar, txar, lupu, doilor...  
*Ziur*: Seguru...  
*Mindu*: Samindu, atsekabetu, sentitu, minberatu, sumindu...  
*Destaina*: Gitxiespen, mespretxu...



*Gogaikarri: Aspergarri, nekagarri, nazkagarri...*

*Txatxar: Kakanarru, kaskar...*

*Lakoa: Modukoa, bezalakoa...*

*Galazo: Galerazo, debekatu, eragotzi...*

2. *Jarduna: Adierazoten dana egin.*

*Ezinegona: Edozein larritasunek sortzen dauan baretasun bako egoerea.*

*Preminazkoa: Beharrezkoa.*

*Biloztu: Nonor bilozik itxi edo nork bere burua biloztu.*

3. Bizkaiko hainbat lekutan *alkar* erabilten da, eta izenordaina danez, izen sintagma osotu lei ezelango mugatzaile barik. Hori bai, aurrekariak beti plurala izan behar dau (gu, zuek, hareek) eta aditza 3. persona singularrean jokutzen da. Izen sintagmak esaldian daukan funtzinoaren arabera hartutako atzizkia hartzen dau *alkar* izenordainak be. Dana dala, kasu-marka guztiak onartzen dauz nork kasua izan ezik.

*Nik ikusi zaitut + zuk ikusi nozu=  
Zuk eta nik (guk) alkar ikusi dogu.*

Deklinabideko atzizkiakaz kontu handia euki behar da, ze esaldiaren esangurea guztiz aldatu geinke.

*Alkar bazkalduko dogu (Batak bestea jango dogu)  
Alkarregaz bazkalduko dogu (Batak besteagaz jango dogu)*

4. • Neu lehenengo eta bigarrena be bai. Ni ondo egon ezkerro, lagunak hor konpon.
- Inoz baino gehiago badaukazu be, ez dozuz zure oinarriak ahaztu behar, txarra da eta.
  - Lotsabakoa izatea luzaroan ordaindu egiten da.
  - Azkenetan zagozala entzun dot.
  - Beti beste baten kontura bizi izan da.

## ULERTU DOZU?

1. Hiru jarrera politikoak adierazoten dabe.
2. Adiskidetzera erabagiten dabe. Batek bestearen beharra dauka, eta batak bestea barik ezin dau iraun.

3. Zorotzat hartzen dabez. Ezinezkoa da hirurak bat izatea politika mailan.
4. Beste alderdi politiko guztiak dira Kaleuriko beste hamar kaleak.
5. *Eskoikale*: Harropuztua, zorri hil biztua, beti atzera begira dagoana. Arlanduz, marmolez, pinoteaz eta eskudoz jantzirik dago. Zahar samarra, handia, indartsua eta jakintsua. Ospetsua.  
*Erdikale*: Bildurtti zentzuduna, ipurdimunlari jatorra, apala. Zementoz, plastikoz, dendaz eta anuntziaz jantzirik dago. Lodi-kote txaparroa eta trebea.  
*Ezkerkale*: Urtenegia, ausartegia, aurrera eta aurrera begira dagoana. Adreiluz, lurrez, karez eta grafitoz jantzirik dago. Gazte zapazto bizkorra eta ameslaria.
6. Narrazinoa, alkarrizketea eta bertsoa. Azken honeek sano esan-guratsuak dira.
7. Aberatsa eta ulerterraza.

## BAIKOR ETA EZKOR

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Zahato*: Zahagi...  
*Indarge*: Ahul, makal, herbal...  
*Ausarti*: Adoretsu, kementsu, bildurbako...  
*Bildurtti*: Ikarati, izuti...  
*Baikor*: Optimista, positibo...  
*Ezkor*: Pesimista...

### ULERTU DOZU?

1. *Baikor*, bere izenak adierazoten dauan moduan, gauzak ondo ikusten dauzan personaia da. Zahatoa erdi beterik ikusten dau, eta ardoa ezin hobea da berarentzat.  
*Ezkor* guztiz kontrakoa da. Gauzak normalean txarto ikusten dauz. Zahatoa erdi hutsik dago berarentzat, eta ardoaa indargea da.

## ABERETASUNA ETA ABEREKERIA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Banandu*: Ezkondu, lotu...  
*Estutu*: Lasatu...  
*Berba gordinak*: Berba politak...  
*Bigun*: Gogor...  
*Txairo*: Itsusi...  
*Liluragarri*: Nazkagarri...
2. Maite, maitale, maitatu, maitekiro, maitemindu, maiteketa, maitakeria, maitasuna.
3. *Hegope*: *Behe* berbatik jatorkun atzizkia. Beraz, azpiko alde adierazoten deusku. Aterpe, estalpe, arkupe, ahope.  
*Garrasika*: *Zelan?* galderari erantzuna emoteko, erderazko gerundioaren antzekoa sortuz. Askotan onomatopeiei lotuta doa. Lasterka, ate joka, saltoka, barreka.  
*Emagin*: Egilea, sortzailea. Okin, ikaskin, harakin, zapatagin.  
*Zirraragile*: Egilea, sortzailea. Gaizkile, egurgile, ongile, langile.  
*Liluragarri*: Sortzailea, zergaitia. Miresgarri, kantsagarri, aspergarri, maitagarri.  
*Aberetasun*: Kualidade abstraktuen izenak sortzeko. Sano erabilerazabala. Gehienetan gauzen alde ona adierazoteko. Izen, izenlagun zein aditz-lagunei eransten jake. Maitasun, gozotasun, edertasun, batasun.  
*Aberekeria*: Izen abstraktuak sortzeko. Gehienetan zentzu txarraz. Gaiztakeria, umekeria, alperkeria, azpikeria.
4. *Urruma*: Usoen eta usapalen kantu apala.  
*Altzo*: Gerritik belaunetarainoko tartea.  
*Pozarren*: Pozik, sano pozik, pozaren pozez.  
*Besarte*: Bularraren eta besoen artean geratzen dan bitartea.  
*Birao*: Madarikazinoa.  
*Hegal*: Ertza, bazterra.  
*Harrotu*: Harro bihurtu, harrotasuna emon.  
*Txairo*: Dotorea edo apaina izanik arina edo baldartasun bakoa dana.  
*Pikondo*: Klima epeletako zugatz edo zuhaixka, masustondoaren familiakoa, hosto handi gingilduak dituana eta fruitutzat pikua emoten dauana.

*Lizunkeria*: Lohikeria, lizuna danaren zelangotasuna.

*Higuin*: Batere gogoko ez dogun edo ikusezina gertatzen jakun zeozerk edo nonork eragiten deuskun atzerakuntzazko sentipen bizia.

*Erne*: Landarea sortu edo hazten hasi.

## ULERTU DOZU?

1. Maitasuna eta bakea irudikatzen dabe usoek.
2. Degradazino era guztiak ageri dira gizonezko eta emakumezkoen irudian. Beti dagoz haserre alkarregaz.
3. -tasun eta -keria atzizkien bitartez "abere"en alde onak eta alde txarrak adierazoten dauz izenburuan.
4. *-tasun*: Kualidade abstraktuen izenak sortzeko balio dau atzizki honek. Oso erabilera zabala dauka. *Gehienetan*, alegian ikusten dan moduan, gauzen alde ona erakusteko balio dau. Izen, izenlagun zein aditzlagunei eransten jake.  
*-keria*: Izen abstraktuak sortzeko balio dau honek be, baina kasu honetan gauzen alde txarra erakusten dau. Aurrekoaren kontra da. Izen, izenlagun zein aditzlagunei erantsita erabili ahal da.
5. Gizonaren gizatasunari egiten deutso kritika handia. Usakume bikote bat eta gizasemearen jokaerea konparetan dauz maitasunean, usoek alkar maite daben artean gizakiaren aldetik degradazino era guztiak ageri dira, beti alkarregaz haserre.
6. Hasierako bertsoak gero alegian gertauko dana kontetan deusku. Bertsoan argi ikusten dira parte bi kontrajarriak. Lehenengo partean etsipena eta tristezia marketan dira. Hau izadiaren elementuak personifikauta lortzen dau Mikelek. Parte hau hemen emoten da: "*Erdiminaren minez... euri tantak basoan*". Bigarren partean, ostera, zoriona eta poztasuna irudikatzen da. Hau usoen personifikazioaren bidez dator.  
Bertsoaren azkenengo lau lerroei garrantzia emon behar jake, sano esanguratsuak dira eta. Irakatsi edo mezu lez hartu geinke.

## BASAMORTUKO ROBOTAK

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Zital:* Gaizto, zantar, kaskar, petral, ziztrin...  
*Ondoren:* Ostean, jarraian...  
*Irainka:* Mespretxuka, destainaka...  
*Laztandu:* Besarkatu...  
*Zirkin:* Mobimendu...  
*Ekin:* Ahalegindu, jardun, saiatu...  
*Herdoitu:* Ugertu...  
*Ezereztu:* Ezeztu, ezereztatu...  
*Aieneka:* Erostaka, intzirika, kexaka...  
*Adoretsu:* Kementsu, gogotsu...

2.

BIZKAIERA	BATUA
Egoan	Zegoen
Zituan	Zituen
Eutsen	Zien
Egozan	Zeuden
Eben	Zuten
Eutsan	Zion
Ebazan	Zituen

### ULERTU DOZU?

1. Herriak sufritzen dauan zapalkuntzea da gaia. Gerrate baten ostean dala dino. Gerra zibilaren ostean, Francoren diktadura garaian. Alkarrenganako laguntzinoa behar dabe robotek, baina ez badabe bat egiten, kanpoko indarra sartuko da eta orduan txarrago izango da.
2. Hizkera aberatsa eta ulerterraza da. Esaldi laburrak erabilten dauz, eta hori idazlearentzat mesedegarria da ulertzeko errazagoa egiten dualako alegia.

3. Guztiok behar dogu guztion laguntzinoa. Bakotxak gure aldetik ezin dogu urtenbiderik topau. Euskaldunak batu egin behar gara Euskal Herria aurrera aterateko, osterantzean kanpoko indar bat etorriko da eta txarrago izango da.
4. Haizea hareagaz dantzari.
5. Haizearen ahotsa irudikatzen dau. Haizearen soinuari lotzen jako kanta itxura hartuz. Haizeak alkartasunagaz aurrera egin gura dau. Alkarrenganako laguntzinoa behar da bizitzan aurrera egiteko.

## EKIDAZUKO ASTASENDIA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Euzkadi.
3. *Arrapaladan:* Tarrapataka, abiadan, galapan, perrotsean, abiantzadan, arineketan...  
*Garrasika:* Aldarrika, deadarka, sokorruka...  
*Artega:* Urduri, larri...  
*Doilor:* Azpizapo, zital, tatar, kaldar, matxar...  
*Samurkiro:* Bigun...  
*Zalaparta:* Zarata, zaratotsa, iskanbila, zalaparta...  
*Arbuiatu:* Mesprenxatu, gitxi eretxi...  
*Suturik:* Berotuta, onetik aterata, haserre...
4. Astar, Astategi, Astakeria, Astotasun, Astasendi, Astotxo, Astaita, Astama, Astakume, Astaseme, Astaldi.
5. Zoli, Ikaragarri, Amorratu, Izugarri, Dardartsu.  
  
Adjektibo guztiak dira gogorrak. Indarkeria erakusten dabe.
6. • Eguzkia be larritu egin zan.  
 • Trumoia jarri eban atezain.  
 • Ilunak inguratu eban astategia.  
 Esaldi honeek bildurra adierazoten dabe. Gertauko danaren sarrerea da.

7. • Behin baten kanta-kantari eta dantza-dantzari ziharduela, orroe zoli indartsu bat entzun zan.
  - Eta erpakadaka eta haginkadaka astoak agurtu ostean, astategia eurena zala esan eben.
  - Eztabaidaka lehenengo eta burruka hurrengo ekitaldia egin ostean, azkenean ekidazuarrek galdu eta piztiagatarrek irabazi eta nagusitu.
  - Eta, joanak joan, poztasun barri bat erne zan Ekidazuko astategian, nahiz eta inoren menpean egon beharra astuna izan.
  - Aurretik erabili arren, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti.
  - Eta betaurrekoak atera, eta astiro astiro irakurri eban, astama bere ondotoxoan artega eta erdi negarrez ebalatzen.
  - Gautu aurretik egin eban alde astaitak batzarretik.

8.

LEHENALDIA	ORAINALDIA
Eutsan	Deutso
Eban	Dabe
Eutsen	Deutse
Ekien	Dakie
Egozan	Dagoz
Ziran	Dira
Zituen	Ditue
Eutsazan	Deutsaz
Egoan	Dago

## ULERTU DOZU?

2. Herriaren zapalkuntzea.
3. Ipuin honetan argi ikusi daiteke Euskal Herriaren egoerea. Abere-tako baztertxo baten dago Ekidazu. Ordura arte bakean bizi ziran abere guztiak baina egun batean Piztiagatarrek Ekidazun sartu ziran indarrez. Ekidazuar gazteak eurena defenditzearren altzau ziran. Eta azkenean Astasendiko aita hil egiten dabe.

4. 1972 eta 1975 urteen artean dago idatzia, Francoren diktadura garaia. Mobimendu abertzaleak dagoz.
5. Ipuin honetan kritika handia dago. Alde batetik lehoia agintaria da eta bere ondoan danak belaunikatu eta amen esan behar dabe. Gorengo maila baten dago, beste inor heldu ezin dan maila baten. Batetik Lehoiaren inguruan mobitzen diran jauntxoek kritikea dago, Lehoi Jauna pozik eukitearren edozein azerikeria egiteko prest dagoz. Eta azkenez, ipuinean ez da justifikaziorik agertzen Ekidazu indarrez hartzeko, beraz injustizia kate bat sortzen da. Baina Ekidazun astakume bat jaioko da, esperantza dago.
6. • "Orain urte asko..... erbia urun eralgiten".  
Sarrerea, bakea, lasaitasuna ete zoriona igarten dira.
- "Behin batean ..... - Ixxxxxxx...iiiiii!".  
Bildurra somatzen da.
- "Orroeka eta eupadaka ..... -Ez -esan eban bere artean astasendiak".  
Gatazka.
- "Joan ziran lehoikume .....gorostiz, larrosa gorritz eta lirioz".  
Lasaitasuna eta bakea.
- "Baina, halanda guztiz be ..... osterantzean...."  
Bildurra eta gatazka.
- "Abere asko batu ziran.....astakeriakaitik hausnartzen."  
Gatazka, Piztiagatarren indarra.
- "Ia haserre ete zan ..... Eskerrikaskoka entzun eutsan azeriak astaitari."  
Ironia, engainua, faltsokeria.
- "Lehoi Jaunaren hitzaldiaz amaitu zan batzarra..... Gora!"  
Ironia, indarkeria psikikoa.
- "Begi distikorrak.....arrantzaka hasi zan."  
Etsipena eta itxaropena.

Egitura oso bat dauka ipuin honek, oso landua da eta oso ondo antolatuta dago. Ekintzen ordena kronologiari lotuta doa eta era berean kausa-ondorio pausuak zainduta. Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka.

7. Lantzean behin bertsoaren bat tartetzeak narrazioari erritmoa emoten deutso, narrazio horren linealtasunak sortu daiken monotonia apurtuz.



Batzuetan herri kantak dira funtzino bera beteten dabenak. Musikaltasuna emoten deutse testuari, kantak diranak kantak diralako eta ez diranak gehien bat kantau daitekezalako.

Alde estetikoak baino garrantzi handiagoa dauka bertsoon maminak. Bertso hutsak diranak ez daukie zer esanik, mamin osoa bertan dago eta. Baina besteetan, hau da, narrazino eta alkarrizketetan tartetzen diranak bereziagoak dira. Gehienetan hasieran edo amaieran dagoz, eta alegiaren mezua edo irakatsiaren laburpena dira, batez be azkenean dagozanean.

Bertsoek gehienetan daroe mezuaren pisua.

9.

Ekidazuarrak	Piztiagatarrak
Astaita	Lehoikume
Astama	Otsokume
Zazpi astakume	Lehoi Jauna
Akerrak	Luki Ipurdimun
Azeriak	Azeriak
Erbiak	Otsoak
Untxi	Tximinoak
Lapin	Azeri zerbitzaria
Kukumixa	

10. Abereta: Ekidazuko auzoa.

Ekidazu: Aberetako baztertxo bat. Euskadi. Asto familia bat bizi da han: astaita, astama eta zazpi astakumeak (Zazpi probintziak).

Astategia.

Piztiaga.

Otso-habia.

Basarteko Jauregia.

Bide bazterra.

11. Ekidazuko astasendiak ondo baino hobeto islatzen dau Mikel bizi zan sasoiko egoera. Astasendia sasoiko edozein familia izan daiteke. Agintarien errepresioa argi ikusten da, eta astasendiak borrokatu egin behar dau Ekidazu bizirik mantentzeko. Kanpotarrek astaita hiltzen dabe, baina beste asto bat jaioten da eta

horrek irudikatzen dau Ekidazun esperantza dagoala. Mikelek emon gura dauan idea guztiok alkartuta Euskadi aurrera aterako dogula da.

## TXIRORIK TXIROENA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Bere esanahirik zabalena "eukitearena" bada be, zeozer ekarri, eroan edo saltzen dauan personea be izan daiteke. Betebeharra, zeregina, kargua edo maila soziala be bai.  
Dana dala alegian zeozer daukan personea adierazoten dau. Diruduna dirua daukan personea da.  
Beste adibide batzuk: arduraduna, txapelduna, zalduna, zorduna, erruduna...
2. *Besterik ez* esapidea "gehiagorik ez, hori bakarrik" adierazoteko erabilten da, hau da, balio murriztailegaz. Kokaguneari jago-konez, sarri *besterik* eta ez partikulea alkarren ondoan agertzen dira, baina bananduta be agertu daitezke, hau da, ez partikulea aurretik aditz laguntzailegaz batera. Numero-konmuztadurari jago-konez, alkarren ondoan agertzen diranean, aditza singularrean jokatzeko joera dago; izan be, *besterik* da objektua. Esapide batzuetan aditzakaz be erabilten da.

## ZALDIBI

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Aterkin*: Euritako, guardasol...  
*Tapotz*: Tapoi...  
*Abiadan*: Arin, azkar, arrapaladan, perrotsean...  
*Eztabaida*: Matraka, gatazka, errieta...  
*Garrasika*: Oihuka, zarataka, uluka, intzirika, alarauka  
*Burruka*: Auska...  
*Azpiratu*: Garaitu, menderatu, irabazi, zapaldu...  
*Indargetu*: Indargabetu, ahuldu, makaldu...

*Irrintzi*: Zantzo, lekaio...

*Kirrinkari*: Karrankari...

*Samingarri*: Mingarri...

*Marmar*: Murmurio, armonia, zurrumurru...

*Kulunkan*: Zabuka, balantzan...

2.

Alegian agertzen diranak	Zuk dakizuzanak	
Arineketan	Abiantzadan	Azkar
Bizkor	Andanadan	Arrapataka
Abiadan	Antxintxika	Tarrapataka
Tximista bezala	Antxintxiketan	Estropadan
Arrapaladan	Arin-arinka	Galapan
Karraderan	Korrika	Karraka
Lasterka	Laukoan	Perrotsean
Posto-postoka		

3. Argi iluna.

Haize garbizko karatula bat haize usteldu hareetatik ibilteko.

Argi koloretsuak.

Burruka gogorra.

Zaldibi koitadua.

Tanke erraldoi itsusia.

Irrintzi kirrinkarri samingarriak.

4.

<ul style="list-style-type: none"><li>• Min mosuetan.</li><li>• Eztabaidaka.</li><li>• Garrasika.</li><li>• Burruka.</li><li>• Azpiratu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Indargetu.</li><li>• Astindu-astindu.</li><li>• Irrintzi kirrinkari samingarriak.</li><li>• Mailatu.</li><li>• Igesari emon deutso, marmar purrusta-ka eta arnasoska.</li></ul>
--	---

5. Nonbaitera, nonora, edonora, edozelan, edonoiz, norbait.

## ULERTU DOZU?

1. Alegia honetan giza gaia tratetan da. Arineketan gabiliz batetik bestera, baina nora? Zaldibi arineketan doa urirantz, baina ez dauka argi nora eta zertarako. Dendaz denda doa uriaren edertasunak deituta, baina bidean uriko mercedesegaz topo egiten dauanean, burrukan hasten da, eta zapalduta eta minduta bueltea hartu behar dau, nora joan jakin barik. Mikelek indarkeria ekonomikoa kritiketean dau.
2. Zaldibi herritik urira doa. Goienkale.... pasetan dauz, eta Uriburuko argi koloretsuen dantzak ikusten dauz dendaz denda dabilenean. Baina azkenean, uritarrek irabazten dabenean burruka, ez daki nora joan, eta bueltea hartuz kale artetik doa osterabere.
3. Alde batetik uritarrak dagoz: Mercedes, Tanke eta Iskilu: Handiak, boteretsuak, irabazleak, zapaltzaileak... Beste alde batetik herritarrak dagoz: Zaldibi eta Seat txiki: gizajoak, zapalduta geratzen diranak...
4. Herria eta hiriaren arteko oposizinoa egiten dau. Herritik datorren Zaldibik haize usteldua eta abar ikusten dau, baina uriburuan argi koloretsuak, dantzak eta abar dagoz. Aitagarria da Mikelek *sorginkiro* berbea agertzen dauala uriburuaren gainean dabilenean.

## TXORIKUMATXOA, BEHIA ETA KATUA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Bidezidor: Basabide, zidor...  
*Errukigarri*: Koitadu...  
*Narrugorritan*: Bilozik, narru hutsean...  
*Ikaratu*: Bildurto, izutu...  
*Birrindu*: Trilau, triskau, txikitu...  
*Jaurti*: Bota...  
*Bizkortu*: Biztu...  
*Miazkau*: Miaztu, txupau...

2. Katakumea, txakurkumea, astakumea, lehoikumea.
3. *Pekorotz*: Abelgorri gorotza, biribila eta zapala.  
*Erpa*: Piztien atzaparrak.  
*Miazkau*: Mihia igaro zeozeren gainetik.
4. Partikula modala da eta galderak egiteko erabilten da, baina ez da galdera marketako, zalantza edo susmoa adierazoteko baino. Beraz, partikula honetaz baliatuz egindako galderak ez dira galdera neutroak; hitzunak galdetzen dauanaz daukazan zalantzak, susmoak eta bildurra be adierazoteko erabilten da. Zenbaitetan gogo eta kutsua emoten deutso galderari, hitzuna "*horixe galdetzen deusat neure buruari*" edo antzeko zeozer pentsetan balego moduan.
5. • Bere aita-amen habia epeletik bidezidor baten erdira jausi ostean, estu eta larri dabil txorikumatxo bat.  
 • ... eta epeletan dago hau orain pekorotz artean, bere burutxoa kanpoan dauala.

## ULERTU DOZU?

1. Txorikumatxo gizajoa bilozik dago bidean, habitik jausita. Behia ikusten dauanean, bildurraren bildurrez ikaratu egiten da, hain handia ikusten daualako. Baina behia ondo portetan da txorikumatxoagaz eta lagundu egiten deutso, berotasuna emonaz. Poz-pozik dagoanean katua jatorko, eta honegaz ez da bildurtzen, baina honek bai ederra egiten deusola, jan egiten dau eta.
2. Itxura-egia. Ez zaitetz fiau itxura ona daukenakaz bakarrik. Itxurea ez da beti bat etortzen bakotxaren izakeragaz.

## NI EZ NAZ ZU

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1.

	1	2	3
Haserre bizi/Errukarri			X
Marmarka/Marmarrean	X		
Arte/Gibel	X		
Gibel/Eroapen	X		
Eroapen/Egoarri	X		
Egoarri/Pazientzia	X		
Eroapen/Arte	X		
Gibel/Pazientzia	X		
Egoarri/Arte	X		
Ezina/Ahalegina			X
Aieneka/Alarauka	X		
Astun/Arin		X	

2. Mikelek lexiko ezin aberatsagoa erabilten dau. Gauza bat esateko, kasu honetan bost berba ezbardin erabilten dauz. Hor dago Mikelen ezaugarri garrantzitsuetako bat.
3. Mikelek honegaz gauza bi lortu gura dauz. Batetik, gauza bat esateko forma desberdinak erabilita, irakurleari lana errazten deutso. Berba bat ezezaguna bada irakurlearentzat bigarrenagaz ulertuko dau. Eta beste alde batetik, irakurlearen lexikoa aberasten da, duda barik.

### ULERTU DOZU?

1. Gabarrea kexaz dabil ibaian gora. Beti kexaz bere bizimodua dala-ta. Ibaiak txarrago bizi dala dino, berak haren pisua eroan behar daua-ta. Baina gabarrari ez deutso lebarik ibaiak sufridu behar dauana, berari jagokona baino.
2. Batek berea baino ez dau ikusten, eta albokoari jagokona hor konpon.

## ON EGINAREN PAGUA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Zezeila*: Otsaila...  
*Eginahalak*: Ahaleginak...  
*Arineketa*: Lasterketa, antxintxiketa...  
*Behinik behin*: Behintzat, gitxienez...  
*Hankape*: Izterpe...  
*Hazka*: Azkura...  
*Bildurgarri*: Ikaragarri...  
*Oztopo*: Enbarazu, traba, estropezu...
  
2. *Hotz*: Bero...  
*Zoritxarrez*: Zorionez...  
*Kaltegarri*: Mesedegarri...  
*Apal*: Harro...  
*Bigun-bigun*: Gogor-gogor...  
*Zorrotz*: Amots...
  
3. • Osagile entzutetsu baten begira dago Otsoaita.  
 • Izan be, ez deusut minik egin, nahiz eta egiteko era izan.  
 • Nahiz eta hil ahal izan zaitudan, ez zaitut hil.  
 • Zagoz isilik ni ez haserratzeko eta behar ez danen bat ez egiteko.

4.

BIZKAIERA	BATUA
Zituan	Zituen
Jakon	Zitzaion
Ebezan	Zituen
Daukez	Dauzkate
Deutso	Dio
Dino	Dio
Zagoz	Zaude
Jatzu	Zaizu
Deusut	Dizut
Eiguzu	Iezaguzu
Dau	Du
Deustazu	Didazu
Dinostazu	Diostazu
Naiten	Nadin

5. On eginaren pagua...

b. **ate ostean palua.**

Esanahia: Zuk egin ondo zure albokoari, berak emongo deutsun ordainsaria ikusteko dago oraindino eta.

6. • Beti ona izatea, ...

a. **txarra.**

• On egina...

a. **sekula galdu ez.**

• Handia ez da beti ona,...

b. **ona beti handia.**

• Ona gitxirengan,...

c. **txarra guztiakan.**

## ULERTU DOZU?

1. Gaixorik dago Otsoaita. Erbi izoztu batzuk jaten dagoala, hazur bat trabatu jako saman.
2. Gizasemea berekoia da izatez. Interesetan jakon artean jarrera bat hartzen dau, baina bestearen beharrik ez daukanean, kontrako jarrera hartzen dau.
3. Txarto dagoan artean dana da eskerrik asko eta bai jauna, baina medikuak gatxa kentzen deutsanean, bere benetako aurpegia ateraten dau, eta bere jokabidea aldatzen dau.
4. Gizasemea eskertxarrekoa da.

## EKINAREN IRUZURRA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. • Ekinak .....

a. **erdia egina.**

• Ekin ekin, .....

b. **azeri zaharrak oiloak harrapau.**



- Ekinak egina dirudi, .....
  - a. lanak urregorri.
2. • Hastea da beti gatxena.
    - Ahalegindu ezkerro, lortu daikezu gura dozuna.
    - Behin beharrean hasi ezkerro, erdia egina dago. Amaitu ezkerro, urregorria adina baliotsua da.
  3. *Zorabiatu*: Zorabioa izan edo eragin.
    - Harro*: Harrokeriaz betea.
    - Bedeinkatu*: Jainkoak bere onspena emon, Jainkoaren onspena edo babesa, persona edo gauzentzat eskatu, hareen gainean Gurutzearen seinalea eginez edo berariazko hitzak esanez.
    - Ohitura*: Egintza bat askotan errepikatzearen ondorioz hartzen dan aritzeko era edo modua.
    - Irribarre*: Barre xumea, begiartearen keinu sotil batez adierazoten dana.
    - Adarra jo*: Iseka edo egin, harpea jo.

## ULERTU DOZU?

1. • Biajantetzan dabilelako.
  - Bedeinkatu egiten dau.
  - Adarra jotzen, kotxea baltza dala esanez.
  - Bardin dala baltza ala zuria, berak erosi dauala eta kito.
  - Kokoteraino dagoalako lagunek esan deutsienagaz, berak be ez daki ondo baltza ala zuria erosi dauan hainbeste txantxaren ostean.
2. Ekinaren ekinez, benetan egia ez diran gauzak be sinestu egin daikeguzala.
3. Hizkera sano erraza, irakurleagana errazago heltzeko.

## MENDITZAR ETA MENDITXO

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Gauzak* handitzeko erabilten dan atzizkia dogu hau. Mespretxua be adierazoten dau batzuetan.
2. *Zirkin egin* mobiduren sinonimoa da. Ez dabela ezer egiten esan gura dau, ez dirala mobidu be egiten.
3. *Partitiboa* kasu berezia da. Izan be, aparteko kasu moduan aztertzen badogu be, izatez, NOR kasuaren barruko azpisail bat baino ez da, eta gehienetan beronen distribuzio bera erakusten dau. Galdetzeko be, NOR kasuko galdetzaileak erabilten dira, ez dago partitiboan deklinatutako galdetzailerik, ez persona-ize-nordainik, ez erakuslerik eta. Halatan, NOR kasuaren azpikasu bat moduan hartu behar da.  
Kasu hau izen-sintagma masa moduan hartu edo zeozer zehaztubakoa danean erabilten da eta, izan be, mugagabeari jagokon kasu-marka baino ez dauka. Hori dala-ta, aditzarekiko konmuzadura singularrean egiten dau beti. Partitiboak, normalean, NOR kasuak perpausean dauan funtzino bera beteten dau.
  - a. Subjetu modura perpaus iragangaitzetan.
  - b. Objetu modura perpaus iragankorretan.

Halanda guztiz be, badauka kasutik bereizten daben hainbat ezaugarri, bai erabilerari jagokonez, bai esangura aldetik.

### ULERTU DOZU?

1. Oposizino argia agertzen da izenburutik hasi eta azken lerroraino. Menditzarrak boterea eta handitasuna adierazoten dauz, eta Menditxok guztiz kontrakoa.
2. Ez dabe ezer lortzen. Batak besteari kalte egiten deutse, baina harrokeriaz beterik dagoz, eta ez dabe batak besteagaz ezer jakin gura.

## SARIKETA NAGUSIA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Arineketa*: Lasterketa, karradera, galapa...  
*Hurrean*: Hur, hurbil, hurran...  
*Miragarri*: Miresgarri, goresgarri...  
*Itauna*: Galdera...  
*Orroe*: Ulu, ohiu...  
*Barriz*: Ostabere, atzera...
2. *-keta*: Alkarrizketa, arineketa. Ekintza adierazteko erabilten da, gehienetan aditzei lotua. Ugaritasunaren zentzua be badauka.  
*-ketari/ketalari*: Arineketari, arineketalari. Atzizki hau erabiliz, personei eta animaliei edo gauzei jagokezan berbak sortuko doguz. Zertan diharduen, zer egiten daben jakingo dogu. Askotan lanbidea adierazoteko erabilten dogu, zaletasuna adierazoteko beste batzuetan.  
*-tsu*: Zaratatsu. Zelangoa galderari erantzuten deutso, baina beti ugaritasuna kontuan harturik.  
*-ka*: Zarataka, baiezka, ezezka, txaloka, orroeka. Zelan galderari erantzuten deutso, baina denbora kutsua be euki leike.  
*-garri*: Ikusgarri, miragarri, ikergarri. Gaztelerazko "digno de".  
*-gai*: Salgai. Zeozertarako bidean dagoana, baina oraindino ez dana. Zeozer izateko gogoa edo asmoa daukana.  
*-zale*: Ferrizale, Dogezale. Gehienetan personen edo animalien zaletasuna adierazoten dau, baina izan daiteke nozonoz betebeharrak, lanbideak eta ekintzak adierazoteko.
3. Konparazinozkoa.  
Osagarria.  
Zergaitizkoa.  
Erlatibozkoa.

## ULERTU DOZU?

1. Indarkeria militarra.
2. Sariketa Nagusia irabazteko prest dagoz hainbat partaide. Argi eta garbi ikusten da nortzuk diran irabazleak, baina Iskiluk halan derrigortuz, berak gura dauzkanak irabazten dabe sariketa, nahiz eta holan ez izan.
3. Iskiluk errepresioa irudikatzen dau. Indarkeria militarra. Bere indarraz baliatuz, tankek eta traktorek irabazten dabe sariketa, besteek baino hiru buelta gitxiago egin arren.
4. Alegia zuzenean hasten da personaien arteko alkarrizketa bategaz. Lehenengo zatian badakigu zein dan aurkezten dan egoerea, narratzailerik behar barik. Alkarrizketak arintasuna emoten deutso testuari.
5. Beste alegia batzuetan agertzen ez dan ezaugarri bat, eta hone-tan hasieratik igarri dana, Mikelek hika darabilela da.

## TXORIAK ARRANO JAUNARI

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Etzan aditza da. Gaur egungo euskeran etzan aditzaren adizki trinkoek erabilera mugatua dauke, banaka batzuk baino ez dira erabilten; beraz, bizirik irauten daben adizkiak baino ez doguz komentauko. Hona hemen taula bat:

ORAINA	IRAGANA
Natza	Nentzan
Hatza	Hentzan
Datza	Zetzan
Gautza	Geuntzan
Zautza	Zeuntzan
Zautzate	Zeuntzaten
Dautza	Zeutzan

Paradigma osoak jarri doguz, halan be, 3. personako adizkiak izan ezik, gainerakoak oso bakanka erabilten dira.

2. Nor-Nori baldintza. Zeozer guri.

## ULERTU DOZU?

1. Arrano Jaunak poderea eta agintea irudikatzen dau.
2. Zerbitzarien sinboloa da txoria.
3. Tono ironikoz idatzitako bertsoa da. Txoriak ironiaz betetako berbak esaten deutzaz Arrano Jaunari. Bigarren zentzu bategaz idatzitako bertsoa da.

## URAREN HILETA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Hozkirri*: Eguraldiaz, haizeaz... mintzatuz, apur bat hotza baina atsegingarria.  
*Sorki*: Zatarra, ohiala. Lerdea, adurra.  
*Barauts*: Lerde.  
*Lozorro*: Lo sakona edo pisua.  
*Zan*: Odola dabilen hodia.  
*Karabilkatu*: Kiribildu.  
*Geraka*: Artekoso, geldi egon ezineko.  
*Lausotu*: Ongi ezin ikusi.  
*Izorratu*: Haurdun geratu.  
*Zornea*: Zauri eta handitu gaizkoatuei darien izurkari lodi zuri-horixka.  
*Lokaztegi*: Lokatz asko dagoan tokia, lokatza, basatza.
2. • Bereak egin dau: Azkenengoetan dago.  
• Burutik egin: Zoratu, txotxolotu.

3. Ume hizkeran mama ura da, eta hilten dagoanez, egarri da bere ura kutsatuta dagoalako. Beraz, amari ura eskatzen deutso. Horretaz aparte, umezaroan balego lez egiten dau berba, persona hiltzorian dagozanean moduan. Lehena gogoratzen dau urak, eta ume zanean balego lez egiten dau berba.

4.

BARDINTSUAK	KONTRAKOAK
Maitemindurik/maitezoraturik	Bardintasuna/bardinkeria
Iturria/etorria	Kalejira/hiletajira
Urduri/artega	Barregarriak/negargarriak
Zikindu/lausotu	
Ibaia/erreka	
Nahi/gura	

5. • Eta jauzika eta jausika, nonbaitera joan gura dau.  
 • Kanta kantari kantore...  
 • Ai, bardintasan bardinean bardinagoren bardinkerien menpean dagoanaren errukarria!

## ULERTU DOZU?

1. Kutsadura.
2. Alegia kutsaduraren gainekoa da, baina azkenengo bertsoarte ez dau gizasemea kritiketan. Bera da ura hiltzearen erruduna. Lantegiak, utzikeriak... kritiketan dauz bera hilten dabelako.
3. Bigarren mailako pertsonaiak agertzen badira be, nagusia ura da.
4. Ura gaixorik dago. Lantegien eta arrainkarien itxikeriagaitik dago hilten ura.
5. Testu honetan ez dabe pertsonaiek zuzenean berba egiten. Istorioari hasiera emoteko narratzailea agertzen da naturaren eta egoeraren deskribatzaile. Ura eta olerkarien arteko alkarriketea be ez da zuzena, bertsoen bidez emoten da.

6. Narrazinoa eta bertsoak agertzen dira tarteturik. Deskripzinoak be pisu handia daroa.  
Egoeran sarrarazoteko deskripzinoz baliatzen da narratzailea. Bertsoen funtzinoa, alegiari musikaltasuna emotea da. Esanahiez gainezka datoz bertsoak, eurek daukie bere barnean alegiaren mamina. Alegia osoa irakurri barik, bertsoak bakarrik irakurrita, bardin bardin ulertuko genduke Mikelek erakusten deuskuna.
7. Argi eta garbi ikusten dira:  
"Erreka hegaletako... zaharrei etorten jaken lez"  
"Gaztea zan orduan, gazte urduri ameslaria... betiko erein eta betiko erantsiz"  
"Gaztea zan orduan, eta gazte ikusten eban... hiletajira bihurtu da"
8. Hiriak eta hirietan bizi diranak dira guztiaren errudunak. Argi eta garbi dator azkenengo bertsoan.
9. • Garai batean hiriak eta kutsadura nagusitu aurretik, olerkariak uraren edertasunean inspiratzen ziran.  
• Urak, batzuetan, itxura hobea izan arren, hori baino ez da, itxurea. Eta inork ez dau ezer egiten arazo hori konpontzeko.  
• Sasoi baten ederra zana, orain nazkagarria da.
10. • Arnasoska eta zotinka dabil, atso zahar baten antzera.  
Uraren gaixotasuna hiltzar dagoan amona zahar bategaz konparatzen dau. Azkenengo ostikadea emoteko dagoanaren konparazinoa da.  
• Eta gaztetasuna eta edertasuna gainezka borbor zitularik, kanta kantari kantore, aurrera joian beti bere bidean, sugelandara bat bezala, zoro-zoro.  
Goikoaren kontrakoa da hau. Oraingoan gaztetasuna adierazoteko, sugelandararen bizkortasunaz konparatzen dau ura.  
• Esan dezaiegun hiri ederretako... arraza eta kuraia galdu zituan.  
Hiria eta herria konparatzen dauz azkenengo bertso honen zati honetan. Bien arteko desberdintasunen errua hiriarri eta gizasemeari botaten deutse urak, duda barik.
11. Alegia osoa da personifikazio hutsa. Hasieratik amaitu arte. Erreka, ura, zugatzak, trumoa... guztia dator personifikauta.

## TRENA ETA AUTOA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Parean*: Alboan, ondoan...  
*Gogaikarri*: Aspergarri...  
*Mailatu*: Zauritu...  
*Kamino*: Errepide...  
*Barranku*: Amildegi, troka...

2. • Kamino/bide.
  - Aspergarri/gogaikarri.
  - Mailatu/Zauritu.
  - Parean/ondoan.

Hizkera aberatsa darabil. Sinonimoak edo antzeko esanahi daben berbak erabilten dauz. Teknika honegaz irakurlearen lana errazten dau, berba bat ulertzen ez badau, beste bat ulertuko dau-lako.

3. • *Autoa*: Gaztea, odol beroa eta bide eta gauza barriak ezagutzeko irrikan dagoana. Askatasun gehiegi gura dau. Hasieran barre egiten deutso trenari, baina alegiaren amaieran formal formal jarraitzen dau trenak daroan bidetik.
  - *Trena*: Zaharra, jakintsua, astiro astiro eta beti bide batetik doana, baina arriskurik jarraitzen ez dauan personaia.

### ULERTU DOZU?

1. Gizarte modernoak dakarzkuzan kalteak eta ondorio txarrak adierazoten deuskuz.
2. *Gizartea* arin bizi da orokorrean. Danok gura dogu ahalik eta ari-  
nen ibili ondokoengan pentsau barik.
3. Ezin da besteagan pentsau barik bizi. Danok dogu danon behar-  
rizana, eta bakarka ibilita galdu egingo dogu beti.



## ZERBITZARIEN ZERBITZARI

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Otzan*: Mantso, apal...  
*Elorri*: Arantza...  
*Lakar*: Latz, lakatz...  
*Agortasun*: Lehortasun, idortasun...  
*Arduratan egon*: Kontuan euki...  
*Pazientzia*: Lasaitasun, eroapen...
2. Zeozer guztiz larria edo handia dala adierazoteko erabilten dogu. Adibidez: gose gorria, gorriak ikusi edo gorriak pasau, negu gorrian, kale gorrian, etab.
3. Zaunka: Ahausika.  
Ardiak beheka egiten dau.  
Katuak miaoka edo ñauka egiten dau.  
Astoak arrantzaka egiten dau.  
Oiloak kakaraka egiten dau.  
Txoriak txioka edo pioka egiten dau.  
Behiak marrumaka egiten dau.  
Igelak korroka egiten dau.
4. Mikelek ardiek pasetan daben inpernua adierazo gura dau. Esaldiak sano gogorrek dira, r asko erabilten dau leku gitxian, eta horregaz gogortasuna lortzen dau.
5. Erlatibozkoa.  
Konparazinozkoa.  
Moduzkoa.

### ULERTU DOZU?

1. Herriaren zapalkuntzea.
2. Kasu honetan alegia ulertzeko nahikoa da bertsoak irakurtea. Lehenengoak sarrera modura egiten dau, egoerea azaltzen deusku, eta atoan ulertarazoten deusku ardien errenkurea. Bigarren

bertsoa alegiaren korapiloa litzateke, eta azkenengoak amaiera erakusten deusku, amaiera gogorra.

3. Mikelek sano hizkera erraza erabilten dau. Horrela irakurleek ez dabe arazorik berak adierazo gura dauana ulertzeko. Horretarako, sinonimo edo antzeko berba asko erabilten dauz, berba bat ulertu ezean bestea ulertu ahal izateko: jagon/zaindu. Esaldi laburrak be erabilten dauz, korapilotsuak barik.
4. Mehatxu batez amaitzen dau Mikelek. Txakurrak entzun egin dau ardiek esaten deusena, eta alkarrizketa bat euki dabe, baina azkenean, ugazaba ugazaba da, eta bera datorrenean, onena isil-isilik egotea da.

## INURRI-PILO PIRAMIDETUA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. E zu, batu ta bota giza robota. Batu bota eta bete, bota eta bete porlanez, harri, burdina eta zaborraz, anuntzio eta kolore nabarmenez, etxe kale lantegi sigla eta zarataz. Bota eta bete dana inurri pilo itxuraz. Bete arineketa, kutsadura eta estukuraz. Bota eta bota eta bota eta bota inurri-pilora irrikitu, haize, ur eta bizirik be egon ez dadin momiatu piramidetu eta hilobitu zure hiri hori arin, eta gizona familia herria egiteko zoaz barriz basora.
2. *Porlan*: Zementu, karebeltz...  
*Zabor*: Zaborreria, zakar, zazar...  
*Estukura*: Estualdi, estutasun, larrikuntza...  
*Barriz*: Atzera, barriro, ostera, osterabere...

### ULERTU DOZU?

1. Gaia kutsadura da. Mikelek gizakiok sortzen dogun mota guztietako kutsadura kritiketan dau. Azkenean dator kritika gogorra, barriro bizitza eraikitzeke basora joateko esaten dauanean. Zerotik hasi beharreko idea emoten dau. Gizakiak berak zapaltzen dau kutsaduraren bidez berak ordura arte egin dauan guztia.

# ARRANKARIREN BIHURRITASUNA

## DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1.

	SINONIMOAK	ANTONIMOAK
Nagi	Alper, faltso...	Langile, maratz, fin...
Ikaratu	Bildurtu, izutu, larritu...	Ausartu...
Urrin	Urrun, urruti, asago...	Hur, hurbil, hurran, paraje...
Arrapaladan	Itsumustuan, arineketan, arrapataka...	Astiro, geldiro...
Artegatu	Urduritu, kezkatu...	Baretu, lasaitu...
Barriz	Atzera, barriro, ostera...	Inoz ez, sekula ez...
Apropos	Berariaz, nahita, gurata, beren-beregi...	Ezustean, ustekabeen...

2.

-KADA	-PE	-TAR	-TASUN	-KIZUN
-Hegazkada -Haginkada	-Bedarpe	-Goiztar	-Berotasun -Askatasun -Bihurritasun	-Ikuskizun

-GARRI	-KA	-KERIA	-TSU
-Harrigarri -Liluragarri -Izugarri -Pozgarri	-Usainka -Muzinka -Saltuka -Deika -Dragoka -Zotinka -Buztanka	-Askakeria -Bihurrikeria	-Ustetsu -Itxaropentsu

3. *-kada*: Neurria.

*-pe*: Behe berbatik jatorkun atzizkia, beraz, azpiko aldea adierazoko deusku.

-*tar*: Askotan personak, animaliak edo gauzak zelangoak diran azaltzerakoan erabilten da.

-*tasun*: Kualidade abstraktuen izenak sortzeko. Gehienetan gauzen alde ona erakusteko erabilten da.

-*kizun*: Atzizki hau ekintza adierazoteko erabilten bada be, badauka askotan geroaldiko kutsua.

-*garri*: Sortzailea, zergaitia.

-*ka*: Zelan galderari erantzuten deutso erderazko gerundioa sortuz, baina denpora kutsua be badauka.

-*keria*: Izen abstraktuak sortzeko. Gauzen alde negatiboa erakusten deusku.

-*tsu*: Gehienetan izenlagunak egiteko erabiliko dogu: "Zelangoa da? Indartsua", indar handia daukana. Gitxi gora-behera zentzuan be erabilten da.

4.

	-TASUN	-KERIA
Bihurri	bihurritasuna	bihurrikeria

Goiko ariketan ikusi dogun moduan, atzizki bi honeek oposizino argi eta garbia erakusten dabe euren artean. Lehenengoak gauzen alde ona erakusten dauan artean, bigarrenak kontrakoa erakusten deusku, hau da, alde txarra. Mikelek alegia osoan erabilten dauz atzizki bi honeek gauzak kontra-jartzeko.

5. • Arineketan: Arrapaladan.

• Geldiro-geldiro: Poliki-poliki, astiro-astiro.

• Apropos: Beren-beregi.

• Aurkitu: Topau.

• Itxi: Zarratu.

• Urtenbide: Igesbide.

6. • Sartubidea: Urtenbidea.

• Loditzen: Argaltzen.

• Zabal: Estu.

• Askakeria: Askatasuna.

• Bihurrikeria: Bihurritasuna.

7. • Aharrausi luzea ...

a. **logura eta gosea.**

• Amuarrain handiak...

b. **bokatu handia.**

• Sareetan arrainekin...

a. zaborra eta zikin.

8. Egunsentia zan. Udako egunsentia.

Basoaren handiko aldean, oso nagi egoan eguna, erdi lotan. Eta erdi lotan, basoko erreka baten ondoko iluna urratzen hasi zan, astiro-astiro, gogo handirik gabe, aharrausika. Baina oraindino ez zan ezer be ikusten uretan, ura bera be ez.

Azkenengo uluakaz isiltasuna eten eta haresti baten sartu zan gauontza. saguzahar bat be haraxe sartu zan, zizt-zazt, hegazkada oker eta bizkorrez.

Errekako uraren murmur isil gozo batzuk entzun ziran. Sasiarteko bedarpetan egoan erbiak begi biak zabaldu zituan.

Eguna erdi lotan egoan baina, haizea bizkor ebulan, harantz eta honantz, gau lotiaren altzoan. Erreka hegaletako bedar moltsoak iratzartu nahirik ebulan. Bizkarrean joten ebazan, kontuz-kontuz, ikaraturik izartu ez eitezan.

Loguratu egin zan gaua eta, isil-isilik, lotarantz joan zan.

Han, urrinean, kantatzen hasi ziran txori goiztar batzuk. Errekarantz etorzan beste batzuk, arin etorri be. Baina aurrerantz joan ziran, baserri bateko soloetarantz.

Txantxangorriaren kantu apalak eraginda, honen habia itxi eta erreka ertzerantz etorri zan kukua be, eta bertan gelditu, leizar baten adarrean, egunaren zain.

Baetorren etorri be eguna, baetorren. Nagiak atera eta pozik eta arineketan etorren errekarantz, argiz eta berotasunez jantzirik. Haxe zan benetan bat-bateko bizitasun eta apaindurizko ikuskizun harrigarria!

Eguna etorriaz batean, barriz jaio zan izadia zoragarriro. Bizi-bizi agertu zan bizia.

Han, hor eta hemen, leku guztietan agertu ziran txoriak, euren abesti alaitsuz eguna eta izadia agurtuz.

9. Haretxa, artea, pinua, sagarrondoa, ikoa, gaztainondoa, mizpe-  
rua.

10. • Halandagutzizkoa.

- Kontsesiboa.
- Erlatibozkoa.
- Zergaitizkoa.

- Osogarria.
  - Aurkaritzako lokailua.
  - Baldintzazkoa.
  - Baldintzazkoa.
11. • Sasiarteko bedarpetan egoanak begi biak zabaldu zituan.
- Dana agertu zan ederkiro, Arkadia barri bat sortu izan balitz **moduan**.
  - Zer jana ugari izan **arren**, lehenengotan ez eben jaten ez eulirik, ez eltxorik, ez ogi birrinik, ez arrainkariak emondako ezer, bildurretan egozalako.
  - **Nahiz eta** erdi barautan bizi ezinik bizi, zotz bat lez argal-argal gelditu arren ez eban atzerarik egin Arrankarik.
12. *Bihurtu* aditz berezia da, eta beste aditz berezi batzuk lez, mugagabea eskatzen dau. Izena, izenondo eta izenlagun batek lagundurik dagoanean, predikatua mugatzeko joera dago: *eta emakumerik ederrenA bihurtu zan*.
13. *Zan*: Izan, lehenaldia, 3. persona, singularra.  
*Egoan*: Egon, lehenaldia, 3. persona, singularra.  
*Ebilan*: Ibili, lehenaldia, 3. persona, singularra.  
*Etorzan*: Etorri, lehenaldia, 3. persona, plurala.  
*Etorren*: Etorri, lehenaldia, 3. persona, singularra.  
*Egozan*: Egon, lehenaldia, 3. persona, plurala.  
*Dagoz*: Egon, orainaldia, 3. persona, plurala.  
*Ziran*: Izan, lehenaldia, 3. persona, plurala.  
*Ebilzan*: Ibili, lehenaldia, 3. persona, plurala.  
*Zagoze*: Egon, orainaldia, 2. persona, plurala.  
*Zarie*: Izan, orainaldia, 2. persona, plurala.

## ULERTU DOZU?

1. • Amuarrain handi bi eta zazpi txiki agertzen dira. Askatasuna Arrankarik baino ez dau lortzen, amuarrainik gazteenak.
- Euli eta eltxo gozoen bila doaz amuarrainak eta horregaitik sartzen dira sarera.
  - Sare bi dagozala. Amuarrainak atrapatuko egin dabe butrinoaren zuloa.

- Arrainkariak zorro batera botatzen ditu amuarrain-aita eta amuarrain-ama.
- Arrainkarien menpean dagoz.
- Askatasuna faltau jako Arrankariri. Saretik kanpora egon gura dau, eta horregaitik dago triste.
- Ez dau ezer jaten, eta holan sareko zuloetatik urten ahal izango dau argalaren argalaz.
- Arrainkariaren zorro barruan amaitzen dabela.

## 2. Askatasuna.

4. Arrankari: gaztea eta zuhurra.  
Arrainkari.  
Amuarrainak: gazteak eta kokoloak.  
Amuarrain-aita.  
Amuarrain-ama.
5. • Egunsentia zan... oraindino ez zan agiri amuarrainik: Lasaitasuna sarreran.  
• Hain zuzen be... Arrankari faltau zan eta: Alegiaren mamin guztian iskanbila eta bildurra somatzen da.  
• Iges egin eban Arrankarik... arrautzak egiten: Amaieran barriro be lasaitasuna.

## BESTE GARI MOTA BAT

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Ika-mika, droga, errieta, kisk eta kosk, eztabaida, tekela...
2. *Erein*: Lurra prestau ostean, bertan hazia sartu.  
*Erne*: Landarea sortu eta hazten hasi.  
*Hazi*: Landara barri bat sor dezakeen fruituaren zatia.  
*Landatu*: Landara edo hazi bat lurrean ipini, hazi eta bizi daiten.  
*Jorratu*: Lur landuetan bedar txarrak atera.
3. • Nahiz eta batuta euki, batzen jakin behar da lehenengo, eta zuk ez dakizu...  
• Honetara ibili ezkerro garirik ez ereitea onena.

4.

BIZKAIERA	BATUA
Zagoze	Zaudete
Aukeratu genduan	Aukeratu genuen
Ereiten eben	Ereiten zuten
Ebilzan	Zebiltzan
Ostu egin eutsezan	Ostu egin zizkien
Erein eban	Erein zuen

### ULERTU DOZU?

1. Euskal Herriko zazpi probintziakaz. Bakotxak bere euskerea dauka, eta bakotxak berea gura dau nagusitu.
2. Euskeraren sinboloa da.
3. Euskera gero eta leku gitxiagotan egiten da, eta gero eta jente gitxiagok egiten dau. Zazpi probintzietakoa da ona, baina bakotxak berea nagusitu gura dauanez, ezin izango da aurrera atera. Ados jarri ezean, kanpotarrak etorriko dira eta eurek gura dabena nagusituko dabe.
4. Guk geure artean bat egiten ez badogu, kanpotarrak sartuko dira.
5. Liburua euskera batuaren sorrerako momentuan dago idatzita. Mikel euskera batuaren aldekoa zan baina jarrera moderatu batean. Postura bi egozan euskeraren aurrean: batetik euskalkiak defenditzen ebezanak, eta bestetik euskera batua baino gura ez ebenak. Mikelek erdibidea gura eban: dakigunetik ez dakigunera: geurea landu eta batura pasau.



## TXIMINO ETA TXIMINA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1.

-TASUN	-TEGI	-GA	-GARRI	-PE
-Nortasun	-Betaurrekotegi -Prakategi -Oskitegi	-Kolorga	-Ezaugarri -Leungarri	-Besape

2. Konparazinozko perpausa da. Gehientasuna adierazoteko, normalean, *-en* atzizkiaz baliatzen gara. Zenbatasuna adierazoteko, normalean, *asko* eta *gitxi* zenbatzaileetatik eratorritako *gehien* eta *gitxien* formak erabilten dira. Gehien eta gitxien determinatzaile modura ez ezik, aditzondo modura be erabilten dira sarri. Aditzondo bategaz erabilten diranean hiru eratara agertu daitekez: mugatzaile barik *-en*, mugatzaileagaz *-ena* edo partitiboan *-enik*. Bestalde, atzizki hau izen-sintagmari eransten jakonean, sarri, izena partitiboan jartzen da, ezinbestekoa ez bada be. Partitiboaren ordeaz *non* eta *nondik* kasu-markak be erabilten dira: *mutiletan bera zan ederrena*. Amaitzeko, berba batzuetan, atzizki hau eransteaz, forma irregularrak sortzen dirala esan behar da.

### ULERTU DOZU?

1. Nortasun eza da gaia.
2. Mikelek alegia honetan kontsumismoaren kritika sakona egiten dau. Mikelek nortasunaren idea aitatzten dau alegia honetan. Baina nortasun hori moda eta publizidadearen menpean egotearen kritika egiten dau.
3. Tximino eta Tximina nortasunez janzten doaz Nortasun dendarra. Publizidadeak eragina dauka protagonistengan zer erabili eta erabagiteko. Azkenean sartu ez diran moduan irteten dira dendatik, eta jente artean dabilz nortasun barik.

## ARRATOIBODA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Gizendu*: Lodi bihurtu, loditasuna hartu edo emon.  
*Pernil*: Txarriaren hanka ondua eta hanka horren izterreko haragia.  
*Txikitu*: Txiki edo txikiago bihurtu.  
*Bits*: Ahotik jausten dan adurra.  
*Ondu*: Prestau.  
*Ezkaratz*: Baserrietan, eta edozein etxetan sarreran dagoan gela zabala.  
*Sikatu*: Lehortu.  
*Bihotz jausita*: Triste.
2. Balio enfatikoaz erabilten da. Ugaritasuna adierazoten dau. Ize-nagaz doanean, haren aurretik ipini behar da, baina bakarrik be-ugaria da.
3. Toto: Txakurra.  
Popota: Kotxea.  
Atatan joan: Kalera joan.

## KAIOLAN JAIO ETA HAZITAKO TXORIA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Adar baterik eskegita dagoan urrezko kaiola txiki baten jaio zinan txori txiki ezer/hegaz egiten ez dakizun txori txiki politori barruan magnetofioia jarri deusuen gure txori endekatu hori, ai, disekatua dirudizun gure txori txiki destxoritu errukarri.  
O, zu, hor, kaiolaren barruan eder eta nasai. Geldi-geldi zagozan txori txiki zotz estu luze baten gainean geldi-geldi zagozan txori txiki politori.
2. *Hazi*: Handitu ...  
*Eskegita*: Dindilizka...  
*Nasai*: Trankil...  
*Endekatu*: Alperrik galdu, zimeldu ...  
*Errukarri*: Penagarri, tamalgarri...

## EGIEDERKO ALEGI

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Handiki*: Bere ondasunen edo aberastasunengaitik, aginte, ahalbide edo itzal berezia dauana.  
*Jazoera*: Gertaera.  
*Jaramon egin*: Kasu egin, kontu emon.  
*Balizko*: Litzatekeanari baina ez danari jagokona.  
*Aldikada*: Okurrentzia, burutazino.  
*Gauza izan*: Gai izan.  
*Herrena*: Hanka batean, gorputza alde batera eta bestera behar dan baino gehiago makurtuz ibilarazoten deutson oker edo gaxotasun bat daukana.  
*Asaba*: Arbasoak, aitita-amomaz gorako aurrekoak.  
*Lander*: Behartsua, pobrea.
2. • Lehengo zaharren esaerak, guztiak jazoerak.  
• Errementariaren etxean zotza burduntzi, arotzaren etxean, otzarea aurki.  
• Negua zaharren hilgarria, gazteen zahargarria.  
• Lehen halan, orain holan, gero ez jakin zelan.  
• Asko daki zaharrak erakutsi beharrak.  
• Alperra beti gazte.  
• Bakotxak berea eta bakotxari berea.  
• Ordua doanean doa mundua.  
• Txapela buruan eta ibili munduan.
3. Atsotitza esakera zaharra da, errefracua.
4. Alegia ipuina edo elezaharra da, gehienetan hitz neurtuetan moldatua, persona gisa jokatzeko diran animaliak edo gauzak agertzen dirana, eta ondorioztat ikasbide edo irakaspen moralaren emoten dauana.

### ULERTU DOZU?

1. Alde batetik ahozko espresabideak dagoz, eta beste batetik idatziari jagokozanak. Mikelek biak alkarren osagarri dirala-ta ezin dala bata bestea barik ulertu defenditzen dau.

2. Izen honeek jartzean, bakotxak adierazoten dau personaia bakotxaren izakerea, berbakerea eta jokaerea.  
*Atsotitz:* Esakera zaharra da, errefraua.  
*Sermoi:* Eleiz hitzaldia da.  
*Alegi:* Ipuina edo elezaharra, gehienetan hitz neurtuetan moldatua, persona modura jokatzeko diran animaliak edo gauzak agertzen dirana eta ondorioztat irakaspen morala emoten dauana.
3. Alegian talde ezbardin bi agertzen dira. Alde batetik Alegi eta Atsotitz dagoz. Honeekaz batera Sermoi agertzen da, euren morroitzat. Txabola baten bizi dira. Beste alde batetik Eleberri, Saio eta Antzerki dagoz. Jauntxo handikiak dira honeek.
4. Alegia honetan agertzen diran alde bien batasuna proposatzen da, baina ez da inoz lortzen. Mikelentzat ona da beti galtzailea. Beraz, alegia honetan galtzaileak Alegi, Atsotitz eta Sermoi dira, eta irabazleak Eleberri, Saio eta Antzerki.
5. Egiederren kokatuta dago istorioa. Egiederren bihotz ingurua txalet eta apartamentu ederrez loratuta dago, olerkiz eta prosaz, eskuz eta inprentaz egindako txalet eta apartamentu zoragarriak. Han lagun asko bizi dira.
6. Aberatsa. Mikelek beti erabilten dau egitura aberatsa, eta hau, gainera, ezin aberatsagoa da, literaturaren parte garrantzitsuak erabilten dauzalako.
7. Mikel herrikoia, hau da, ahozkoaren alde jartzen da. Hau argi eta garbi ateraten dogun ondorioa da, Mikelek alegian Alegi, Atsotitz eta Sermoi bere etxean onartzen dauzalako.
8. Balizkoa da, beti balizko gauzen gainean dabilelako.
9. Oso aberatsa da. Errekurso pila bat darabil, ondo kokatuta. Hau hurrengo honeetan ikusten da: atsotitzetan, errefrauetan eta hitz jokoetan. Hizkera literarioa darabil.

## HEZI ARREN

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Maltzur*: Oker, gaizto, bihurri...  
*Erraz*: Samur...  
*Zirkin*: Mobimendu, higidura...  
*Taket*: Tantai...  
*Sinestu*: Sinetsi...  
*Postura*: Erronka, tema...  
*Gogotsu*: Gogoz, gogoki...  
*Ganorabako*: Trakets, baldar, trauskil...  
*Barre purrustada*: Barre algara, barre zantzoa...  
*Artegatu*: Urduritu, larritu...
2. • Moduzkoa.
  - Baldintzazkoa.
  - Kontzesiboa.
  - Baldintzazkoa.
  - Gerundioa.
  - Helburuzkoa.
  - Konparazinozkoa.
  - Erlatibozkoa.
3. *Jokatu* aditza erabiltean, zeozeren lehia egiten da. *Jolastu*, *oster*a, *umeek* egiten dabe. *Kromotan jolastu* egiten da eskolan, baina *pelota partiduak jokatu* egiten dira.
4. *Be(re)* lokailuak (*ere* batuaz) perpausaren osagai jakin bati egiten deutso erreferentzia eta, honenbestez, ez da autonomoa eta ezin da bakarrik joan. Beti be aitatutako perpausaren elementu horren atzean eta ondo-ondoan kokatzen da. Beraz, *be(re)* lokailuak bi ezaugarri nagusi daukaz:
  - a. Perpausaren osagai bati egiten deutso erreferentzia.
  - b. Osagai horren atzean eta ondo-ondoan kokatzen da beti.

Perpaus barruan hartzen dauan tokiaren arabera eta laguntzen dauan perpausako osagaiaren arabera, *be(re)* lokailuak erabilera desberdinak euki ahal dauz.

### BE(RE) perpaus barruan

*be(re)* perpausaren edozein osagaigaz joan daiteke. *be(re)* lokailuak perpausaren osagai bakar bati egiten deutso erreferentzia, eta jagokon osagaiaren arabera, perpausaren esangura erabat aldatzen da.

*be(re)* lokailua jagokon osagaiaren atze-atzean kokatzen da beti. *be(re)* adizki trinko baten aurrean doanean, baiezko perpausa izan ezker, *ba-* aurrizkia hartzen dau.

Aditz jokatugabeakaz, beste edozein osagaigaz moduan erabiltzen da.

### Osagaia aditza bera danean

Erreferentziako osagaia aditza danean, *be(re)* aditzoinaren atzean jarri eta *egin* aditza gehitzen jako.

Ezezkoetan *be*, beste hainbeste gertatzen da, baina gehienetan indarra emoteko erabiltzen da. Bestalde, aditz nagusia eta *be(re)* leku bitan jarri daitezke: laguntzailearen atzean edo ez partikularen aurrean.

## POZORDU ETA MINORDU

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Hitz konposatuak dira. *Poz* eta *ordu* berbak osatzen dabe *pozordu*, eta *min* eta *ordu* berbak *minordu*.

## ERLE ETA MIRU

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

- 1.

BIZKAIERA	BATUA
Itxi egidazu	Utz iezadazu
Askatu nagizu	Aska nazazu
Hegaz egin daidan	Hegaz egin dezadan
Bizi naiten	Bizi nadin

2. *Garden*: Argia igaroten eta atzean dagozan gauzak garbi ikusten ixten dauana.

*Anker*: Nonor sufritzen ikustean edo nonori sufriarazotean gupidarik sentitzen ez dauana edo atseginez hartzen dauana.

*Eztenkada*: Ezten kolpea, esaldi mingarria, zirikada.

*Askatu*: Loturik edo modu batean edo bestean itsatsirik egoanak egoera hori itxi, edo halakoari itxiarazo.

*Ezti*: Gai likatsua edo oso gozoa, erleek egin eta abarasketan batzen dabena.

*Ezten*: Zenbait intsektuk sabelaldearen muturrean dauken arantza modukoa.

*Iruntsi*: Eztarritik igaroarazo.

## ULERTU DOZU?

1. Herriaren zapalkuntzea.
2. Erle eta Miru ez dira ondo konpontzen, eta Miruk, Erlek eztenkadarik ez sartzeko, bere erpapean hartzen dau. Erlek askatzeko eskatzen deutso, baina Miruk kasurik egiten ez dauanez, larriaren larriaz eztenkadea emoten deutso Miruri, eta honek haserrearen haserrez hil egiten dau Erle.

## INAUTERI

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

2. *Inauteri*: Aratoste ...

*Mozorro*: Zomorro...

*Hizketa*: Berbeta...

*Zirriparra*: Iskanbila, istilu, astrapalada...

*Nekagarritsu*: Kantzagarritsu...

*Ezizen*: Gaitzizen, goitizen...

*Makila*: Palu, zarta...

*Iskanbil*: Matraka, ika-mika...

*Gurtu*: Adoratu...

3. *Astiro*: Arin, arrapaladan, galapan...  
*Hobe*: Txarrago...  
*Erraz*: Gatx, nekez...  
*Zoriontsu*: Dohakabe...  
*Oker*: Artez...  
*Anitz*: Gitxi...
4. Personifikazioa da prosopopeia. Abere edo bizibako gauzak gizakiaren jarrera eta ezaugarriak agertzea izango litzateke.
5. *Mama*: Ura.  
*Txitxi*: Okela.  
*Punbala egin*: Jausi.  
*Atatan joan*: Paseoan joan.  
*Txatxa*: Madaria.  
*Toto*: Txakurra.  
*Popota*: Kotxea.  
*Popak*: Janaria.  
*Plisti-plasta*: Bainua.

## ULERTU DOZU?

1. Mikelek anuntzio eta publizitate kartelak letra handiz eta askotan errepikatuz emoten dauz. Horregaz jendea konturatu daiten gura dau. Kritika egiten deutso Mikelek publizidadeari.
2. Herriak erabilten dauzan berba normalak eta forma normalak erabilten dauz. Holan, jendeak errazago ulertuko dau autoreak esan gura dauana. Hori ezizenetan, herri kantetan eta abarretan ikusi daikegu.
3. Uria handitu ahala euskeraz egiten diran akatsak be gehiagotu egiten dira. Gero Derioko Seminarioko Udako Ikastaroa aitatzen dau.
4. Izadia desagertzearen gainean dabil. Kritika egiten dau alkarrizketaren bidez.
5. Personaia batzuen alkarrizketa eta hitz jariora erakusten deuskuz Mikelek. Personaiek egiten dabe ipuina, narratzaileak parte hartu barik.
6. Personaiak letra eta zenbaki batzuen atzean mozorrotzen dira.



## SAI ETA OTSO

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Diruduna eta aberatsa dalako. Berak ez dau ezer faltan topetan.
2. • Egunon!
  - a. **Halan ekarri!**
    - Eskerrik asko.
  - b. **Ez dago zergaitik.**
    - Hau nire semea da.
  - c. **Kaixo. Zelan?**
    - Egia da azterketa egingo dozula?
  - c. **Baietz ba!**
3. *Buru:* Jabe, nagusi...  
*Eutsi:* Heldu, oratu...  
*Moko:* Piko, punta...  
*Urratu:* Tarratatu, puskatu...  
*Zatitu:* Hautsi, apurtu...  
*Ondora:* Albora...  
*Aberats:* Dirudun...  
*Adiskide:* Lagun...
4. Gorpua hilda dagoana da, eta gorputza bizirik dagoana.

### ULERTU DOZU?

1. Alkarrizketa erabilten dau. Honegaz testua arinagoa egiten da. Personaiek zuzenean egiten dabe berba, eta holan irakurlea sartu egiten da ekintzan.
2. Sai jaunarentzat ezin da mundu hobea egin. Bera enpresa bateko buru da, aberatsa, eta jantokietan jan ahal dauana. Otso jaunna joako ondora, eta errieta egiten deutso abere hil bat jaten dagoalako. Baina Sai jaunak badauka beronentzako erantzun zuzena, berak txarrago egiten dauala dinotso, abereak bizirik jaten dauzalako.

## BILDOTSAREN ABESTIA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Bildotsa*: Ardiaren umea, arkumea.  
*Iraun*: Egoera berean jarraitu.  
*Mindu*: Mina, samina eragin.  
*Ongile*: Ongia egiten dauana, persona edo erakunde bati bere ondasunen bitartez laguntzen deitson personea.  
*Hiltzaile*: Nonor hilten dauana.
2. *-gile*: Esanahia: egilea, sortzailea. Aldakiak: *-kile*. Izen arruntakaz erabilten da. Adibideak: gaizkile, egurgile...  
*-tzaile*: Egile zentzua dauka. Aditz trantsitiboakaz erabiliko dogu, batez be *-tu/-du* atzizkiaz osoturiko aditzakaz; *-i* bokalez amaitzen diran batzukaz, eta beste bokal zein kontsonantez amaitutakoakaz. Adibideak: iraultzaile, erretzaile, zapaltzaile...

## TUTULU

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. *Berari buruz*: Beraren gainean...  
*Berotu*: Haserratu, biztu...  
*Jakitun*: Jakintsu, aditu...  
*Ulertu*: Aitu...  
*Eztabaida*: Ika-mika, matraka...
2. Handikeria, gaiztakeria, lelokeria, alperreteria, okerreria... Izen abstraktuak sortzeko atzizkia da.
3. Izen berari erreferentzia egiten deitsien bi izen dagozanean erabilten da. Egitura beti da berbera: izenordain indartua Noren kasuan + burua (aurrekoa plurala bada be, bere burua singularrean agertuko da).  
Halanda guztiz be, aditz jakin batzukaz (atundu, aurkeztu, duxatu, garbitu, jantzi...), egitura horren ondorioz *izan* aditz

laguntzailea darabilgu bihurkaritasuna adierazoteko. Kasu horretan, objektua agertu ezker, esaldiak galdu egiten dau bihurkaritasun zentzua, eta nor-nork motako aditzak erabili behar dira.

4. • Astoa atzez baino .....
  - b. **terkoagoa zara.**
- Asto asko .....
  - a. **lasto asko.**
- Asto bati buztana atera .....
  - b. **eta beste bati sartu.**
  
5. • Ezin zara terkoago izan.
  - Jente askorentzat gauza asko behar.
  - Alperreko lana egin.
  
6. *Ardiak:* Marraka, marru, bee, beeka  
*Behiak:* Orro, marruma, murrusa, murru  
*Txakurrak:* Zaunka, ahausi  
*Katuak:* Miao, ñau  
*Oiloak:* Karaka  
*Txarriak:* Kurrin  
*Zaldiak:* Irrintzi
  
7. • Bera aurrean ez dagoan bakotxean, Kirten, Kaiku, Tenteltzar eta holakoak esaten ditue.
  - Irakurten dauanetik erdirik ulertu ez arren, badaki irakurten Tutuluk.
  - Arrantza egiten ez ezik, irakurten be ikasi eban, hainbeste urtetan eskolara ibili ondoren.
  - Eta irakurten-irakurten ebilela, hauxe esan ei eban.

## ULERTU DOZU?

1. Alegigileak dira. Esopo VI. mendean Kristo aurretik bizi izan zan. Fredo erromatarra zan (I. mendea Kristo ostean). Jean de La Fontaine frantziarra (XVII. mendea). Felix de Samaniego eta Tomas Iriarte espainiarrak XVIII. mendean bizi izan ziran.
2. Personaiei ezizenak ipintea errekurtsu herrikoia da. Euskal Herriko ohiturea da ezizenak erabiltea, eta horregaz Mikel herriagana hurbiltzen da.

## BETIKO LELOAREN DURUNDUA

### DAKIZUNETIK EZ DAKIZUNERA

1. Amaiera emon esan gura dau.
2. Zurunba, burrunba, erremola, zirimola, dardar, negar... R asko erabilten dau hemen Mikelek, eta horregaz iskanbila, desesperazioa eta tristezia adierazo gura dau.
3. Lanean gatxena hastea da; eginez gero urrea balio dau.

### ULERTU DOZU?

1. • Hasieraren hasiera...? Aukera. Gauzak egiten hasten bazara, aukera dozu gura dozun hori lortzeko. Hasten ez bazara, ostera, ez dozu inoz ezer lortzeko aukerarik izango.
  - Hasieraren azkena...? Onena. Hasten dozunagaz azkenean bazagoz, seinale ona da. Horrek lortu dozula esan gurako dau. Hasita ostean gauzak amaitu be egiten dira.
  - Azkenaren hasiera? Aurrera! Zeozer lortzeko hasieran bazagoz, aurrera egin, ez lotu, ze aurrera eginez lortuko dozu.
2. Alegia osoa da bertsoa. Herri tradizioa da hau. Musikaltasuna emoten deutso alegiari. Bertsoaren maminak garrantzi handia dauka.
3. Mikelek erabilten dauan hizkerea sano aberatsa da. Baina aberatsa izatearren, ez dau esan gura gatxa danik, ostera. Mikelek herriak ulertzeko moduan idazten dau beti, baina herriko hizkera jatorra erabiliz.
4. Bertso tristea da. Mindura bihotzean dino bertsoak, eta tristezia adierazoten daben beste berba batzuk be badagoz: ezin egon inon baketan ni? hau pena...
5. Mikel ezkor agertzen da bertso osoan. Ez daki etorkizunean zer izango dan, eta gerokoak gero ikusiko dirala dino.

## ESKOLAN LANTZEKO sorta

1. *Katuen Testamentua. Umeen kantu eta jolasak* (KDa, kassetta eta liburua)

ASKOREN ARTEAN

Euskal Herriaren mendebaldeko kantutegi tradizionalako ume-katuen bilduma eta irakaskuntzarako materiala (Ikastolen Elkartearekin koedizioa).

2. *Hamaika abere-ipu. Bizkaiko herri-alegiak*

ASKOREN ARTEAN

Herri-alegien sortatxoa eta eskolan lantzeko materialak (Ikastolen Elkartearekin koedizioa).

3. *Ipuinen tailerra*

SEVE CALLEJA-ANTON IRUSTA

Irakurzaletasuna suspertzeko metodologia eta ariketa praktikoak, ikasle eta irakasleentzat.

4. *Bat eta bi, hiru eta lau*

IDOIA ALZIBAR

Herri-kantuak irakasteko eta eskola-saioetan erabiltzeko ikas materiala.

5. *Ipuin antzeko alegi mingotsak*

MIKEL ZARATE

Unidade didaktikoa: Idoia Alzibar

Alegia generoaren bitartez, euskal gizarte eta kulturako gaiak modu eder eta atseginean erakutsita.



LABAYRU IKASTEGIA



LEZAMAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE  
CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saïordetza



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura

ISBN 84-89816-38-7



9 788489 816381